


Gaitasunen garapena aldaketa-estrategiatzat Alternatibak bilatzeko esperientzia kolektibo bat



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea, 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Fax: 944 161 938

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Fax: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Fax: 943 320 267

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Fax: 945 202 676

www.alboan.org
alboan@alboan.org

Egilea: COMPARTE komunitatea

Argitalpenaren erredakzioa: Amaia Unzueta eta Mary Tere Guzmán

Azala eta barruko irudiak: Muxotepotolobat

Urtea: 2015

Diseinua eta maketazioa: Marra, SL

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: BI-567-2015

Obra honen zatiak erreproduzitu daitezke, betiere merkataritza-helbururik ez badu eta iturria aipatzen bada.

Aurkibidea

Hitzaurrea	7
Sarrera	11
1. kapitulua. Garapen alternatiboa ala garapenerako alternatibak?	17
1.1. Sarrera	19
1.2. COMPATERen garapen alternatiboaren ezaugarriak	21
1.2.1. Tokian tokikotik abiatzen da	24
1.2.2. Natura-ondasunak bidezko eta jasangarri moduan erabiltzen eta defendatzen ditu	28
1.2.3. Pertsona guztientzako bizi ona lehenesten du	30
2. kapitulua. Gaitasunak	33
2.1. Sarrera	35
2.2. Gaitasunen ikuspegia	36
2.2.1. Gaitasunen ikuspegiaren elementu bereizgarriak	37
2.2.2. Gaitasunak PNUDren giza garapenaren ikuspegian	38
2.3. Gaitasunen dimentsioak eta kategoriak	40
2.3.1. Mailak edo dimentsioak non sortzen diren gaitasunak	41
2.3.2. Gaitasun kolektiboak eta kompetentzia indibidualak: Bost Gaitasunen (5G) eredua	43
2.3.3. Gaitasunen kategoriak eta ikuspegi osagarriak	45
3. kapitulua. COMPATERen gaitasunak garatzeko mapa	49
3.1. Sarrera	51
3.2. COMPATERen gaitasunak garatzeko maparen elementuak: zertarako dira?	52
3.2.1. Etorkizun politiko alternatiboa	53

3.2.2. Gaitasunak garatzeko aukeren baldintzak	54
3.2.3. Gaitasunak garatzeko ibilbide bat	55
4. kapituluua. Alternatiba ekonomiko-produktiboak inplementatzeko gaitasunak garatzeko estrategiak	69
4.1. Sarrera	71
4.2. Estrategia 1. Prestakuntza teknikoa eta giza prestakuntza	72
4.2.1. Edukiak	72
4.2.2. Metodologiak	75
4.2.3. Zailtasunak, lorpenak eta ikaskuntzak	76
4.3. Estrategia 2. Berrikuntza eta garapen teknologikoa	78
4.3.1. Tokiko jakintzak berreskuratzea	78
4.3.2. Teknologia/metodologia berriak txertatzea	78
4.3.3. Zailtasunak, lorpenak eta ikaskuntzak	80
4.4. Estrategia 3. Gizartearen eta lanaren antolaketa	84
4.4.1. Zailtasunak, lorpenak eta ikaskuntzak	86
4.5. Estrategia 4. Kalitatearen plangintza eta kudeaketa	89
4.6. Estrategia 5. Sistematizazioa eta ikerketa	90
4.7. Estrategia 6. Eragin politiko eta soziala	90
4.7.1. Gobernu-erakundeen esparruko bideak (eragin politikoa)	91
4.7.2. Komunitateekin eta gizarte-elkarteekin erlazionatutako bideak (gizarte-eragina)	92
Laburpena	93
Eranskinak	101
2. kapituluaren eranskinak	103
1. eranskina. 5G-en ereduak: gaitasun kolektiboak	103
2. eranskina. Bebbington-ek proposatzen dituen kapitalaren 5 formak (1999, 2005)	107
3. kapituluaren eranskinak	108

3. eranskina. COMPARTERen esperientzia ekonomiko-produktiboak	108
1. Ikerketa eta Herri Hezkuntzako Zentroa / Bakerako Programa (CINEP/PPP), Kolonbia	110
2. Nekazarien Institutu Nagusia (IMCA) eta SUYUSAMA Fundazioa / Kolonbia	112
3. Viviendas Hogar de Cristo delakoa / Ekuador	114
4. Garapenerako Zerbitzu Jesuita / El Salvador	116
5. Puente de Paz delakoa / Guatemala	118
6. Zerbitzu juridiko eta sozialak (SERJUS) / Guatemala	120
7. Eskubide Indigenen Zentroa, A.C. – Yomol A`Tel (CEDIAC) / Mexiko	122
8. Ikerketa Aplikaturako eta Tokiko Garapena Sustatzeko Institutua, NITLAPAN – UCA / Nikaragua	124
9. Paraguaiko Antonio Guasch Ikasketa Zentroa (CEPAG) / Paraguai	126
10. Nekazarien Ikerketa eta Sustapen Zentroa (CIPCA) / Peru	128
11. Nekazariak eta Industria Gaitzeko Jesús Obrero Zentroa (CCAIJO) / Peru	130
4. eranskina. COMPARTERen Gaitasunen Katalogorako esparrua	132
Bibliografia eta dokumentuak	137
Taulak eta irudiak	
1. taula. COMPARTERen garapenaren ezaugarrien laburpena	23
1. irudia. COMPARTERen Gaitasunak Garatzeko Mapa	53
2. irudia. COMPARTERen gaitasunak garatzeko ibilbidearen grafikoa	58
3. irudia. COMPARTERen esperientziek garatutako gaitasun kolektiboen grafikoa, kategoria fisiko-materialari dagokiona	59

4. irudia. COMPARTERen esperientziek garatutako gaitasun kolektiboen grafikoa, politiko-soziala kategoriari dagokiona	62
5. irudia. COMPARTERen esperientziek garatutako gaitasun kolektiboen grafikoa, kategoria psikologikoari dagokiona	65
6. irudia. COMPARTERen esperientziek garatutako gaitasun kolektiboen grafikoa, zentzua eta harmonia kategoriari dagokiona	67

Hitzaurrea

Inoiz ez da izan erraza gizartea garatzeko lan egitea. Beti erresistentziazko erantzunak eragiten ditu edozein aldaketa-proposamenek. Eta aldaketa sakon eta iraunkorra bada helburu, epe luze baterako ikuspegia eta konpromisoa behar dira, baina ez da formula zehazturik horretarako. Hori esatea ez da ezer berririk esatea. Zailtasun eta erresistentzia horiek ikusiko zituen garapen-proiekturen batean parte hartu duen edonork.

Baina, egungo testuinguruan, areago korapilatu dira aldaketa sustatzeko baldintzak. Berriki egindako lan batean, ikerketan aritzen den erakunde batek galdetu zuen gaur zergatik pentsatu behar dugun arazo konplexu eta malapartatuetan garapen-lanei ekiteko. Konplexutasuna aipatzeak erakusten du bestelako mundua dugula aurrean, eta erdigunean jartzen dela arazo kognitiboa. Askotan, garapenaren praktikak hobeto adierazten dira “arazo malapartatu” deritzenekin (lan-kidetzak behar da arazo horiek konpontzeko), konpontzeko modukoak diren eta negoziazioen bidez konpon daitezkeen beste arazo batzuen bidez baino. Eta serio hartu behar da gizarte bat aldatzeak arazo malapartatuaren osagai handi bat duela, eta eskatzen duela eragileek aldaketa erabatekoenei aurre egiteko borondatea izatea, bai azterketan, bai jarduteko moduan.

Hainbat iturri ditu jatorrian konplexutasun horrek. Batetik, kanpo-harremanen sistema global baten barruan gaude; sistema hori gero eta nahasiagoa da, eta ezin da jakin nola jokatu duen. Horrek zuzenean eragiten die gure gizarteei, eta modu larrian, gainera. Baina, horretaz gain, lortu nahi diren helburuek ere ekartzen dituzte konplexutasunak. Helburu horiek, gainera, gero eta konplexuagoak dira. Jada ez dira helburu hazkunde ekonomikoa edo jendearen bizimoduaren baldintza material jakin batzuk hobetzea. Orain, erakundeak aldatu nahi dira; horretarako, prozesu berriak jarri behar dira abian, eta jendeak eta taldeek eragile errealak izan behar dituzte. Azken batean, funtzionamendu-eredu berri bat izan nahi da, gizarte-justizia ekar dezan, aurreko sistemak ez baitzuen hori bermatzen.

Ezin esan daiteke konplexutasuna “garapenaren mundu” deritzonaren berariazko arazo denik, nahiz eta larritu egiten diren zenbait gai mundu horretan, eta lana areago zailtzen duten beste berariazko gai batzuk ere badituen. Tokiko baliabideak urriak direnean, zailtasun erantsi bat egoten da, erakundeek gaitasun ahula izaten dute, eta, kasu askotan, ustelkeria endemikoa eta luzaroko gatazka.

Dena den, jardun behar dugun gizartea edozein izanik ere, jakin behar dugu badela konplexutasun berri bat, non ziurgabetasunak, balioen gatazkak eta baldintza bakar eta egiturazko ezegonkortasunak zail egiten duten aurreikustea zein izango diren aldaketa bultzatzeko tresnak eta ekimenak.

Arazo malapartatu horiek zein diren jakin behar dugu. Hala egin ezean, gure praktika zaharrak baliatuko ditugu, eta ez da eraginkorra izango aldaketa eragiteko esku-hartzea. Ez dute izaera hori garapen-arazo guztiek, baina bai garrantzitsuenetako batzuek. Horregatik behar dugu diagnostikoa egiteko gaitasuna, eta arazoak gainditzeko ahalgintza behar dugu, edo, gutxienez, aurre egin, eta ahal dugun heinean kudeatu.

Beste modu batera esanda: metodologia bat behar dugu ulertzeko nola pentsatu eta jardun. Funtsezkoa da esparru teoriko eta metodologikoa prestatzea garapenaren ordezkotzat ikuspegiarekin lan egiteko. Ez baditugu kategoria eta tresna batzuk errealitatea giza garapenaren ikuspegitik ulertzeko eta horren arabera jarduteko, bada, ezinezkoa izango da errealitate hori eraikitzeko aurrera egitea. Erronka hau dugu aurrean: errealitatea ulertzeko eta aldaketa-prozesuak eragin-eko dituzten tresnak izateko behar ditugun elementuak identifikatzea eta azaltzea.

Metodologia bati jarraikiz lan egitea ez da prozesu abstraktutzat hartu behar. Aitzitik, metodologia orok testuinguru bat izan behar du oinarri ezinbestean, haren funtzioa baita jendeak eta erakundeek gaitasun handiagoa izatea errealitateak dakartzan galderei erantzuteko. Beraz, errealitate horren arazoek osatzen eta alderatzen dute metodologia. Horrenbestez, esku-hartzea baino askoz garrantzitsuagoa da elkarreraginen eta aurkikuntzen prozesua. Eta, horretarako, behar dira elkarrizketa irekiagoa eta azterketa eta ekintza sakonago txertatzea; eta horrek eskatzen du ordezkotzat eredu mentalak izatea ez banakoaren garapenari aurre egiteko, baizik eta elkarrekin erlazionatutako garapen-arazoen multzo konplexu, zailtasun eta askotarikoari aurre egiteko.

Ez gara ari metodologia “neutro” batez; metodologia bat izan nahi dugu aukera emango diguna zer gertatzen den ulertzeko, eta, horrez gain, gure ustez gizar-

teak izan behar duenaren ikuspegi jakin batetik irakurketa egiteko. Aldaketaren noranzko jakin batean eragiteko pentsatutako metodologia da. Eta metodologia ezin da eztabaidatu ez bada arau-dimentsio horretatik abiatzen. Eta arau-proposamenaren oinarria da giza garapenaren ikuspegiaren oinarri teorikoa osatzen duten gaitasunen ikuspegia. Hori ulertuta zehaztuko dira helburuak diseinatzeko eta emaitzak ebaluatzeko irizpideak.

Baina helburu hori duen metodologiak diskurtso bat, narratiba bat behar du. Ez ditu soilik prozedurak zehaztu eta ordezeko ikuspegia eman behar: harago joan behar du. Eta horrek eskatzen du diseinua logika arrazionaletik harago joatea, eta, beraz, esku-hartze guztiei koherentzia emango dien diskurtsoa izatea, eta, batez ere, aldaketarako funtsezkoak diren eragileak, alegia, pertsonak, erakartzea, konbentzitzea, motibatzea eta ilusionatzea. Mariáteguik bikain azaltzen zuen zer den dimentsio hori: "...Iraultzaileen indarraren oinarria ez da haien zientzia, baizik eta haien fedea, pasioa, borondatea. Indar erlijiosoa, mistikoa, espirituala da. Mitoaren indarra da. Iraultza-emozioa, Gandhiri buruzko artikulu batean idatzi nuen moduan, erlijio-emozioa da".

Eta gogoeta horiek hona ekartzean, COMPARTERen abentura dut buruan. Ez da nire helburua haren eledun izatea, ezta haren lana modu subjektibo eta interesatuan interpretatzea ere. Baina hitz gutxi batzuekin azaldu behar banu zertan ari diren, zalantza izpirik gabe esango nuke aldaketarako metodologia bikaina prestatzen ari direla. Metodologia berritzailea, errealitatea kontuan hartzen duena, eta ikuspegi arauemaile esplizitua duena. Itxaropena eragiten du dokumentu honek, erakusten baitu taldean aurrera egin daitekeela pentsatzeko eta jarduteko modu berri bat eraikitzeko.

Alfonso Dubois
Hegoa
Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera

COMPARTE osatzen dugun erakundeok geure egin dugu erronka hau: elkarrekin pentsatu zer garapen nahi dugun, gure lanaren oinarri dena. Rol aktiboa izan nahi dugu helburuak prestatzen, proposamenak sortzen eta beste aukera batzuk aurkezten. Badakigu bide luzea egin behar dugula erronka horri aurre egiteko, eta ahalegina eta zorroztasuna eskatzen dizkigula; baina, hala ere, ziur gaude geure egin behar dugula konpromiso hori, gure proposamenen zilegitasuna eta etorkizuna baitago jokoan.

Aurrean dugun krisi orokorrak mahai gainean jarri du, berriro, garapenari eta sustatu den eredu sozioekonomikoaren iraunaldiari buruzko eztabaida. Mugitzeko eskatzen du egoera horrek: ordezko bideak proposatzea, eta horiek eztabaidatzen eta sustatzen ari diren mugimendu eta sareetara batzea. Ez gaude konforme bizi dugun krisi eta hondamendiarekin, ziur baikaude mundu hau aldatu daitekeela, eta aldatu egin behar dela. Horiek horrela, maila globalean izaten ari diren aldaketa sakonen aurrean, bere ahalegina egiten ari da COMPARTE ikaskuntza eta ekintza komunitatea, pentsamendu berriaren sorrerari eta etorkizun hoberantz eramango gaituzten jarrerari bere ekarpena egiten saiatuz.

COMPARTE elkarrekin ikasteko espazioa da, eta hainbat testuingurutako erakundeak ziur gaude ekarpenak egin diezazkiokegula, gure sinpletasunetik, garapenari buruzko hausnarketa teoriko-praktikoari eta gure lankide pobretuek nahi dituzten aukera bideragarriak eta posibleak sortzeari.

Asko eta oso zabalak dira gure interesguneak. Eta garapena sustatzeko eztabaida eta praktikak, berriz, are zabalago eta konplexuagoak. Horren jakitun izanik, egitura bat eraiki behar izan dugu metodologiari, antolaketari eta komunikazioari dagokienez, ikuspegiak eta eraikitze moduak adostu eta praktikak eta jakintzak partekatzeke.

Argitalpen hau, COMPARTE komunitatean partekatu dugun elkarrizketa eta hausnarketa prozesu horren emaitza da. Nahiz eta helburua ez den gure eztabaidaren laburpenaren testu zehatza ematea, erakunde-talde moduan egiten ari garen lan garrantzitsua jasotzen du, bi mailatan. Batetik, komunitate moduan osatu gaituen lan egiteko moduaren berri ematen du; bestetik, berriz, gure hausnarketak eta erronkak jasotzen ditu gai zehatz batean: gaitasunen garapena aldaketa-estrategiatzat, eraiki nahi dugun garapen alternatiboaren erdigunetzat.

Zentzu horretan jasotzen ditu argitalpen honek garapenari eta haren alternatibei buruzko gure hausnarketak, baita proposamen zehatz bat (praktiko-kontzeptuala) ere, honela izendatu duguna: **“COMPARTEren garapen-gaitasunen mapa”**. Hau da, gaitasunak garatzeko bide bat jasotzen du, aldaketa amesten dugun bidera eramateko eta gure pentsamendua eta ekintza bideratzeko.

Prozesuaren bi mailak ulertzeko, labur-labur azaltzen dugu zein ibilbide egin duen komunitateak, antolaketari eta metodologiari dagokienez, argitalpen honek iritsi arte.

EGINDAKO IBILBIDEA: GURE PRAKTIKAREN ETA IKASKUNTZEN BERRIKUSPENA

Ezinbestekoa izan zen *garapena* kontzeptuari buruz eztabaidatzea helmuga bateratu bat zehazteko, eta praktika elkarrekin partekatu eta berrikusteko. Askotariko pertsonak eta erakundeak gara, eta bakoitzak bere testuinguruak eta esperientziak ditu; horrek zaildu egiten du eztabaida. Jarrera desberdinak ditugu garapenari eta proposatzen ditugun alternatibei buruz, eta horrek eztabaida sakona ekarri du, eta bidea argitu eta aurrera egiten laguntzen digu. Batez ere, hizkera bateratua osatu behar izan dugu, elkar ulertzeko, adostasunak sortzeko eta eztabaida gure erakundeetarako eta praktikarako egoki irizten ditugun puntuen eztabaidan zehazteko.

COMPARTE osatzen dugun erakundeek hainbat testuingurutako ekimen ekonomiko-produktiboak sustatzen eta babesten ditugu. Aldi berean, gehienok urte luzez ari-tu gara lanean arlo politikoan eta sozialean, eta horrek aberastasun handia ematen dio eztabaidari.

Partekatzen dugun beste elementu bat zera da: denok ezagutu dugu zein zaila den prozesu konplexuei eustea arlo ekonomiko-produktiboan, gure lana egiten dugun testuinguruetako pobrezia eta bazterketa-egoerak direla eta. Errealitate

hori izanik, erabaki genuen hausnarketa bideratzea erakunde kide guztiek eza-gutza txikiagoa zuten eta jarrera zehatzik ez zuten garapenaren arlo honetara: **garapen ekonomiko-produktuboen prozesuei eta prozesu horiek sortzen dituzten GAITASUNEI erantzutea, proposamen alternatiboak bultzatzeko.**

Hausnarketa bideratu, ikasgaiak atera eta praktikara itzultzeko, zenbait akordio metodologiko eta antolaketa-akordio zehaztu genituen, komunitateak egin behar zuen bideari laguntzen ziotela irizten genionak. Erabaki genuen gure praktika berrikustea modu ordenatu eta koordinatuan. Zertarako? Banaka ikasteko, baina baita alderatuz eta besteekin hitz eginez ere. Hori dela eta, ikaskuntza horiek sortzeko beharrezkoak iruditzen zaizkigun zenbait oinarrizko elementu jaso ditugu jarraian.

a. Esperientzia bera aztertzea

Elementu garrantzitsua zen esperientziari buruzko azterketa ez egitea edozein kokapenetik, baizik eta guk garapenari eman genion aukera kontzeptualetik. Hor-taz, gure esparru etiko-politikoak bideratu zuen esperientziaren azterketa, eta ikusi nahi genuen zenbat hurbiltzen ginen hara, eta nola egin genezakeen aurrera amesten eta nahi genuen eraikuntza pragmatiko horretan.

Beste elementu giltzarri bat izan zen esperientziari berari osotasunean begiratzeko beharra, betiere begi kritikoeekin, eta proposamenak egiteko. Komunitateak elkarri laguntzea, modu ordenatuan, egiten duguna berriro pentsatzeko, hausnartzeko zergatik egiten dugun egiten duguna, nola ari garen lanean eta zein gauzak erraztu nahiz zaildu duten bidea. COMPARTEK barrura begiratzen lagundu digu, prozesu bera egiten ari diren erakundeen laguntza izanik.

b. Gure aurkikuntzen berri eman komunitateari

Zaila izan daiteke gure esperientzian aurkitu duguna bateratzea. Zintzotasun-jarduera da, eta, aldi berean, konfiantza eta eskuzabaltasuna eskatzen ditu informazioa partekatu eta gainerako erakundeen eskuetan uzteko. Halaber, ordenatu egin behar da informazioa, laburbildu, eta bateratu ikaskuntza bat, lanari buruzko aurkikuntza bat edo egiten zen lanari buruzko ikuskera berri bat dakarrena.

Eta partekatzea izan da gure komunitateak hobekien baloratu duen elementu-etako bat. Nork bere esperientzia eta gainerako erakundeena hartuta, dinamismo bateratuak, erronka partekatuak eta, batez ere, erronka horiei aurre egiteko

osagarritasuna azaleratu dira. Komunitateari esker, lotu egiten dira, eta sakonago, elkarriketari bide eman diezaieketen esperientziak eta elkar aberasten dutenak.

c. Praktika berria sortzea

Hori guztia praktikara eramateko orduan, bi alderdi daude: eztabaida teorikoa eta aplikazio praktikoa.

Eztabaida teorikoenari dagokionez, komunitate hau eztabaidarako eta hausnarketarako elementu berriak ematen ari da erakunde bakoitzari. Horiek horrela, kontzeptu eta ikuspegi berriak txertatzen dira haien dinamiketan eta, askotan, zailentzan jartzen dituzte orain arte errealtateari begiratzeko erabili diren paradigmak. Eztabaidatu da zein den gure praktiken alternatiba, eta zer eta nola egiten dugun eta horrek hausnarketa sakona eragin du parte hartu duten erakundeetan. Era berean, kontzeptu partekatuak elkarrekin eraikita, ekarpen bat egiten zaio erakundeari eta haren eztabaidaren eta hausnarketaren aukera zabaldu egiten da eta, horrenbestez, baita esku-hartzearena ere.

Aplikazio praktikoari dagokionez, norberaren esperientzia berrikustean, aurretiaz hauteman ez ziren elementu kritikoak azaleratu dira. Eta horrek lagundu egiten du positiboak direnak birbideratzen, zuzentzen edo finkatzen. Horretaz gain, gainerako esperientziekin alderatuta, aberastu egin da aplikazio praktikoa, bi alderditan: batetik, komunitatearen beraren metodologiaren bat garatzen duten antolaketa-planak abian jartzean (adibidez, 3. kapituluaren aurkezten den gaitasunak garatzeko mapa), eta, bestetik, komunitatean bertan identifikatu diren jardunbide egokiak oinarri dituzten jardura estrategikoak egitean (adibidez, merkaturatzean, kontsumoan eta berrinbertsioan).

Praktikari begiratzek, hari buruz kontzeptualizatzek eta esperientziara itzultzek, oso egoera interesgarri baten aurrean jarri gaitu. Une honetan, berebiziko urratsa egiten ari da COMPARTE, osatzen duen komunitatea finkatzeko, eta horrek hiru dimentsio ditu gutxienez: (i) ikaskuntzak eta ezagutzak praktikatik sortzea; (ii) esperientziak bateratzea eta (iii) esperientziak hobetzea pragmatikoki.

d. Argitalpen hau osatzeko beharrezkoa den egitura sortzea

Lehen deskribatu dugun lana egiteko, lanerako ibilbide bat diseinatu genuen (modulutan antolatua), gure helburuak betetzen laguntzeko: esperientziatik ikastea, bestekin partekatzea eta ikaskuntza horiek praktikan jartzea.

Lanaren lehen fasean (2011 – 2013), 7 modulu landu ziren, bai online bai aurrez aurre. Modulu horiek esperientzia ekonomiko-produktibo bakoitza modu ordenatu eta hausnartuan deskribatzeko ildoak eman zituzten, baita arrakastaren faktore kritikoak eta abian jarritako estrategiak sakon aztertzeako ere.

Lanerako gida bat zuen modulu bakoitzak, eta hauek zehazten zituen: helburuak; COMPARTEko erakunde kide bakoitzak egin beharreko jarduerak; eztabaida eragiteko galderak; laguntza-materialak; itxaroten ziren emaitzak; komunitateari lortutako emaitzak bidaltzeko epeak eta informazioa ordenatuta aurkezteko modua.


Gida horietan oinarrituz, bere informazioa osatu zuen erakunde bakoitzak eta, gero, komunitatearekin partekatu. Modulu bat ixten zen bakoitzean, bi tratamendu ematen zitzaizkion informazioari: batetik, gainerakoek zer egin zuten jakin zezakeen erakunde bakoitzak; bestetik, aurkitu, partekatu eta hausnarketa eragin zuten gako-elementuen laburpena egiten zen. Hala, antzekotasunak, aldeak eta osagarritasunak ondorioztatu ahal izan ziren. Eta, halaber, identifikatu egin ziren teoriarekin elkarrizketan zeuden elementuak, kontzeptuak aberasten zituztenak eta praktika zehatzetan erabil zitezkeenak. Adibidez, gaitasunen ikuspegiaren teoriari buruzko elkarrizketak gaitasun-katalogo bat osatzea ahalbideratu digu, eta argitalpen honetan aurkezten dugu.

Hala egin dugu aurrera kontzeptuei eta praktikari buruzko adostasunak sortzeko. Argitalpen hau da azken urteetan egin dugun lankidetzaren partekatu horren emaitza. Jarraian aurkezten dugun testuak partekatzen ari garen ikaskuntza horien zati bat laburbiltzen du. Askotarikoak dira gure ekarpenak: hasi garapenerako alternatibei buruzko eztabaidatik eta esparru alternatibo horretan gaitasunak garatzeko berariazko ibilbide baten zehaztapenera arte. Litekeena da hausnarketa zabal horrek sakontasuna mugatu izana, baina espero dugu bai testu hau bai gure esperientzia baliagarriak izatea bila ari diren beste gizarte-erakunde batzuentzat.

COMPARTE komunitatearen iritziz, aberastasun handiena azken urte hauetan bizitako prozesua da, sortutako harremana eta elkartearen gorputzu izana. Elkartearen sortzen dugun pertsonentzat eta erakundeentzat bide hau izaten ari denaren emaitza labur bat baizik ez da argitalpen hau. Aurrerapauso bat ere bada, zehaztu dugun bide horretako aurrerapauso bat, komunitate moduan izan nahi dugun hori lortzeko eta gure lanaren hartzailerak diren pertsona horiei guztiei zerbitzu hobea emateko.

1. kapitulua

Garapen alternatiboa ala garapenerako alternatibak?



1.1. SARRERA

Egitate bat da elkarrekin lotutako hainbat mailatako krisi globala eragin duela hainbat hamarkadaz indarrean izan den sistema sozioekonomikoak, eta horrek berriro azalerazi du garapen-kontzeptuari eta ereduari buruzko eztabaida. Egun-go krisi globalaren garrantzia kontuan izanik, garrantzitsua da, hasteko, krisiaren ezaugarri nagusiak adieraztea, zer krisiri buruz ari garen jakiteaz gain, zein krisitan gauden eta gure ekarpena nondik egin nahi dugun jakiteko ere.

Labur-labur azaltzeko, esan daiteke hauek direla krisiaren ezaugarri nagusiak: (i) ondasunen ekoizpenak, banaketak, merkaturatzeak eta kontsumoak eragindako hondamendi ekologikoa; (ii) gizateriaren historian aurrekarik ez duen aberastasuaren pilaketaren ondoriozko gero eta desberdintasun handiagoa, gaur areago nabarmentzen dena herrialdeen barruan edo eskualdeetan nazioartean baino, eta (iii) nazioarteko boterea pixkanaka joatea Estatuen esku egotetik nazioz gaindiko beste eragile batzuen eskuetara, eta haien zilegitasuna ez oinarritzea metodo demokratikoetan, baizik eta kapitala izatean eta, horrenbestez, behar publiko nahiz pribatuaren inbertitzeko eta haiei finantzaketa emateko gaitasunak ematen dien indarrean (Martínez Osés, in *Pueblos* 2011: 9-11). Eta horri gehitu behar zaio¹, gainera, gizartearen eta herritarren erreprodukzioaren krisia, korrante ekofeministek aurkeztzen duten moduan.

Krisi-egoera hau garapenaren ideia nagusiaren emaitza da. Ideia horrek parekatu egiten ditu jendearen eta herrien ongizatea eta hazkunde ekonomikoa, eta horrek hazkunde ekonomikoaren aldeko lasterketa zorora eramaten ditu gizarteak, baina jasanezina da hazkunde hori. Egoera horren aurrean, hainbat **proposamen eta alternatiba** sortu dira azken hamarkadetan. Haien helburua da **jasangarritasuna oinarritzat hartzea**, eta **hiru joera handiren baitan** artikula daitezke (Marcellesi, 2012:114): (i) *garapena* kontzeptua eta haren estrategiak errotik birbideratzeko saiakerak; (ii) *garapena* kontzeptua zabaltzea, baina esparru metodologikoa aldatu gabe eta (iii) *garapena* nozio unibertsala dela ukatzea eta, horrenbestez, kontzeptu hori baztertearen alde egitea. Hiru joera horietatik, garapenaren alternatibak eraikitze lan egitearen alde egiten duen COMPARTEk zer esparru duen

¹ “(...) Gizarte erreproduzitzeko krisia da pertsonentzat eskuraz ezin den erreprodukzio material eta emozionalen itxaropen-multzoa; askotan, gainera, heriotza eragin dezake, elikadura-krisiarekin gertatzen den moduan. Herritarren krisia nozioak erreproduzitzeko itxaropen horien dimentsio zehatz bati eragiten dio: zainketak. Horrek adierazten du zainketak txikiegiak, prekarioak eta askatasunik gabe aukeratuak direla! (Pérez Orozco, 2012: 4).

kontuan izanik, arreta lehen eta hirugarren hausnarketan jartzea interesatzen zaigu (Koldo Unceta in *Pueblos*, 2011: 5-8).

Lehen joeran, arlo hauen ikuspegi alternatiboaren alde egiten duten zenbait sektoreen ahaleginak daude: giza garapena, jasangarritasuna, genero-ekitatea eta giza eskubideen eta kultura-aniztasunaren errespetua. Ikuspegi horretatik, sistema alternatibo baterantz egiteko, garapenaren nozioak berak dimentsio ugari dituela ulertu behar da (ekonomikoa, politikoa, kulturala, ekologikoa, soziala), eta ez hazkunde moduan. Horretaz gain, zalantzan jarri behar dira orain arte garapenaren bitarteko eta helburu izan direnak, eta ez da tresna hutsen mende jarri behar jendearen ongizatea eta etorkizuneko belaunaldien bizimodua. Aldi berean, ikuspegi alternatibo horrek hainbat arlotako eta maila osagarrietako (komunitarioak, tokikoak, estatu-nazioetakoak, globalak) prozesuak aztertu behar ditu, eta makro nahiz mikro arloetan eragin. Hori garrantzitsua da, makro alderdiek, gainera, mikro mailako jardueren arrakasta-aukeren zati handi bat baldintzatzen baitute eta, gaur egun, biziki garrantzitsuak dira, globalizazioaren esparruan fenomeno batzuen eta besteen arteko mendekotasuna dela eta.

Hirugarren jarrerak, garapena helburutzat ukatzen duenak, ikuspegi postdesarrollisten ildoek jarraikiz, honako pentsaera hau jasotzen du: munduan garapena sustatzea ez dela izan baizik mendebaldeko balioak eta bizimodua zabaltzen ahalegintzea eta, horrenbestez, bidegabekeriak eta biktimak, kulturen suntsiketa eta natura-baliabideak agortzea. Ikuspegi horren arabera, hobe da beste garapen bat bilatzeaz ahaztea, nozio hori bera mendebaldearen eraikuntza baita, eta uste da, oro har, hura defendatzeak ez diola onurarik ekarri jende guztiari, baizik eta frustrazioa eta biktimak.

Bi joera horien esparruan proposatzen diren alternatibei buruz hausnartzeko, ezinbestekoa da onartzea Estatuak dela funtsezko eragilea, politika publikoen noranzkoa zehazten duena eta, beraz, gizartearen garapenaren ikuspegi bat. Ez da eragile neutrala, eta funtsezkoa da haren egiturak eta funtzionamendua ulertzea haren eragiteko eta gizarte-taldearen arteko botere-harremanak eta haien interesak berrantolatzearen prozesu demokratiko batean eta eragile sozial eta politikoen partaidetzan. Aldi berean, Estatuak antolatu egin behar du, arazoak eta aldatu behar diren gizarte-egiturak ongi ezagutzeko, askotariko gizarte-taldearen eskaerak eta interesak kontuan izan eta txertatzeko eta horren arabera politikak publikoak garatzeko (Brand, 2011: 145-157). Horri dagokionez, garapenaren alternatibak eraikitzearen zer rol duen eta zer rol izan behar lukeen jakin behar da, eta

ulertu nola bihur daitekeen oztopo edo aldeko ekintza gizartea sakon aldatzeko, justiziari eta ekitateari dagokienez. Hori egitean, biziki garrantzitsua da hausnartzea Estatua, ekonomia bezala, dinamika global batean murgilduta dagoela, eta nagusitzen den garapen-eredua erreproduzitzea eragiten diola. Horren ondorio politikoa da proiektu alternatibo bat aurrera eramateko, politika publiko alternatiboak behar ditugula, bai nazio mailakoak, bai nazioarte mailakoak, aldi berean (ibidem).

Alternatiben egoera inspiratzaileen adibideek ñabardura eta zehaztapen-maila desberdinak dituzte, eta gero eta garrantzi handiagoa hartu dute garapen-sistema nagusiarekin kritikoak diren sektoreen artean, eta hausnarketa eta eztabaida elikatu dituzte COMPARTEn; adibide horien artean, giza garapen jasangarria, hazkundera, ongi bizitzea edo *sumak kawsay* eta ekofenimismoa nabarmendu ditzakegu. Ez da zalantzarik, aipatu ditugunak baino alternatiba gehiago daude eta, garapen-modu berri horien eta/edo postdesarrollismoaren eraikuntzan, gakoeragiletzat izendatzen dira gizarte-mugimenduak eta imajinario berriak eta interpretazio-esparruak proposatzen ari dira mundua ulertu eta aldatzeko; horretaz gain, praktika zehatzak aztertzen dituzte, imajinario horiek praktikara eramateko, garapen-proiektu alternatiboen bidez. Horren erakusgarri argia da COMPARTEn esperientzia. Ez gaude gustura bizi dugun errealitatearekin eta uste dugu alda daitekeela, eta horretan tematzen gara. Horiek horrela, geure egiten dugu bide alternatiboak eztabaidatzen eta sustatzen ari diren mugimenduei batzeko erronka, pentsamendu berria eta etorkizun hobera eramango gaituzten jarrera berriak sortzen laguntzeko.

1.2. COMPARTÈREN GARAPEN ALTERNATIBOAREN EZAUGARRIAK

COMPARTEn onartzen dugu bestelako mundu alternatiboak pertsona guztiak bizitzeko moduko mundu duina pentsatzeko proposamenak eskaintzea esan nahi du. Ez da baliagarria indarrean den eredua, erakutsi baitu ez dela eraginkorra, ez baita gai munduaren erronkak (pobrezia, desberdintasuna, ingurumen-krisia) konpontzeko, ez baititu lehentasunezko erreferentziatzat justizia, ekitatea eta pertsonen duintasuna. Beraz, bestelakoa izan behar du sustatu nahi dugun garapenak: barneratzailea, bake-eragilea, harmonia helburu duena eta erdigunean pertsonak eta pertsona horien komunitateak jartzen dituena.

Horregatik ditugu arrazoi gehiago “garapenaren alternatibez” aritzeko “garapen alternatiboaz” aritzeko baino, aukera ematen baitigu, testuinguru soziokulturalen

arabera, askotariko ereduak, bideak eta metodologiak erabiltzeko, garapen-prozesuak eta estrategiak prozesu zabal, ireki eta eragile askoren bidez eraikitzearen alde egiteko.

Oraingoz, gure helburua da eredu nagusiaren alternatibak izan nahi dituzten estrategiak eraikitzea, behetik sortzen direnak; hau da, tokian tokiko espazioetatik, lurraldeen eta biztanlerien beharrei eta ezaugarriei jarraikiz. Gizarte-boterea eraiki nahi dugu; hau da, boterea eman gurekin lan egiten duten komunitateei, haien boterea gatazka izan dadin ordena nagusiarentzat. Horiek horrela, proposamen kontzeptual bat dugu abiapuntu, eta giza garapen jasangarriaren eta ongi bizitzeko korronteen ereduak aberasten du. Eta itzuri ezin dugun sistema honetan txertatzen da, baina hor barruan gure printzipio eta balioekin egin dezakegu bidea, haren egiturak ulertzeko, izendatzeko eta aldatzeko. Proposamen horren bidez, honela ulertzen dugu garapena:

- (i) eraldaketa-prozesu kolektiboa, giza bizitzaren dimentsio guztiak biltzen dituen, bai natura-inguruneak, bai, jakina, bizi-zentzua hartzen duten erlazio horien ingurunea;
- (ii) erabateko aldaketa-prozesua, ekonomiaren mende jartzen ez den heinean, ekonomia garapenaren beste dimentsio batzuekin artikulatua ikusten duena: soziala, politikoa, kulturala, ekologikoa, eta, batez ere, etikoa.
- (iii) lurralde mailako aldaketa-prozesua, lurralde bateko eragileek eta erakundeek egoki deritzon moduan, elkarrekin eta eraginkortasunez jarduteko gaitasuntzat ulertuta, interes indibidual eta kolektiboak finkatzeari dagokionez.

Ongi dakigu ez dagoela garapenaren eredu alternatibo bakarra, baizik eta osagarriak diren askotariko logikak. Hala ere, badira zenbait ezaugarri bereizgarri bultzatzen dugun edozein garapen-prozesutan alternatiboa dena identifikatzeko. Horiek horrela, garapenaren gure osoko ikuspegia jasotzen dute alternatibo izan daitekeen horren helburutzat COMPARTEn proposatzen ditugun zortzi ezaugarriak. Lan honetan jasota daude: *El desarrollo alternativo por el que trabajamos*.

Badakigu elkarren mendekoak eta osagarriak direla guztiak, eta batari buruz hitz egiteak beste batekin harremana duela. Ulertzen dugu, halaber, ez direla lortu nahi dugun helburuari buruz karakterizatu ditzakegun ezaugarri guztiak, baina, gutxienez, komunitate moduan identifikatu ditugunak dira.

1. taula. COMPAREn garapenaren ezaugarrien laburpena

Ezaugarri hauek dituzten **garapen-prozesuak** lantzearen alde egiten dugu:

- **Bizitza defendatzen du:** pertsona eta haren duintasuna dira erdigunea.
- **Tokian tokikotik abiatzen da:** Ikuspegi alternatiboa eraikitzen dugu tokian tokitik.
- **Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna sortzen du:** askatasuna baliatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasunak sortzea.
- **Eraikuntza kolektiboaren eta komunitarioaren alde egiten du:** garapenari bide ematen dion baldintza.
- **Aniztasunaren aberastasuna berreskuratzen du:** gu baztertzailetik, gu barneratzailera.
- **Natura-ondasunak modu bidezko eta jasangarrian erabiltzen eta defendatzen ditu:** harmonian bizi da natura-ingurunearekin, eta gizarte - eta ingurumen-etekinak sortzen ditu.
- **Emakumearen rola eta protagonismoa indartzen ditu:** ez da egiatzko garapenik emakumeak ere ez badira protagonistak.
- **Bizi ona lehenesten du pertsona guztientzat:** lehenetasuna ez da kapitala pilatzea, baizik eta “bizimodu ona” pertsona guztientzat.

Estrategia hauek erabiltzen ditugu:

- **Lagundu:** kontua ez da ordezte, baizik eta aldamenean egitea bidea.
- **Gaitasunak garatzea:** banakoarenak eta kolektiboenak.
- **Eragitea:** politikan eragitea, gizartea aldatzeko estrategiatzat.
- **Esperientziatik ikastea:** ekintzari buruz etengabe hausnartzen ahalegintzen gara.

Gure abiapuntua garapenaren definizio zabala den arren, **ikaskuntza-komunitate moduan izan dugun lehen helburu praktikoa** izan da garapen alternatiboaren hiru ezaugarritan eta gaitasunak sortzeko estrategian sakontzea, kontuan izanik ahaleginak ardaztu eta prozesu ekonomiko-produktiboetarako garrantzitsuenak iruditzen zitzaizkigun zenbait ezaugarri sakondu behar genuitela. Horrek ez du bazterten gainerakoak ez ditugunik kontuan izan horiei buruz hausnartzean. Hain zuzen, egiteko dugun lan bat da gainerako ezaugarriei eta haien arteko erlazioari buruz hausnartzea. Adibidez, identifikatu dugun defizit bat da gutxi eztabaidatu dela emakumearen paperaz eta genero-aldeez.

Aukeratu dugun lehen ezaugarria da tokian-tokian ikuspegi alternatiboa eraikitzea. Ulertzen dugu garapenaren proiektu alternatiboa eraikitzeko tokian

tokiko balioak eta nortasunak izan behar direla kontuan, eta, aldi berean, toki bakoitzeko garapenak eta mugak ezagutu eta tokiko komunitate barneratu eta kohesionatuak sortzen laguntzen duten dinamikak sustatu behar direla. Bigarren ezaugarriak naturaren ondasunak modu bidezkoan eta jasangarrian erabili eta defendatu behar direla jasotzen du. Natura eskubideen subjektutzat ulertzen dugu, eta onartzen du alternatiboa denak eskatzen duela jendea eta natura-elementuak harmonian eta orekan bizi diren garapenaren alde egitea. Hirugarren ezaugarriak pertsona guztientzako bizi ona lehenesten du; izan ere, gure aukera ordezkorearen lehentasuna ez da kapitala pilatzea, baizik eta justizia eta munduko gizaki eta herri guztientzako berdintasuna.

Jarraian, hiru ezaugarri horiei buruzko lehentasun nagusiak jasotzen dira. COMPARTEkoek komunitate moduan ditugun praktikatik, balioetatik eta nahietatik sortu dira.

1.2.1. TOKIAN TOKIKOTIK ABIATZEN DA

a. Nola ulertzen dugu ezaugarri hori?

Tokian tokikoa funtsezko testuingurua da, eta pertsona eta komunitate moduan, han garatzea eta eraldatzea da gure helburua, gure berezitasunetik abiatuta. Hurbileko espazioa da, ***bizi garen espazioa eta biziarekin lotzen dena***.

Tokiak tokikoa lurraldekoarekin erlazionatzen da espazio definitu batean zehaztean. Hala ere, espazio hori ez du lurraldeak soilik definitzen (muga politikoei dagokienez), bazik eta bizi propioa ematen dioten beste baldintza batzuek: itxaropen kulturalak, ekonomikoak (produktiboak eta aberastasuna sortzekoak), sozialak eta politikoak. Tokikoari lurraldearen osoko ikuspegi holistikotik begiratu behar diogu.

Tokikoa kontzeptua ulertzeko, kultura-geografian definitutako *lekua* kategoria haren esanahian sakontzen laguntzen digu. John Agnew-ek (1987) hiru dimentsiotan oinarritutako *lekua* nozioa proposatzen du: eremua, kokapena eta lekuaren zentzua.

- Eremua da eguneroko gizarte-harremanak (ez-formalak eta instituzionalak) osatzen diren testuingurua eta, hor, identifikatu egin daitezke pertsonak. Hala, tokian tokikoa ekintzen eta praktiken testuingurutzat ulertzen da.

- Kokapenak gizarte, ekonomia eta politika-prozesuek leku bateko biztanlerian zer ondorio dituzten azaltzea eskatzen du. Horri dagokionez, tokikoa da bitartekaritza sortzen duen praktika jakina, edo eremu eta aldi berezietan bizi-kalitatearen zentzu bat sortzen duena.
- Lekuaren zentzuak leku jakin batean bizitzeak ematen duen orientabide subjektiboa adierazten du, eta pertsonak eta komunitateek lotura-sentimendu handiak garatzen dituzte esperientzien eta memorien bidez. Indigenen kasuan, lurraldeak arbasoak bizi ziren espazioak dira, eta transzendentzia-zentzua jasotzen du. Horrek ingurunea errespetatzeko jarrerak sortzen ditu. Hala, tokikoa da lekuaren zentzuaren lurralde-identitatea subjektiboa.

Tokikoari buruz dugun ikuspegiak hiru dimentsioak artikulatzea eragiten du, eta lagunduko digute hobeto ulertzen han izaten diren askotariko dinamikak. Dinamika horien artean, hauek nabarmentzen ditugu:

- Tokiko eremuan adierazten dira bizi onaren² ikuskerak eta xedeak; han dira gaitasunak eta jakintza tradizionalak. Espazio horretan, rol nagusia du kolektiboak, eta leku egokia da demokrazia gauzatzeko. Komunitate-instantzia berriak osatu eta indartu daitezke, baita eragiteko apustu kolektiboak ere. Ekitate eta banaketa handiagoko tokiko-lurraldeko garapen-prozesuak sustatu ohi dituzte, lurraldeko eragile guztiek parte hartzen dutela.
- Tokiko eremuan ere izaten dira tentsioak, zailtasunak eta kontraesanak. Eremu horretan zehazten dira gizarte-erlazioak, pertsonen eta taldeen arteko erlazioak, eta boterea eta natura-aberastasunak eskuratzeko gatazkak izaten dira.

Beraz, proposatzen da garapenerako proposamenek kultura-nortasuna errespetatzeaz gainera, hortik eta lurralde bateko herrien tokiko balioetatik abiatuta eraikitzea. Eta ez da tematu behar proposamen horiek denboran gelditu egon daitezkeen. Aitzitik, dinamika moduan ulertu behar dira, eta hausnarketarako eta lanerako dimentsio berriak sustatu behar dituzte (adibidez, emakumeen erabakiak hartzeko guneetan parte-hartzea gizonen baldintza beretan, edo negoziazioa tokiko beste eragile batzuei ere zabaltzea, bizi-proiektua partekatzen ez badute ere). Hain zuzen, komunitate-nortasuna baloratu egiten bada, indartua badago

² Gure lanaren hartzailerik diren biztanleen jatorri etnikoaren arabera, tokiko garapen alternatiboaren hainbat definizio ditugu: “nahi den bizi”, “bizi planak”, “ongi bizitzea” eta “bizi ona”, besteak beste.

eta mundu ikuskeraz eta ezagutzez konbentzituta badago, oinarri sendoa izango du tokiko garapenerako prozesu alternatiboak sustatzeko. Horri dagokionez, nabarmentzen da zer erronka den komunitateek onartzea beren lurraldea migrazio eta mugimendu handiak dituen dinamikako testuinguruan, bereziki, gazteei dagokienez.

Eta alternatibora jotzeak adierazten du jatorrizko antolaketa indartzea hainbat arlo eta dimentsiotan, abiapuntua izan dadin. Hori gertatzen da, adibidez, herri indigenen dimentsio komunitarioan: gizarte-antolaketaren (kasu batzuetan, agintaritza-sistema propioak dituzte) eta tokiko eta eskualdeko erakundeen oinarria da, eta rol garrantzitsua jokatzeko dute lurraldea eraikitzeke orduan.

Gainera, tokiko eremua alternatiboa eraikitzeke gune bihurtzeko izan dadin, ulertu behar dugu *tokikoa dena ez dela agortzen lurralde jakin batean*, ez dagoela inguruko testuinguruetatik eta prozesu globaletatik isolatuta. Gaur, ezinbestean, globalizazioaren testuingurutik hitz egin behar dugu tokiko eremuaz. Garapen ekonomiko eta politikorako nagusi eta hegemoniko moduan zehaztutako proposamen globalekiko hausturak eta jarraitutasuna modu zehatz batean adierazten dira tokiko eremuan. Baina tokiko eremuak ere eraikitzen, moldatzen, bere egiten, imitatzen, onartzen edo baztertzen du ordena globala. Horiek horrela, erronka berriek eskatzen dute tokikoa eskualdearekin, nazioarekin, globalarekin lotzea: kanporantz irekitzea, eta munduan agertzea. Horri dagokionez, ezingo da lotura global berririk eraiki tokiko gizarte barneratu eta kohesionatuetatik abiatu gabe. Globalizazio gero eta handiagoa prozesu alternatiboen zirkuluekin erlazionatzeko aukera da eta, horrenbestez, parte-hartzea ezinbesteko elementua da egun. Badakigu zer zailtasun eragiten dituen tokikoaren eta globalaren arteko tentsioak, baina mundu-mailako bihurtzeko prozesu alternatiboetan eragiteko behar ditugun tresnak ematen dizkiguten estrategiak prestatu behar ditugu.

COMPAREn parte garenok egiten ditugun hausnarketa horiek bat datoz *tokiko giza garapenak*³ proposatzen duenarekin. Proposamena da gizarte bakoitzetik pentsatzea eta jardutea, pertsonak banaka eta kolektiboki hartzen dituen garapena oinarri duten proiektu kolektiboak sortzeko gizarte bakoitzetik. Zehazki, esaten du tokiko gizarteek protagonistak izan behar dutela beren garapena bilatzeko eta behetik globalizazio bat sortzeko eragile aktibo izateko eta onartu behar dela haiek gabe ezin dela eraiki garapenaren alternatibarik.

3 Informazio gehiago Desarrollo Humano Local atarian. [<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/>]

b. Zer estrategia erabil ditzakegu ezaugarri hori aktibatzeke gure erakundeetan eta lanean?

COMPARTE osatzen dugun erakundeok tokiko garapen-esperientziak ditugu. Hala, esan dezakegu hori espazio bat izan daitekeela errealtatean jardun eta errealtate hori aldatzeko globalizazioaren testuinguruan. Bost begirada batera-tuz esperimentatu dugu:

- Begirada analitikoa edo errealtatearen irakurketa: lurralde batean izan diren prozesuen dimentsio sinkronikoa eta diakronikoa jasotzen ditu.
- Atzera begirako begirada: non gauden argitzen laguntzen du. Begirada horrek erreferentzia egiten dio espazioaren eraikuntzaren ulermen historikoari.
- Begirada estrategikoa: epe ertain eta luzerako lehentasunak definitzen ditu.
- Begirada eragilea: tokiko alternatiba horiek eraikitzeke ondorioak eta ekintza-plana jasotzen ditu.
- Etorkizunerako begirada: gizarte-antolaketan, erakunde publikoetan eta tokikoaren eta eskualdearen arteko artikulazioan.

Garatzen jarraitzea proposatzen dugun estrategia zehatzen artean, hauek nabarmendu ditzakegu:

- *Parte hartzeko metodologiak inplementatzea eta parte hartzeko eta tokiko eremua antolatzeke moduak sustatzea.* Helburua da jarduerak garatzeko eta ikuspegi alternatiboa eraikitzeke parte-hartzeari bide ematea. Adibidez, komunitatearen diagnostikoak egitea tokiko eremuko egiteke moduetan txertatutako metodologia parte-hartzaileen bidez. Kontuan izan behar da, ezinbestean, tokiko eremuko lanak komunitatearekin akordioak sustatzea eskatzen duela: zer ekoiztu, nola eta zer gauza dira “onak” gure proposamenerako.
- *Tokiko eremuaren eta lurralde-eremuaren arteke artikulazioa sustatzea.* Komunitateetako antzinako antolaketan indartzea, eta lurraldea artikulatzen laguntzea eta garapen-proposamen alternatiboak sustatzea tokiko sareekin lan eginez.
- *Tokiko eremuan “pilatu” dena berreskuratzea, esperientziei, ikasgaiei, lorpenei eta akatsei dagokienez.* Testuinguruaren azterketa egiteke beharra, herriarrekin etengabe hitz egitez, diagnostikoak eguneratuz eta hausnarketak eta proposamenak egingo dituzten erakundeak sustatuz.

- *Komunitatea teknikoki eta politikoki ahalduztzeko prozesuak sortzeko tresnak sustatzea.* Besteak beste, hori egiteko prozesu produktibo batzuk susta daitezke, tokiko jakintza tradizionala berreskuratu eta ekimen ekonomiko-etarako prestakuntzarekin indartuz; bestela, prestakuntza eman dakieke gazteei, gizarte eta genero-ekitatea eta ingurumen-ikuspegia nabarmenduz.
- *Politikoki eragitea tokiko eremuan, eskualdean eta nazioan,* eragina izateko tokiko eremua eta haren eskualdeko artikulazioa indartzen duten politiketan. Zehazki, tokiko eremuari eta eskualdeari eragiten dioten politika ekonomiko-produktiboetan eragitea. Horretarako, sinergiak eta itunak sortu behar dira askotariko gizarte-eragileekin.
- *Gizartea sentsibilizatzea.* Presazkoa da gizarteko talde zabalak batzea kausa honetara. Tokiko eremuaren bidez, herritarrengandik hurbilago gaude, baita haien behar, hausnarketa, eztabaida eta proposamenetatik ere. Presazkoa bihurtzen da komunikazio hezitzailea testuinguru honetan.
- *Tokiko eremuko kultura-nortasuna indartzea, dimentsio utopikoa eta zentzuaren dimentsioa ere hartzen dituela.* Garrantzitsua da erakundeei laguntzea, itxaropen kolektiboa indartu eta mantentzeko.

1.2.2. NATURA-ONDASUNAK MODU BIDEZKOAN ETA JASANGARRIAN ERABILTZEN ETA DEFENDATZEN DITU

a. Nola ulertzen dugu ezaugarri hori?

Abiapuntua da garapen nagusiak ez duela errespetatzen natura-ingurunea, eta biodibertsitatea hondatzen duela. Hala, bota egiten du jendea bere lurraldetik, eta horrek areagotu egiten ditu pertsonen arteko aldeak, pobrezia eta bazterketa. Garapen horrek gizakiaren zerbitzura eta gizakiak erabiltzeko objektutzat ulertzen du, funtsean, natura.

COMPARTERen ikuspegi alternatiboak subjektu bizitzat, amatzat (*pacha mama*), bizitza errealizatzeko espaziotzat ulertzen du natura. Eta, naturaren ikuspegi horretatik, natura, bizileku ditugun habitatek objektu izateari uzten diote, eta eskubideen subjektu bihurtu, eta aitortzen da gizakia osorik lotuta dagoela naturari eta kosmosari. Ideia hau berreskuratzen dugu: guztia sistema beraren parte da, eta natura-elementuak eta gizakia harmonian eta orekan bizi dira elkarrekin. Hain zuen, herri indigenek lurraldeari buruz duten ikuskerak naturaren eta giza-

kiaren arteko elkarren mendekotasuna eta naturarekiko harmonia txertatzen eta aitortzen ditu, espazio horretan transzendentzia dagoela ulertzen baitute. Eta, hala, ikusten dugu naturarekin eta habitatekin erlazioak berreskuratu egin behar direla eta natura-baliabideei hitz egiten utzi behar zaiela. Natura-baliabide nagusiak habitatak, lurraldeko izaki bizidunak eta berariazko ekosistemak dira. Hala, gizakiok elkarrekin eta gainerako izaki bizidunekin bizi gara. Gainerako espezieak baliabidetzat izendatzen ditugunean, mendekotasunezko harremana ezartzen dugu haiekin. Baina gure habitateko subjektutzat hartzen ditugunean, aitortza, errespetu eta zainketazko erlazioa ezartzen dugu. Habitatak ez dira ustiatzeko, baizik eta bizi-eremu, eta zaindu eta kudeatu egin behar ditugu, eta bizikidetzarrelazioak zehaztu.

Aukera alternatibo hori eraikitzeko, ***bizi garen habitaten bizi-ulermena sortzearen eta baliabidetzat ez hartzearen*** alde egiteak hona eraman gaitzake: (i) naturaren irudia ez egotea hain lotuta baliabideen erabilerari, eta, beraz, hurbilago egotea espezieen arteko errespetuzko elkarreragin jasangarritik, eta (ii) ulertzea gizakiak ere sortzaileak garela, munduan izateko eta egoteko moduarekin erlazioa duen habitat batean bizi baikara. Azken batean, helburua da jasangarritasunaren alde egitea, munduan izateko eta egoteko modutzat, eta bizia, osotasunaren balioa eta lurraldearen nortasuna errespetatzea praktika jasangarrien zutabetzat. Horretarako, beste bide batzuk eraiki behar ditugu, giza harremanak beste modu batera bizitzeko, naturarekin beste prozesu batzuk izateko eta beste bide etiko eta espiritual batzuk egiteko.

b. Zer estrategia erabil dezakegu ezaugarri hori aktibatzeko gure erakundeetan eta lanean?

COMPARTE osatzen dugun erakundeen praktikatik abiatuz, zenbait estrategia proposatzen ditugu natura-ingurunearekin harmonian bizi den eraikuntzan aurrera egiteko, eta, hala, gizarte – eta ingurumen-onurak sortzeko.

- *Gai horiei buruz sentsibilizatzea komunitateak eta komunitatearen kanpoko eremuak.* Gai hauek landu behar dira, besteak beste: (i) lurraren erabileraren sustapena eta balorizazio berria, ingurumenerako naturalak eta onak diren praktikak bultzatuz, (ii) komunitatearen eta arbasoen jakintzak berreskuratzea, (iii) komunitateek natura zaintzeko eta berreskuratzeke ikuspegia izatea, (iv) natura babesteko lurraren jabetza kolektiboa izateak duen garrantzia, eta (v) hazi kriollak (ez-transgenikoak) erabiltzea eta nekazaritza eta basozaintza-sistema bioaniztunak erabiltzea.

- *Lurra defendatzeko prestakuntza ematea eta tokiko eremuaren eta lurraldearen arteko artikulazioa sustatzea.* Prestakuntza politiko-juridikoa ematea, komunitateko kontsultak babestea eta erakundeen arteko trukeei bide ematea lurraldea defendatzeko.
- *Tokiko eremuan, eskualdean eta nazioan eragitea.* Ingurumenaren zainkarekin erlazionatutako tokiko espazioetan, eskualdekoetan eta nazionalen parte-hartzea sustatzea. Eragin behar den gaien artean honako hauek daude, besteak beste: agrokimikaren kalteak eta gehiegizko erabilerak, natura-ondasunen pribatizazioa eta merkantzia moduan erabiltzea, lurrian parte-hartzea eta lurra defendatzea, eta gobernuek transgenikoak erosteko ezarritako politikak.

1.2.3. PERTSONA GUZTIENTZAKO BIZI ONA LEHENESTEN DU

a. Nola ulertzen dugu ezaugarri hori?

Jende guztiarentzako bizi ona helburu izateak eramaten gaitu egiturak aldatzera; izan ere, egitura horiek, oinarritik, ez dira ez jasangarriak, ez ekitatiboak, ez integratzaileak planetako biztanleria eta herri gehienentzat. Gure ustez, aldaketa horrek funtsezko balioetan oinarritu behar du. Adibidez:

- Harreman-berdintasuna. Onartu behar da “bizi onak” gizon-emakumeen arteko harreman-berdintasuna eskatzen duela, baita herri eta kulturen arteko harreman-berdintasuna ere.
- Justizia, aberastasuna pertsonen eta herri guztien artean banatzeko.
- Munduan izateko eta egoteko moduen aniztasuna, bizi bizitzeko moduen.
- Herrien arteko elkartasuna eta topaketa, bizi bizitzeko askotariko moduak dituztela. Errealitatea ulertzea. Kontua da batzen gaituzten loturak, toki komunak bilatzea, askotariko “bizi onaren” proposamenetan batzen gaituztenak.
- Espiritualtasuna, harmonia eta lasaitasuna bizi komunitarioan. “Bizi onaren” aitortza ez da materiala soilik; eta, gainera, denboraren, autonomiaren, familiaren eta komunitatearen ikuskera desberdinak ditu oinarri.
- Duintasuna, erabakitze eskubidea eta parte hartzeko eskubidea pertsona guztiei, gizon-emakumei, datxezkien eskubidetzat.

- Jendearen zorientasunaren alde egitea, eta pertsona horiek eta ingurunea zaintzea kontsumo-gizarteak ezartzen dituen balioen aurrean.

Horretaz gain, beharrezkoa iruditzen zaigu jendeari eta komunitateei laguntzea lurraldearen nortasuna ezagutzen, arazoak eta aukerak diagnostikatzeko gaitasuna irabazten, eta irtenbideak bilatzen lagunduko dieten jarrerak indartzen. Onartu behar da prozesua konplexua, kolektiboa eta indibiduala dela. Eta, hori guztia egiteko, dauden jakintzak baliatu behar dira (indartu, argitara atera eta sustatu), eta kontuan izan behar dira haien beharrak, interesak eta balioak. Hor datza ideia hau: “talde alternatiboak” osatzen dituzten “pertsona alternatiboak”, helburu izanik bizi-proiektua, bizi ona, parte hartzeko eta erabakiak hartzeko gaitasunaren askatasunaren eta berdintasunaren ikuspegi berri batetik.

a. Nolako estrategiak erabil ditzakegu ezaugarri hori aktibatzeko gure erakundeetan eta lanean?

COMPARTE osatzen dugun erakundeen esperientziatik, “bizi oneko” prozesuak sortzen eta etorkizun alternatiboa eraikitzen lagundu dezaketen zenbait estrategia jasotzen ditugu:


- *Parte hartzeko berdintasunezko moduan, modu kolektiboak sustatzea.* Estrategia batzuk jarri behar dira abian tokiko proposamenen inguruan pentsamendu eta ezagutza kolektiboa eraikitzen laguntzeko; baterako etorkizuna amesteko gaitasuna sortu behar dute, eta besteekin planifikatzeko zer garapen nahi dugun, komunitatearentzako zerbitzuaren zentzua berreskuratu eta indartuz. Aldi berean, estrategia kolektibo horiek bermatu behar dute gizonen baldintza beretan parte hatzen duela emakumeak, erabakiak hartzeko prozesu osoan.
- *Komunitatea politikoki ahalduntzeko tresnak sustatzea.* Prestakuntza, laguntza eta ekintza-estrategiak behar dira jendearengan subjektu eskubide-duntzat aitortzeko ezagutzak, konpetentziak eta jarrerak garatzeko. Gizartearen eta herritarrak hezteko prozesuak behar dira komunitatea politikoki ahalduntzeko, eta arreta berezia jarri behar da talde ahulenetan: emakumeak eta gazteak.
- *Tokiko eremuaren eta lurralde-eremuaren arteko artikulazioa sustatzea eta eragitea.* Tokiko eta lurraldeko sareak indartzeko estrategiak behar dira, gizarte zibileko eragileekin eragiteko eta itunak eta sinergiak sortzeko. Horren

helburua da komunitateek eta herriek tokiko prozesuak kontrolatzea eta gobernuak dagozkien zerbitzuak emateaz arduratzea. Horretarako, elkarriketarako eta itunak egiteko espazioak sortu behar dira herritarrekin, haien bizimoduari eta lurraldeari eragiten dieten politikez eta programez aritzeko.

- *Utopia eta eraldaketarako konpromisoa sustatzea.* Gure ustez, zalantzan jarri behar dugu *status quo*a. Gure ustez, jende gehienarentzat onak izango diren beste errealitate batzuk amesteko ausardia izan behar dugu. Zer etorkizun nahi dugun amesteko konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatu nahi dugu, eta bizitza ospatzekoa. Horretarako, berreskuratu egin behar ditugu pertsona guztientzako bizimodu soil eta duinaren egiazko balioak.

2. kapitulua

Gaitasunak



2.1. SARRERA

COMPARTE osatzen dugunontzat, gakoa da gaitasunak sortzea gizartea aldatzeko proposamen alternatiboak garatzeko. Eta hala adierazten dugu *El desarrollo alternativo por el que trabajamos: aprendizajes desde la experiencia* lanean. Izan ere, garapen alternatiboaren ezaugarri bereizletzat nahiz hura eraiki eta lortzeko estrategiatzat aurkezten dugu gaitasunak sortzea⁴.

Ezaugarri bereizletzat, **askatasuna baliatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasunak garatzearen** alde egin dugu, gizakiak bere ongizatea, askatasuna eta etorkizuna eraikitzeko zer gaitasun izan behar dituen jasotzen baitugu. Eta hori gertatzen da bakarrik gizakia jarduteko eta parte hartzeko gai denean. Beste modu batera esanda, parte hartzeko eta erabakitzeko gaitasuna sustatzearen alde egiten dugu, parte-hartzea jendea komunitate politiko batekoa sentitzea eta haren parte izatea baldintza berdinetan dela ulertzen baitugu, eskubideak eta betebeharrak dituela. Pentsatu dugu zer egin jendearengan autonomia-gaitasuna, parte hartzeko gaitasuna eta etorkizuneko ikuspegia sustatzeko, gero banakoaren eta kolektiboaren ongizatera bideratutako proposamenak sor ditzaten.

Estrategiatzat, **jendearen eta erakundeen lagun izateko egiten dugun lanean gaitasunak sortzea funtsezkoa dela** ulertzen dugu; beren gizarteetan aldaketa jasangarri eta barneratzaileak sustatzea da haien kezka, eta beren gaitasunak indartu behar dituzte lan hori eraginkortasun handiagoz egiteko. Horiek horrela, zer gaitasun sustatu behar den jakiteko, zer kolektibo estrategikorekin lan egin nahi dugun definitu behar dugu hasteko, eta arazo bakoitzaren berezitasunak kontuan izan eta aztertu eta, errealitate bakoitzaren arabera behar diren gaitasunak sortzeko, estrategiekin diseinatu.

2012ko irailean Loiolan egin genuen mintegian, ekimen ekonomiko-produktiboetan gaitasunak garatzeari buruz hausnartu genuen, eta ohartu ginen alderatu egin behar zirela gure praktika eta gaitasunen ikuspegiari buruzko teoria, gaitasunak garatzeko gure proposamena lortu nahi bagenuen. Proposamen hark lagundu egin behar zuen gure praktika hobetu eta garapenaren alternatibak eraikitzen bideratzen, baita gizarte zibileko eta akademiako erakundeekin eztabaida kontzeptualari bide ematen ere. Gogoan izan behar dugu lau estrategia identifikatu

⁴ Testuan esanahi bera dute termino hauek: gaitasunak sortzea, gaitasunak garatzea.

genituela prozesu eraldatzaileak lantzeko estrategia egokitzen (laguntzea, eragitea, esperientziatik ikastea eta gaitasunak sortzea), eta erabaki genuela soko-nago aztertzea gaitasunak sortzeko buruzkoa, garapen ekonomiko-produktiboko prozesuei begira eta prozesu horietan ekimen alternatiboak sustatzeko gaitasunak sortzeko moduari begira. Hauek izan ziren erabaki hori hartzeko arrazoi nagusiak:

- Batetik, parte hartzen ari ginen erakunde guztiek partekatzen genuen ez dela erraza arlo ekonomiko-produktiboko prozesu konplexuak sostengatzea, gure lana egiten dugun eremuetako pobrezia- eta bazterketa-baldintzak eta aurrean izaten ditugun testuinguru kontrakoak direla eta.
- Bestetik, erakunde gehienek prestakuntza-, laguntza- eta aholkularitza-estrategiak ditugu; batzuk gehiago arduratzen dira arlo ekonomiko-produktiboaz, beste batzuk, arlo politiko-sozial eta kulturalaz, eta elkarren osagarri dira eta elkar indartzen dute.

Beraz, egokia iruditu zitzaigun sakontzea nola sustatzen ditugun gaitasun horiek, nola zabaldu estrategiak hainbat testuingurutan, eta zer indarrez egiten dugun. Horregatik eskaini diogu kapitulu hau gure praktikari buruzko hausnarketa bideratu duten gaitasunen ikuspegiari buruzko ekarpen teoriko nagusiak jasotzeko eta, hurrengo kapituluan ikusiko dugun moduan, gaitasunak garatzeko gure proposamenen zehaztu dugu. Eraikitzen ari gara proposamen hori, eta etengabe dago elkarriketan gure zereginarekin.

2.2. GAITASUNEN IKUSPEGIA

Amartya Sen-ek sortu zuen gaitasunen ikuspegia 1980ko hamarkadan eta Nazio Batuen Garapen Programak (PNUD) sustatzen duen giza garapenaren oinarri filosofikoak zehaztu zituen. Batzuetan, modu berean erabiltzen dira bi terminoak, eta horregatik ekin nahi diogu atal honi bien arteko erlazioei buruzko argibide labur batzuk emanez. Hori giza garapenerako gaitasunen ikuspegiaren ekarpen teorikotik sortzen da. Ezin da ulertu azken horren bilakaera gaitasunen ikuspegiaren ekarpenak sorretarik beretik zer garrantzi izan duen ulertu gabe. Beraz, garapen jasangarria da abiapuntutzat gaitasunen ikuspegia bere egiten duen proposamen bat, baina jasotzen ditu beste ekarpen teoriko batzuk ere. Ezin da ukatu *gaitasunak* terminoa giza garapenaren erreferentzia bihurtu denik; hala ere, ez da beti erabiltzen Sen-en kategoria analitikoaren parametroen barruan.

Sorreratik beretik, bilakaera bat izan dute bi ikuspegiak, askotariko eragileek egin dituzten berrikuspenak, kritikak eta ekarpenak direla eta. Horietako eragile batzuk dira akademia, gizarte-mugimenduak eta garapen-erakundeak. 1990ean, lehen aldiz formulatu zen giza garapenaren kontzeptua PNUDren Giza Garapenari buruzko Lehen Txostenean eta, 2010ean, birformulatu egin zen, garapenaren dimentsio soziala ere jasotzeko. Garapenaren dimentsio sozial edo kolektiboa giltzarria da gaitasunen ikuspegia lantzeko orduan, eta hori da Sen-en jatorrizko proposamenari egiten zaion kritika nagusietako bat, eta, beraz, baita PNUDrenari ere, izaera indibidualistagatik. Baina horretaz hitz egin aurretik, ikus dezagun zer proposatzen duen gaitasunen ikuspegiak, gero gaitasunen dimentsioei, motei eta zenbait kategoriari buruz hitz egiteko.

Gaitasunen ikuspegiak kritika sakona egiten die garapen-ekonomien eta politiken ikuspegi nagusiei, eta beste ikuspegi bat ematen du bizi-kalitateari eta pertsonen eta gizartearen ongizatearen esanahiari buruz. Ongizatea baloratzeko alternatiba teorikotzat ulertu behar da, eta, beraz, baita pobrezia eta garapena baloratzeko alternatiba teorikotzat ere.

Sen-en jatorrizko ikuspegiaren (1985, 1993) abiapuntua da giza bizitza ekintzen eta egoeren (*doings and beings*) multzotzat ulertzea eta, haren ustez, bizi-kalitatea baloratzeak haien egoerak baloratzea eskatzen du. Balorazio hori egiteko, bi kategoria analitiko erabiltzen ditu: funtzionamenduak eta gaitasunak. Esaten du biak direla egiaz ebaluatu behar denaren erreferente, ikusteko noraino lortu den ongizatea; hala ere, gaitasuna lehenesten du ongizatearen faktore osatzailatzat, funtzionamenduak baino informazio zabalagoa ematen duelako.

Gaitasuna/k. Hautatzeko aukera esanahia du gaitasuna kontzeptuak, eta gaitasunak askatasun – eta ekintza-eremutzat ulertu behar dira, eta funtzionamendu moduan itzul daitezke (Nussbaum, 2012:45). Pertsona batek ongizatea lortzeko edo hondamendi bati aurre egiteko egin ditzakeen ekintzen edo lor ditzakeen egoeren aukerak dira.

2.2.1. GAITASUNEN IKUSPEGIAREN ELEMENTU BEREIZGARRIAK

Ikuspegi honek jasotzen du galdera gako hau egin behar dela gizarteak haien kalitatearen eta ongizatearen arabera alderatzeko eta ebaluatzeko: **zer egiteko gai eta zer izateko gai da pertsona bakoitza?** Hau da, pertsona baten bizi-kalitatea haren gaitasunek definitzen dute.

Nussbaum-en (2012: 38-45,55) hausnarketetan eta ekarpenetan oinarrituz, hura definitzen eta ezaugarritzen duten elementu hauek nabarmentzen dira:

- *Garapena gaitasunak zabaltzetzat ulertzen du.* Hau da, gaitasunak dira garapenaren helburu politikoak eta ez funtzionamenduak: gaitasunak dira bizi-kalitatea eta garapena ebaluatzeko ezinbesteko espazioa, haiek bermatzen baitute pertsonen aukeraketa askea.
- *Pertsona bakoitza helburutzat hartzen du:* helburua da pertsona guztientzako gaitasunak sortzea eta ez erabiltzea bakar bat ere beste batzuen edo multzoaren gaitasunak lortzeko bitartekotzat.
- *Aukeraketa edo askatasuna da haren muina:* defendatzen du gizarteek beren herrientzat sustatu behar duten berebiziko ondasuna dela aukera-multzo bat (edo funtsezko askatasunak), eta, gero, jendeak praktikara eraman ditzake, ala ez. Pertsonak autodefinitzeko gaitasunak defendatzen ditu.
- *Askotarikoa da, balioei dagokienez:* pertsonentzat bereziki garrantzitsuak diren gaitasunak kualitatiboki bereizten dira elkarrengandik, eta ez soilik kuantitatiboki.
- *Bidegabekeriez eta ezberdintasun sozial errotuez arduratzen da:* bereziki, diskriminazioak edo bazterketak eragiten dituzten gaitasunen hutsez arduratzen da.
- *Presazko egitekoa esleitzen die Estatuari eta politika publikoei:* pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko zeregina esleitzen die; bizi-kalitatea pertsona horien gaitasunek definitzen dute.

Nussbaum da gaitasunen teoria berreraikitzen dutenen arteko erreferente nagusietako bat, Sen-en jatorrizko proposamena ñabartuz eta osatuz. Haren kritike-tako batek dio proposamen horrek ez duela definitzen zer gaitasun izan behar diren kontuan *oinarrizko justizia* kontzeptua eta ongizatearen helburuak zehazteko. Hau da, nabarmendu egiten du ongizatearen erreferentzia objektiboak izan behar direla eta, horregatik, hamar gaitasun nagusiko zerrenda proposatzen du, zehazteko zein den nazio batek helburu izan behar duen gizarte-justiziaren gutxieneko maila (ibidem: 53-55).

2.2.2. GAITASUNAK PNUDREN GIZA GARAPENAREN IKUSPEGIAN

Giza garapena kontzeptua 1990ean lehen aldiz definitu zenetik, formulazio osatuago bat egiten aritu da PNUD, eta 2010eko Txostenean jaso zuen (PNUD,

2010: 24): “Giza garapena jendearen askatasunak zabaltzean datza, bizimodu luze, osasungarri eta sortzailea izateko, baliotsuak iruditzen zaizkion helburuak lortzeko eta planeta partekatu batean garapenari forma ematen parte-hartze aktiboa izateko, garapena ekitatiboa eta jasangarria izan dadin. Jendea giza garapenaren onuraduna eta eragile motibatzailea da aldi berean, bai banako moduan, bai talde moduan”. Horrek adierazten du bilakaera bat izan duela giza garapenaren ikuspegiak, garapenaren dimentsio indibiduala ez ezik, soziala edo kolektiboa ere hartzen duelako kontuan. Eta hori, aurrerago ikusiko dugun moduan, funtsezkoa da gaitasunak lantzeko.

Planteamendu berri horren arabera, hiru elementu ditu giza garapenak, eta PNUDek lantzen dituen gaitasunen hiru osagairekin lotuta daude (2010: 24-25):

- *Ongizatea*: jendearen benetako askatasunak zabaltzea, aurrera egin ahal izan dezaten. Elementu hori aukerak zabaltzearekin lotuta dago.
- *Ahalduntzea eta ekintza*: jendearen eta taldeen ekintzak ahalbidetzea, baloratu daitezkeen emaitzetara iristeko. Ahalduntzea, jendeak aldaketak sortzeko duen boterea areagotze moduan ulertuta, Sen-ek “ekintza” izendatzen duena, gaitasunen ikuspegiaren erdigunean dago, eta lotura estua du askatasunarekin. Horiek horrela, ahalduntzea eta ekintza prozesu-askatasunak dira, eta taldeek eta pertsona-taldeek etxeetan, komunitateetan eta gizarteetan garapen-prozesuak (politikoak eta bestelakoak) formulatzeko, haietan parte hartzeko eta haien onurak jasotzeko duten gaitasuna nabarmentzen dute.
- *Justizia*: zuzentasuna areagotzea, emaitzak iraunaraztea denboran eta giza eskubideak nahiz gizarteak proposatutako beste helburu batzuk errespetatzea. Justiziaren hiru gako-printzipio horiek ematen diote forma emaitzei jendearengan, denboran eta espazioan.

Gaitasunen ikuspegia praktikan zehazteko, gaitasunak garatzeko proposamen bat prestatu du PNUDK (2009), baina, bere baitan, ez du izaera arauemailerik. Hau da, proposamen horrek adierazten du zer prozesu egin behar den gizartea aldatzeko, baina ez du irizpiderik zehazten aldaketaren noranzkoa eta haren helburuak ebaluatzeko. Garrantzitsuena da proposamen tekniko hori giza garapenaren ikuspegiarekin lotzea, edo, bestela, gure proiektu politiko alternatiboari zentzua emangodion ikuspegiarekin, horrela soilik lortzen baita gaitasunak garatzea(k):

- **Balio propiodun prozesu bihurtzea**. Oso garrantzitsua da prozesuaren kategoria txertatzea. Giza garapenerako, prozesua ez da soilik helburua lortzeko

bidea, baizik eta haren izaera instrumentala gainditu eta prozesuak ongizatearen elementutzat zein garrantzitsua den baieztatzea.

- **Izaera arauemailea izatea.** Gainditu egiten dira gaitasuna eta gaitasunaren garapena kategorien ikuskera instrumentala eta aseptikoa, eta eduki arauemailea ematen zaie. Gaitasunak garatzeko prozesu guztiak ez dira balioetsuak; ebaluatu egin behar da zeintzuek dakarten giza garapenerako ongi zatea eta zeintzuek ez.

2.3. GAITASUNEN DIMENTSIOAK ETA KATEGORIAK

Jada ikusi dugun moduan, gaitasunak ez dira garatzen hutsean. Baliagarriak izan daitezen, garapenaren helburu zabalagoan oinarritu behar dira. COMPARTEko erakundeek erabaki dugu bultzatzen eta babesten ditugun prozesu ekonomiko-produktiboetan hausnartzea gaitasunaren garapenari buruz. Beste modu batera esanda: erabaki dugu prozesu horiek aztertzea, sakonago jakiteko zer gaitasun ari garen sortzen, eta nola eta zein diren beharrezkoak garapenerako proposamen alternatiboak sortzeko.

Horrenbestez, praktikan aztertzeko, gaitasunak sortzeko aukera ematen duten hiru maila edo dimentsioko eskema bat erabiltzen dugu, eta gaitasunak garatzeko estrategia diseinatzeko, planifikatzeko eta haren segimendua egiten laguntzen diguten lau kategoria ditu. Garapen-prozesuetan gaitasunaren ikuspegia erabilgarri egitea ez da erraza, eta errezeta bakarrak ez dira baliozkoak, beti izan behar baitira kontuan testuingurua, historia, aukerak eta aurre egin beharreko arazoak, eta, batez ere, prozesua bera; horrek eskatzen du onartzea **gaitasunaren testuinguruan duten izaera dinamikoa**. PNUDK (2009), ordea, helburu horretan lagungarri izan daitekeen hiru oinarritzko galdera egiten ditu:

- **Zertarako** garatu behar ditugu gaitasun horiek? Zein helburu dute?
- **Noren** gaitasunak garatu behar ditugu? Zein taldek edo pertsonak behar dute ahalduz handiagoa?
- **Zer motatako** gaitasunak garatu behar ditugu garapenaren helburu zabalenak lortzeko?

Oro har, baliagarriak izan zaizkigu galdera horiek gaitasunaren dimentsioei, kategoriei eta motei buruzko gaiak lantzeko. Baina, lehenago, aipatu behar da lehen

galdera erlazionatuta dagoela COMPARTEn gaitasunak sortzeari garapen alternatiborako ezaugarri eta estrategia moduan ematen diogun garrantziarekin. Haren oinarriak dira jendearen eta natura-ingurunearen ongizatea eta bizitzaren jasangarritasuna garapen-prozesu osoaren erdigunean kokatzen duten ikuspegiak. Lehen esan dugun moduan, galdera horren erantzunak gaitasunen garapena giza garapenaren ikuspegiaren txertatzea dakar, edo, bestela, gure proiektu politiko alternatiboari zentzua emango dion ikuspegiaren.

2.3.1. MAILAK EDO DIMENTSIOAK NON SORTZEN DIREN GAITASUNAK

Bigarren galdera gaitasunak sortzen eta garatzen diren mailai eta dimentsioei buruzkoa da: ingurunea, erakundeak eta pertsonak (PNUD, 2009).

- **Ingurunea** da jendeak eta erakundeek jarduten duten gizarte-sistema zabala. Gizakien arteko elkarrekin arautzen dituzten arau, lege, politika, botere-harreman eta gizarte-arau guztiak hartzen ditu. Aldeko inguruneak dakar gaitasunak garatzea lortzea. Aldi berean, gaitasunak garatzeak ingurunea alda dezake.
- **Antolaketa-maila** erakunde baten eraginkortasuna zehazten duten egiturari, politikei eta barne-prozedurei dagokie. Hor jartzen dira jokoan aldeko ingurunearen onurak, eta askotariko jendea biltzen da. Elementu horiek zenbat eta hobeto lerrokatu eta zenbat eta baliabide hobeak izan, are aukera handiagoak izango ditu hazteko.
- **Banakoaren maila** pertsona bakoitzaren jarrerak, esperientziak eta eza-gutzek osatzen dute, eta horiei esker garatzen da. Jarrera batzuk formalki eskuratzen dira, hezkuntzaren eta gaikuntzaren bidez; beste batzuk, ordea, informalki dira, eta jendearen ekintzetatik eta behaketetatik lortzen dira.

Gaitasunak hiru mailetan (pertsonak, erakundeak-elkarteak eta ingurunea-gizartea bere osotasunean) garatzeko prozesu horrek barne hartzen ditu **gaitasun indibidualak eta kolektiboak**.

PNUD ez da gaitasunen jatorrizko ikuspegiaren izaera indibidualistari buruzko kritiketarik at geratu, eta azken Txostenean (PNUD, 2013) gizarte-gaitasunak aipatzen ditu giza garapena banakotik harago doala ikusarazteko. Onartzen du pertsonak ezin dutela ez bakarrik funtzionatu ez bakarrik ase, gizarte-erakundeetan murgilduta daudela, haien nortasunak eta aukeraketak zehazten dituztela eta, gainera,

haien garapen-aukera mugatu edo sustatu dezaketela. Horiek horrela, proposatzen du, jendeak bere aukerak ahalik eta gehiena garatzeko aukera izan dezan, garapen-politikek gizarte-gaitasunak areagotzea jaso behar dutela, eta ez soilik indibidualak, eta haren apustua da giza garapenaren ikuspegiaren zereginetako bat izatea gizakiei aurrera egiten laguntzen dieten gizarte-erakundeen izaera aztertzea.

Zentzu horretan, Nussbaum-em (aipamena: Dubois, 2008) proposamen teorikoa aurrerapen garrantzitsua da; izan ere “jendeak errealizatzeko behar dituen gaitasunak eskuratzea da helburua, eta gaitasun horietako batzuk erlazio-konnotazio garrantzitsua dute beste pertsona batzuekin eta gizarte – eta natura-ingurunearekin”. Hala ere, badira beste proposamen teoriko batzuk ere, eta ulertzen dute gaitasunen ikuspegiak gabezia batzuk dituela; gabezia horiek ezin dira konpondu banakoen gaitasun berriak zabalduz, eta kategoriatik kontzeptual berriak behar dira ongizatearen dimentsio kolektiboa kontuan izateko. Kasu horietan, “gizarte-dimentsioa baloratu behar den ongizatearen beraren zatitza txertatu behar da, eta ez soilik ongizatea baloratzeko kontuan izatea merezi duten helburuak lortzeko jendeak dituen tresna edo baliabideak. Horretarako, kategoriatik kolektiboak behar dira” (ibidem).

Puntu honetan, komeni da gogora ekartzea COMPARTERen hausnarketek (ALBOAN, 2011:25-26) behar hau aipatzen dutela: **eraikuntza kolektiboaren alde apustu egitea garapenari bide emateko baldintzatza**. Badakigu kolektiboari erantzutea ez dela pertsonaren kaltetan; kontua da haien ongizaterako ordena kolektiboa funtsezkoa dela dioen ideia berreskuratzea. Eta horrek **“ongizatearen kategoriatik kolektiboetara”** garamatza. Kategoriatik horiek daude pertsonen taldean lan egiten dutenean, komunitatean, bizi diren eta banakotasuna garatzen duten gizarte-ingurunearen konfiantza nabari dutela. Kategoriatik horiek lagundu egiten digute eraginkor egiten bizimodu onaren ideia maila kolektiboan, eta, horietatik guzti-etatik, gaitasun kolektiboek arduratzea interesatzen zaigu hemen⁵. Gure ustez, gizarte batek funtziona dezan, funtsezkoa da gaitasun horiek izatea, funtzionatzea eta elkarreraginak izatea.

Gaitasun kolektiboak zer diren ulertzeko, ikus dezagun, hasteko, zeintzuk diren **erakunde edo sistema baten gaitasun kolektiboaren ideia** ezaugarritzen duten alderdiak⁶:

⁵ Ongizatearen lau kategoriatik kolektibo daude: (i) gizarte-kapitala; (ii) ondasun publikoak; (iii) giza segurtasuna, eta (iv) gaitasun kolektiboak (ALBOAN, 2011:25-26).

⁶ Alfonso Dubois-en ponentzia: “El desarrollo de las capacidades”. COMPARTERen mintegia, Loiolan (Gipuzkoan) egina 2012ko irailaren 24tik 27ra. Power point-a.

- Ahalduntzeari eta nortasunari erreferentzia egiten dio: ezaugarri horiek aukera ematen diote erakunde edo talde bati beren buruaz jabetzeko, hazteko, bizirik irauteko eta konplexuago egiteko; erakunde bati gauzak egiteko eta mantentzeko aukera ematen dioten ezaugarriak.
- Ekintza kolektiboarekin zerikusia du: ekintza-prozesu kolektiboan soilik agertzen dira, baina kontuan izan behar da ekintza kolektibo orok ez dituela giza gaitasunak indartzen edo balio positiboa sortzen.
- Fenomeno sistemikoa da; askotariko elkarreraginen ondorioztat sortzen da.
- Balizko egoera bat da.
- Balio publikoa sortzen ahalegintzen da: banakoei ez ezik, taldeei ere egiten diete onura.

Garrantzitsua da ulertzea gaitasun kolektiboak gaitasun berriak direla, eta ez bakoaren gaitasunen batura.

2.3.2. GAITASUN KOLEKTIBOAK ETA KONPETENTZIA INDIBIDUALAK: BOST GAITASUNEN (5G) EREDUA

COMPARTEko erakundeek praktikatik gaitasunak garatzeko proposamen propioa eraikitzeko beharrak eraginda, hainbat proposamen teoriko aztertu genituen, azterketa esparru bat izateko, eta, azkenean, Bost Gaitasunen ereduaren alde egin genuen, haren izaera holistiko eta malgua dela eta (Huisman & Ruijschoot, 2013). Eredu horrek hainbat arlotatik hartzen ditu kontuan erakundeak, eta haien arlo “indartsu eta ahulen” (ezagutza teknikoak, finantzaketa, langileak, kultura, etab.) garrantzia nabarmentzen du; gaitasunak baloratzeko, ikuspegi malgua erabiltzera gonbidatzen du, testuinguruaren egoerei buruzko gogoetak eta erakunde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz. Alderdi horiek kontuan izatea gakoa zela pentsatu genuen, COMPARTEko erakundeek askotariko testuinguruetan esku hartzen dugulako eta garrantzia ematen diogulako garapenaren dimentsio kolektiboari. Hain zuzen, *5Gen eredua* erakunde edo sistema baten gaitasun kolektiboei buruz pentsatzeko modu bat da eta, banako konpetentziekin batera, balio publikoa sortzen du⁷. 5 gaitasun kolektiboen proposamena tresna bat da,

⁷ Eredu hori sortu da 2004an Garapen Politikak Kudeatzeko Europako Zentroak (ECDPM) egindako azterketa enpirikotik. Eredu horretan sakontzeko, kontsultatu: Huisman, Peter and Ruijschoot, Lieke (2013); Baser, Heather and Morgan, Peter (2008); Engel, P., Keijzer, N., Land, T. (2007).

erakundeek dituzten gaitasunen ikuspegi bat eskuratzeko, eta, hortik abiatuta, hitz egiteko eta barnetik kanpora eztabaidatzeko beste erakunde batzuekin, helburuak lortzeko garatu behar dituztenei buruz.

Laburbilduz, eredu hau tresna erabilgarria da erakunde edo sistema baten gaitasun globala aztertu eta ebaluatzeko, eta arlo hauek ematen dute horren berri (Baser & Morgan, 2008):

- **Testuingurua** (politikoa, soziala eta instituzionala): eragina du erakundeak eskuratu duen gaitasunean, baita garatzeko trebetasunean ere. Gainera, faktore horrek zehazten du gaitasunak garatzearen zer alderdi lehenetsi behar diren.
- **Banako konpetentziak** eta erakundearen parte diren pertsonen zuzeneko ekarpenak. Jendearen pentsaerak, ezagutzak, motibazioak eta itxaropenak berebiziko ekarpenak dira erakunde edo sistema baten gaitasunerako. Hala ere, kontuan izan behar da jendearekin lan egiteak ez duela adierazten kausa-erlazioirik izango denik gaitasun globala sortzearekin. Gaitasun globalari egiten zaizkion ekarpen indibidual batzuk “konpetentzia ahulak” (adibidez, erlazioak, konfiantza eta zilegitasuna sortzea) eta “konpetentzia indartsuak” (adibidez, konpetentzia teknikoak, logistikoa eta kudeaketa-konpetentziak)⁸ dira. Pertsonak ere izan daitezke antolatze gaitasunaren parte diren konpetentzien eta trebetasunen hartzaileak.
- **Gaitasun kolektiboak**: funtzioak eta prozesuak betetzen laguntzen diete erakunde bati, bai sistema barruan bai kanpoan. Taldeak, sareak eta erakundeak “giza sistema biziak” dira, eta gaitasun horiek behar dituzte bizirik irauteko, hazteko, aurrera egiteko, funtzioak betetzeko eta helburuak lortzeko. Elkarri eragiten dioten 5 gaitasun nagusi daude erakunde edo sistema guztietan, hein handiagoan edo txikiagoan: (i) konpromisoa hartu eta garapen-ekintzetan parte hartzeko gaitasuna, (ii) zeregin edo funtzio logistikoak egiteko eta zerbitzuak eta teknikak eskaintzeko gaitasuna, (iii) harremanak izan eta babesa eta baliabideak lortzeko gaitasuna, (iv) moldatu eta berritzeko gaitasuna, eta (v) koherentzia eta aniztasuna orekatzeko gaitasuna. Horietako bakoitzak **1. eranskinean** xehetasunez jaso diren alderdiei eta konpetentziei egiten die erreferentzia.

⁸ **Konpetentzia ahulak** honela defini daitezke: berariazko lan-arlo baten teknikatik harago doazen gaitasunak, eta atal emozionalarekin, jarrerarekin, motibazioekin, balioekin eta gizakiaren kulturarekin erlazionatuak; pertsonen giza trebetasunekin erlazionatuak. Konpetentzia indartsuak dira lan eta lanbide jakin batzuen teknikekin erlazionatutako trebetasunak.

2.3.3. GAITASUNEN KATEGORIAK ETA IKUSPEGI OSAGARRIAK

Gaitasunak kategoria eraginkorretan multzokatzera garamatza garapenaren helburu zabalena lortzeko garatu behar ditugun gaitasun-motei buruzko hirugarren galderak.

Nahiz eta 5G ereduak erakunde edo sistema baten gaitasun kolektiboen azterketa egiteko eta jarduteko esparru egokiagoa eskaini, kategoria zabalagoak behar genituen, dimentsio indibidual eta kolektiboak batera aipatzeko. Horiek horrela, dauden askotariko gaitasunak multzokatzeko ahalegina egiten duten ekimenen artean, COMPARTE osatzen dugun erakundeok erabaki genuen lau gaitasun-kategoriatan oinarritzea, Anderson eta Woodrow egileek egin zuten proposamenetik (1989) eta COMPARTE⁹ komunitatearen ekarpenetatik abiatuz:

- **Gaitasun fisiko-materialen kategoria:** baliabide-materialak, osasun-baldintzak, elikadura, etxebizitza, hezkuntza, ezagutza teknikoak.
- **Gaitasun politiko-sozialen kategoria:** sare sozialak, politikan parte hartzeko aukerak, jabetza-eskubidea eta lan bat izateko eskubidea. Ekintza kolektiboetan parte hartzeko trebetasuna, parte-hartzaileei autonomia emanez. Gaitasun-aldeak murriztea kolektibitatea osatzen duten taldeen artean, arreta berezia jarritz emakumeengan.
- **Gaitasun psikologikoen kategoria:** autoestimua, adorea, ekimena, irudimena, pentsamendu kritikoa eta askatasun-giroa gustuen eta sinesmenen berri emateko.
- **Zentzuaren eta harmoniaren gaitasunen kategoria:** gainerakoekin harmonian bizitzea, beste gizaki batzuekiko, naturarekiko eta bizitzarekin dituzten erlazioekiko interesa. Barnekotasuna, topaketak, etengabeko aurkikuntzak, sorpresa, mirariak baloratzea.

Esparru hori genuen abiapuntu, gure praktika hausnartutik, COMPARTEren gaitasunak garatzeko proposamena sortzeko. Gero, aberastu eta osatu egin dugu, 5Gen Ereduaren eta beste esparru analitiko batzuen bidez; adibidez, Anthony

⁹ Lehen hiru kategoriak Anderson y Woodrowe-k (1989) definitu zituzten; laugarrena, COMPARTEKO hausnarketatik sortu da. Azken horri dagokionez, COMPARTEk 2012ko irailean Loiolan egin zuen mintegian, "Zentzua eta harmonia" kategoria "Zentzua eta nortasuna" izenez ematearen egokitasunari buruz hausnartu zen.

Bebbington-ek proposatua (1999, 2005). Autore horrek, garapena aztertzen dutenen hausnarketan eta Latinoamerikako landa-bizimoduaren baliabideei buruz egin dituzten azterketetan oinarrituz, esparru bat proposatzen du bitarteko horien jasangarritasuna aztertzeko. Esparru horretan, kapitalaren hainbat formatan jasotzen du gizakiaren ongizatearen hobekuntza, eta, aldi berean, jendearen gaitasuna sortzen duten baliabideak (edo aktiboak) dira eta haien bizimoduei zentzua eman eta bideragarri egiten dituztenak. Hau da, jendeak bizitzan helburuak lortzeko dituen bitartekoak dira. 5 kapital mota nabarmentzen dira, eta biri erreparatzea interesatzen zaigu, COMPARTERi egin dizkieten ekarpenak direla eta¹⁰:

- **Kapital kulturala:** pertsona batek dituen baliabideak eta sinboloak, kultura jakin batekoa izateagatik. Duten esanahiagatik balioesten diren kultura-praktika batzuk mantentzearen garrantzia jasotzen dute eta, aldi berean, jendea gaitzen, inspiratzen eta ahalduntzen dute. Kultura-praktika horiek, nortasun-forma batzuk eta elkarreraginaren modu bereziak indartzen dituztenez, beste kapital batzuk beren kabuz sustatu ezin dituzten ekintza – eta erresistentzia-forma batzuk errazten dituzte. Hala, kultura-kapitala kontuan hartu beharrekoa funtsezko baliabidetzat jotzen da, jendeak eta gizarte-taldeek garapenari edo pobreziari zer esanahi ematen dieten ulertzeko.
- **Kapitala soziala:** beste pertsona batzuekin eta erakundeetan parte hartuta izaten diren erlazioen ondoriozko baliabideak. Kapital hori **funtsezkoa da beste aktibo eta aktore batzuetara iristeko**. Baliabide moduan, bere baitan du balioa kapitala sozialak, pertsona kide egin eta barnean hartzen duelako, eta antolatuta egote hutsak eman dezakeen boterea dela eta. Hala ere nabarmentzen da haren balio nagusia dela nola erraztu beste baliabide batzuk eskuratzeko aukera; hau da, zehazten diren erlazioek eta gizarte-sareek nola ematen duten aukera beste aktibo batzuk eskuratzeko, bizitzako helburuak eta ongizatea lortzeko. Hainbat eragilarekin izaten diren erlazioen bidez (Estatua, merkatua, eta gizarte zibileko zenbait sektore), jendeak eta erakundeek aldarrikatu, defendatu eta eraldatu egin ditzakete baliabideak, onura handiagoak lortzeko; eta gizartean baliabideak eskuratzeko zehazten diren arauak aurre ere egin diezaiekete, edo berriro negoziatu. Eta, horretarako horietako bakoitzarekin izaten diren harremanetan eta trukeetan gaituta egon behar dute, eta bakoitzarengandik lor daitekeena baliatu.

10 Ikus 2. eranskina proposatzen diren 5 kapital-motak ezagutzeko.

Baliabideak eskuratzearen garrantzia nabarmenduz, esparru analitiko horrek jasotzen du nola eragiten dieten gizarte-egiturek eta erakundeek (merkatua, Estatua eta gizarte zibila) bai jendeak baliabideak lortzeko dituen aukerei, bai jendeak baliabideak aldatzeko, erreproduzitzeko eta pilatzeko dituen moduei. Estatuak bizimoduetan zer eragin duen nabarmentzen du, hainbat formaren bidez: legeak, politika eta programa publikoak, onartutako indarkeria, etab.

3. kapitulua

COMPARTERen gaitasunak garatzeko mapa



3.1. SARRERA

Kapitulu honetan azalduko dugu zertan datzan COMPARTERen gaitasunak garatzeko mapa. Komunitateak esperientzia ekonomiko-produktiboei buruz partekatu dituen esperientziak aztertzeetik sortu da mapa, eta mapa oinarritzeko behar beste eduki atera dugu esperientzia horietatik (**3. eranskina**). Hain zuzen, haren aberastasuna da praktika hausnartutik eta jende guztiarentzako justizia eta garapena lortzeko aukeraren ikuspegi zabalduetik sortzen dela. Itxaroten den aldaketa politiko hori azaleratuta, aurrera egin da gure praktikarekiko elkarriketan, eta sakondu jada abian diren prozesu ekonomiko-produktiboei eusteko eta helburu dugun garapenari laguntzeko sortu behar diren gaitasunei buruzko hausnarketan. Galdera hau izan dugu gidari: **Zer gaitasun sustatu behar ditugu pertsonetan eta erakundeetan jendearen bizimodua hobetzeko?**

Mintegia egin genuen Loiolan 2012ko irailean, eta izenburu hau zuen *“Aterrizando propuestas para el desarrollo alternativo: un acercamiento a la generación de capacidades en iniciativas económico productivas”*. Han, etorkizun propioa zehaztu genuen, jakinik zer arrisku dituen dagoenaren alternatiba baten alde egiteak; hala ere, ziur ginen eraldaketa-prozesu partekatuak sortzeko gida izango zen erreferentzia esparrua eraiki behar genuela. Loiolan, gure Aldaketa Teoria zehaztu genuen, eta honela definitzen da: “gure pentsamendua antolatzeke eta testuinguru jakin batean helburu den aldaketa lortzeko behar ditugun baldintzak modu abstraktuan osatzeko aukera ematen digu, gure ezagutzetatik eta esperientziatik abiatuz” (Retolaza, 2010: 2). Aldaketa Teoria da, besteak beste, pentsamendu-ekintza ikuspegi bat, eta helburu dugun aldaketaren bidean zer mugarri eta baldintza behar diren identifikatzen laguntzen digu; halaber, prozesurako tresna bat da, gure pentsamendua eta ekintza banaka nahiz kolektiboki aztertzeke, kontzienteki eta kritikoki. Beraz, ez da aldaketa gauzatzeko modua, gertatuko den modua nahiz gerta litekeen modua zalantzan jarri ezin den erabateko egiaztat hartu behar; ez da, halaber, behin betiko errezeta azaleratzen ari diren gizarte-prozesu konplexuen zalantza desagerrarazteko (ibidem).

Aldaketa Teoriari buruzko premisa labur hauek baliagarri dira COMPARTERen Gaitasunak Garatzeko Mapari buruzko oinarritzko gogoeta batzuk txertatzeko, eta komeni da gogoan izatea zertan datzan eta nola gauzatzen den ikusi aurretik:

- ***Balio propioa duen prozesua da.*** Komunitatearentzat ez da baliozkoa gaitasunak garatzeko edozein prozesu eta edonola inplementatua. Gure

arretagunea da zer egiteko modutan garatzen diren gaitasun horiek, eta, noski, zertarako garatzen diren.

- ***Eraikitzen ari garen prozesua da;*** bere bilakaera izan behar du etengabeko elkarriketaren eta praktikaren bidez. Hemen aurkezten den proposamena COMPARTE osatzen dugun jendeak eta erakundeek ditugun eta orain arte garatu ditugun hausnarketetatik, ezagutzetatik eta esperientzietatik sortu da.
- ***Prozesu malgua da,*** eta hausnarketa eta ekintza jarraitua eragiten ditu. Hain zuzen, oinarri konstruktiboko jarrera kritiko horren bidez eraiki dugu zer-bait propioa, garapen-arloko beste pertsona, elkarte eta erakunde batzuek eman dituzten proposamenetatik eta egin dituzten hausnarketetatik abiatuz. Aurreko kapituluetan adierazi den moduan, gaitasunen ikuspegiari eta giza garapenari buruz zer dagoen aztertu dugu, eta egun COMPARTEk lortu nahi duen aldaketari gehien laguntzen diotenak jaso ditugu.

Azken batean, proiektu politiko bateratu baten partaide sentiarazten gaitu proposamenak, eta elkar ulertzen eta elkarrekin lan egiten laguntzen digu. Kapitulu honetan zehar ikusiko dugun moduan, nabarmendu egiten dugu jada abian dauden prozesu ekonomiko-produktiboetako gaitasunak garatzeko dimentsio kolektiboa, eta **subjektu kolektibo antolatua** aipatzen dugu, lanak, erronkak eta prozesuak aurrera eramaten dituen, bideragarritasuna eta jasangarritasuna helburu. Badakigu kolektiboari erantzutea ez dela pertsonaren kaltetan; kontua da haien ongizaterako ordena kolektiboa funtsezkoa dela dioen ideia berreskuratzea.


3.2. COMPARTEREN GAITASUNAK GARATZEKO MAPAREN ELEMENTUAK: ZERTARAKO DIRA?

COMPARTERen maparen ikusizko irudikapenak gure praktikarako baliagarri diren hiru elementuak jasotzen ditu, zeintzuek mapak gure prtktan zertarako balio digun azaltzen diguten:

- ***Etorkizun politiko alternatiboa:*** garapenaren ikuspegi berriak bultzatzen gaitu helburu dugun aldaketa baterako ametsa eraikitza.
- ***Gaitasunak garatzeko aukeren baldintzak:*** hasieratik landu beharreko gutxieneko baldintzak, amesten den aldaketa lortu ahal izateko.

- **Gaitasunak garatzeko ibilbide bat:** gaitasunen lau kategoria zehazten ditu; horrek adierazten digu nola egin helburu dugun etorkizun politikorako al-daketa. Horretaz gain, gaitasunen garapenak dimentsioen artean dituen di-namismoa eta zirkularitatea jasotzen ditu: pertsona erdigunean jartzen du, pertsonaren interakzioa beste batzuekin erakundearen bidez, eta erakun-deen eta pertsonen interakzioa ingurunearekin-sistemearekin.

1. irudia. COMPARTERen Gaitasunak Garatzeko Mapa



3.2.1. ETORKIZUN POLITIKO ALTERNATIBOA

Mapan jasotzen da zer etorkizun dugun helburu, eta COMPARTE komunitatearen esperientziak batuta sortu da. Lortu nahi dugun garapenaren ezaugarriak zehazten

laguntzen digu¹¹, eta gure lanaren hartzaile diren pertsonengan eta elkarteetan gaitasunak sortuz gauzatzen dugu. Gizarte-egituren esparruan (Estatua, merkatua, etab.) gauzatzen den aldaketa pertsonalerako eta sozialerako gure tresnak sustatu dezake, edo mugatu. Zentzu horretan, Bebbington-en hausnarketei jarraikiz (1999), arreta jarri behar dugu laguntzen diegun pertsonen eta taldeen garapena mugatzen duten arauak eta gizarte-egiturak aldatzeko lan egiteko beharrean, eta horrek eskatzen du, ezinbestean, eragile garrantzitsuak kontuan izango dituzten estrategiak abian jartzea, hala nola Estatua eta merkatua.

Mapak ignaziotar espiritualtasuna du, munduaren ikuspegi baikorra, eta bere horretan ikustera gonbidatzen gaitu: bere koloreak, pozak eta bizitzarekiko eskertzea. Maparen helburuak dira Jesusen Konpainia¹² moduan dugun misioaren zikloa hobetzen laguntzea, jende pobretuari hobeto lagunduz beren kausetan eta bizimodua duintasunez irabazteko borrokan; zerbitzu hobea ematea gure egiten jakitetik; sentiberatasuna eta borondateen batura sustatzea, beste eragile batzuekin batu ahal izateko; hausnarketa eta ezagutza sortzea eta, azkenik, garapenaren alternatiba diren gure eredu eta logiketan eragitea.

Proposamen honek batu egiten gaitu, aurrera eginarazi, justizia handiagora eramanez, testuinguru zehatz bateko egoera jakin batetik abiatua, eta esperientziak alternatiba bizi eta posibleak sortzeko bitartekotzat hartu. Gure eguneroko praktikan ditugun askotariko zailtasunen artean itzaropena sortzera animatzen gaitu.

3.2.2. GAITASUNAK GARATZEKO AUKEREN BALDINTZAK

Gure etorkizun politikoaren ezaugarrien artean, lau nabarmentzen ditugu. COMPARTERen esperientzietatik abiatuz, haiei buruz hausnartu dugu, eta lekua izan behar dute Komunitateak sustatutako edozein ekimenetan. Hauek dira gaitasunak garatzeko gutxieneko baldintzak: (i) tokian tokitik, lurraldetik eraikitzea, (ii) harreman harmoniatsua izatea naturarekin, (iii) bizimodu ona bilatzea eta (iv) justizia eta zuzentasuna. Gure ustez, baldintza horiek lantzeak lagundu

¹¹ Orain arte komunitetak egin dituen garapenaren ezaugarriei buruzko hausnarketa 1. kapituluaren jaso da, baita argitalpen honetan ere: *“El desarrollo alternativo por el que trabajamos. aprendizajes desde la experiencia”*.

¹² Álvarez de los Mozos Patxi. El Ciclo de la Misión Hoy. Jesusen Konpainiaren Gizarte Justiziarako eta Ekologiarako idazkaritza.

egin diezaguke gaitasun kolektiboak garatzen ingurunean-sisteman; adibidez, zuzentasuna, ahalduntzea eta jasangarritasuna.

Hain zuzen, funtsezko alderdi bat da tokian-tokian sustatzen ditugun esperientzien bideragarritasuna eta jasangarritasuna, eta lurralde-espazio zabalagoetan (eskualdea, nazioa eta mundua) pentsarazten eta jardunarazten digu. Horregatik du lurralde-ikuspegi garbia gaitasunak garatzeko gure mapak bideragarritasunaren zailtasunei eta esperientzien jasangarritasunari aurre egiteko. Horri dagokionez, egokia da aipatzea Bebbington-ek (2007: 33-34) landako jasangarritasunari buruz pentsatzeko erabiltzen dituen **espazioa eta eskala** kontzeptu geografikoak; izan ere, aukera ematen du kontuan hartzeko landa-hiria elkarreraginak lurralde zabalagoen barruan, edo lurralde bateko eta beste analisi-eskala batzuetan jarduten duten eragileek eta prozesuen arteko harremanak. Eskala eta eskalazko kontzeptu horiek erabilia, tokian tokiko esparrua zeharkatzen duten sare ekonomiko eta soziopolitiko handiagoei buruz hausnartu daiteke, baita sare horiek zer eragin duten ere bizimodu partikularren baliabideak eta bitartekoak kontrolatzeko, erabiltzeko eta jasangarri egiteko moduetan ere. Hau da, bideragarritasuna eta jasangarritasuna lortzeko espazio bakarra tokian tokiko esparrua delako pentsamendua alboratzen laguntzen digu, eta erabakigarriak diren beste espazio batzuk kontuan hartzen.

3.2.3. GAITASUNAK GARATZEKO IBILBIDE BAT

Gure helburua da mapa lagungarri izatea aldaketa errealak eta eraldaketa jakinak lortzeko, gero, jendeari aurrera ateratzen lagunduko dieten bizimoduak sortzeko. Eta horrek gure praktika hobetzea eskatzen du, sistematizazioaren, trukearen eta elkarrekiko ikaskuntzaren bidez. Horretarako, esparru adostu bat behar du, guztiok batzeko, nortasuna emateko eta ibilbide bat emateko; esparru horrek baterako hizkera eta jarduteko modua eman behar dizkigu eta, beraz, gure artean eta “besteekin” elkarriketan aritzeko aukera. Esparru hori gaitasunak sortzeko ibilbide batean zehazten da, eta COMPARTEK sustatzen duen etorkizun politikoa lortzen lagundu diezaguke. Ezaugarri hauek ditu:

- *Testuinguruak eta beste aldagai batzuek zehazten dute.* Gaitasun ugari jasotzen ditu, baina guztiak ez dira jaso eta sortu behar esperientzia eta erakunde guztietan modu berean eta aldi berean. Ematen eta/edo behar diren gaitasun-motak testuinguruaren, jarduera-sektorearen, erakundearen

historiaren eta ibilbidearen, lanaren eta laguntzaren hartzailerik den kolektiboaren, ekimenaren une historikoaren, sustatzen den prozesuaren... araberakoak dira.¹³

- ***Subjektu kolektibo antolatuari buruz ari da nagusiki.*** Horrek adierazten du gure ibilbideak esperientzia ekonomiko-produktiboak egiten ditugun erakundearen esparruan ematen eta/edo sortzen diren gaitasun kolektiboak jasotzen dituela nagusiki. Hala ere, horrek ez gaitu eraman behar ahanztera dimentsioen arteko gaitasunen izaera zirkular eta interaktiboa, zirkuluaren barrutik kanporantz baitoaz. Hau da, maila indibidualetik maila kolektibotara doaz, eta, zenbaitetan, baita alderantziz ere. Gaitasun batzuk gizartean hasten dira garatzen (erakundea eta/edo ingurunea-sistema), eta oihartzuna edo eragina dute gero pertsonengan. Gaitasunen garapenaren dimentsioek elkar elikatzen dute, eta horrek jasotzen du, hain zuzen, maparen dinamismoa eta zirkulartasuna.
- ***Helburu dugun garapen integralaren ikuspegiari erantzuten dio.*** Helburua ez da gaitasunak dimentsio ekonomiko-produktiboan soilik sortzea; adierazten du arlo horretako esperientziek beste garapen arlo batzuekin (gizartea, kultura, politika, etab.) erlazionatutako gaitasunak sortu behar dituztela.
- ***Gaitasunen proposamen ez-agortua, dinamikoa eta gaitasun berriei irekia jasotzen du.*** Gaitasun berri horiek COMPARTERen esperientzietan jasotzen edo sortzen direnak izango dira. Horretarako, esperientziak sistematizatzen eta ikasgaiak ateratzen jarraitu behar da.
- ***Elkarriketa-esparru bateratua proposatzen du, laguntzeko, trukeak izateko eta elkarrengandik ikasteko.*** Laguntza emateko moduak bateratzearen alde egingo du, esperientzia frustagarriak saihesteko eta arrakastatsuak baliozkotzeko. Beraz, esperientzia baliozkoak trukatzeko eta ezagutza kapitalizatze tresna bat da; praktikei buruz hausnartu, sistematizatu, partekatu, zalantzan jarri eta ikasgaiak ateratzeko tresna bat.

Proposatzen den ibilbidearen zentzua ez da praktika batzuk beste batzuekin alderatzea, baizik eta orientabide izatea, eta aukera bat ematea ikus-teko esperientzia Komunitateak zehaztu duen etorkizunerantz doan eta ahalegin handiagoa zer alderditan egin behar dugun identifikatzeko (arlo

¹³ Gai hau ongi lantzen da lan hauetan: Baser & Morgan, 2008; Bebbington, 2005, 1999; Engel, Keijzer & Land, 2007; Huisman & Ruijschoot, 2013.

psikologikoa, pertsonala, lurraldea, materiala) une eta testuinguru jakinetan garatzen den esperientzia zehatz horretan. Epe ertain-luzera, pertsonengan eta kolektiboetan aldaketak daudela frogatzen duten adierazleak sortzen lagundu diezaguke, COMPARTEk sustatzen dituen balio eta ezaugarriekin, ikuspegi alternatibo batetik.

Laburbilduz, gaitasunak garatzeko gure ibilbidea gure aldaketa-bidea zehazteko modua da. 2. kapituluaz azaldu dugun azterketa-esparrua izan dugu tresna bat egin eta, horren bidez, jakiteko gure praktika COMPARTE Komunitateak helburu duen etorkizun politikorantz egiten ari den, eta identifikatzeko zer gaitasunen garapenen dimentsio eta kategoriatan eragin behar dugun gehiago. Tresna hau “COMPARTEren Gaitasunen katalogoa” da, eta atal hauek ditu:

- Erakunde edo sistema baten parte diren pertsonen gaitasun kolektiboak eta kompetentzia indibidualak multzokatzen dituzten lau kategoria.
- Erakunde edo sistema baten bost gaitasun kolektibo, haren parte diren pertsonen gaitasunak sortuz eraiki behar direnak.

4. eranskinean Gaitasunen Katalogo hori jasotzen da: gaitasunen eta kompetentzien zerrenda, baina ez-agortua.

2. irudia. COMPAREn gaitasunak garatzeko ibilbidearen grafikoa



Jarraian, COMPAREK aztertu dituen esperientzia ekonomiko-sozialetan sortu diren gaitasun nagusiak jasotzen dira, baita haiek garatzeak laguntza ematen zaien pertsonengan eta taldeengan izan duen eragina ere; gaitasunak garatzean hauteman ditugun hutsuneak eta hobetzeko arloak ere jasotzen dira. Kategoría bakoitzarekin batera jaso diren irudien bidez, grafikoki ikus daiteke esperientzia guztietan lortu diren gaitasun kolektiboen mota eta garapen-maila.

3. irudia. COMPARTERen esperientziek garatutako gaitasun kolektiboen grafikoa, kategoria fisiko-materialari dagokiona



I. kategoria: Fisikoa-materiala

2G. Zeregin edo funtzio logistikoak egiteko eta zerbitzuak eta teknikak eskaintzeko gaitasuna

Estrategikoki planifikatzeko eta kudeatzeko konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Planifikazio prospektiboa eta estrategikoa jasangarritasunaren ikuspegitik, espazio produktiboen diseinuari eta lurraldeko bizitza-planen formulazioari aplikatuta¹⁴.

¹⁴ Bizitza-planak dokumentuetan eremu jakin bateko biztanleriak itxaroten duen eskualdearen ikuspegia jaso da, eta IMCA eta SUYUSAMAK implementatutako etorkizuneko planeamendu-metodologiaren emaitza da. Bizitza-planek komunitateko kide izatearen eta eskuratzearen zentzu handia dute, eta ibilbide-orria dira; horren inguruan artikulatzen dira eskualdea eraikitzeko gizarte-ahalegin guztiak.

- Nekazarien tokiko nekazaritza ekologikoko merkatuak eta, oro har, merkatu-ratzekoak diseinatzeko eta haietara sartzeko tresnak indartzea.
- Komunitateko buruen eta erakundeek antolaketa – eta kudeaketa-konpetentziak indartzea.
- Administrazio – eta kontabilitate-kontrolak indartzea.

Ikusten da hobetu egin behar direla pentsamendu estrategikoko konpetentziak. Eta horrek eskatzen du, aldi berean, esperientziak sistematizatzeko eta haietatik ikasteko konpetentziak hobetzea, gure erakundeetan prozesu estrategikoen ikuspegiarantz egin dezagun, eta, aldi berean, proiektuaren ikuspegiarantz.

Aipatu diren prozesuak babestuta, ezagutzak eskuratu dira helburu hauetarako:

- Enpresa-plangintzako tresnen erabilera (diagnostikoa, plan operatiboa, kontrola, antolara).
- Plangintzak egiteko eta kudeatzeko tresnen erabilera: plan operatiboak, aurrekontuak.
- Merkatuaren aurreingarritasunaren azterketen garapena: merkaturatze-prozesua eta publizitatea (merkatu-azterketak, modu sinplean, baina sektorea aztertzeke beste).
- Aukera ekonomikoen diagnostikoa.
- Etekin produktiboaren neurketa.

Horretaz gain, **maila produktiboan garapen-erantz sortzeko konpetentziak** sortu dira, prozesu hauek babestuta:

- Nekazaritza-ekoizpen ekologikoko gaitasuna indartzea, ezagutza teoriko-praktikoaren bidez, familia-ekoizpenari eta merkatua sortzeari aplikatuta.
- Garapen jasangarrirako konpetentzia tekniko-produktiboak indartzea, elikadura-segurtasunaren eta – burujabetzaren esparruan.
- Elikadura-segurtasunaren eta – burujabetzako familia-prozesuak eta prozesu kolektiboak sortzeko konpetentziak hobetzea.
- Natura-ondasunen erabilera arduratsua hobetzea; adibidez, basoberritzea.

Hala ere, ikusi da hobetu egin behar direla produktibitateari dagozkion konpetentzia teknikoak. Aipatu diren prozesuak babestuta, ezagutzak eskuratu dira helburu hauetarako:

- Elikadura-segurtasunari eta – burujabetzari lotutako nekazaritza-ekoizpen ekologikoa.

- Kafearen nekazaritza – eta basozaintza-sistemen erabilera ekologikoa: Alearen onura heze eta lehorreko prozesuak; kafea txigortzeko, ehotzeko, ontziratze-ko eta produktu amaitua bidaltzeko prozesua.
- Bananondo organikoaren eta kakaoaren sistema produktiboen nekazaritza-erabilera ekologikoa.
- Karta geografikoen irakurketa eta lurzoruaren erabileraren mapak egitea.
- GPSaren eta altimetroaren erabilera.

Esperientziek erakutsi dute hainbat ekoizlek lehen, eskualde bakoitzeko bitartekariak ezartzen duten lan-banaketa dela eta, galarazita zeukaten zenbait lan-alderdi eskuratu dituztela. Eskura dituzten ekoizpen-bitartekoen bidez, haien nortasuna sendotu eta diru-sarrerak hobetzen dituzten lan egiteko modua izan dezakete. Produktioari balioa eransteko prozesuak eskuratzen dituzte. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da gaitasunak garatzen jarraitzea gure eredu produktibo-sozial eta kulturalarekin harmonian sortzen dugunari balioa erantsiko dioten ekoizpen-teknikak eta – moduak eskuratzeko eta gure produktuak eta zerbitzuak txertatzen (merkatuan edo merkatuetan) ditugun testuinguruak aztertze-ko konpetentziak garatzen jarraitzea.

4G. Moldatzeko eta berritzeko gaitasuna

Ezagutza-motak batzeko konpetentziak sortu dira, oinarri hauek dituzten prozesu berritzaile eta sortzaileak babestuz:

- Jakintzen eta egiteko modu berrien onarpena (ekoizpen-teknika jasagarriak); hala, biodibertsitatea berreskuratu eta aberastasun hori kontserbatzen da, eta balioetsi eta arduraz erabili.
- Enpresa – eta gizarte-ekintzailatza: jarduera kolektiboa, zerbait berria sortzeko.

Laguntza horren bidez, ezagutzak eskuratu dira ekimen berriak identifikatu eta prestatzeko eta proiektu produktiboak prestatu eta negoziatzeko. Hala ere, ikusi da gehiago eragin behar dela erresilientzia konpetentziaren eta gaitasunaren garapenean, prozesu ekonomiko-produktiboen jasagarritasunean aurrerapausoak egiteko.

4. irudia. COMPARTEren esperientziek garatutako gaitasun kolektiboen grafikoa, politiko-soziala kategoriari dagokiona



II. kategoria: Politiko-soziala

1G. Konpromisoa hartzeko eta garapen-jardueratan aritzeko gaitasuna

Komunitateak parte hartzeko eta antolatzeko konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Segurtasuna hobetzea, taldeak zuzentzeko eta bideratzeko eta taldean lan egiteko, jendea motibatzen eta zereginak eta funtzioak eskuordetzeko.
- Konpromisoaren esanahia hobetzea.
- Gizarteko nekazaritza – eta arrantza-ekoizle buruek antolatzen eta elkarteak osatzeko dituzten gaitasunak hobetzea.

Prozesu horiek garatuta, gaitasunak garatu dira lurraldean bertan eta sektorearen ekoizpen-interesen mailan komunitateak antolatzen.

3G. Harremanak izan eta babesa eta baliabideak lortzeko gaitasuna

Indar eta eragin politikoa izateko konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Subjektu politikoaren baldintza eta ekoizleen, nekazarien, gazteen eta emakumeen eskubideak indartzea.
- Politikan eragiteko mailak, tresnak eta estrategiak indartzea eta eragile komunitarioen eskubideen eskaria indartzea tokian-tokian eta eskualdean erabakiak hartzen dituztenen aurrean.
- Parte hartzeko eta eragiteko gaitasuna indartzea, Estatura iristeko mobilizazioaren eta parte-hartze barneratzailearen bidez.
- Eragiteko gaitasuna, besteak inspiratzeko eta gu inspiratzeko eraldaketa-gaitasuna hobetzea.

Prozesu horiek babestuta, garapenari buruzko erabakiak hartzen dituzten udal-espazioetan, batzordeetan eta itunak egiteko espazioetan parte hartzeko eta eragiteko gaitasunak garatu dira; halaber, ezagutza tradizionalak taldean baloratzeko espazioetan ere.

Horretaz gain, **sareak eta itunak sortzeko konpetentziak** sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Komunitateko eragileek tokiko demokrazia eraikitzekeo estrategiak indartzea.
- Kanpo – eta barne-estrategien itunak eraikitzekeo gaitasuna hobetzea, baterako helburuak lortzeko, bai gizarte-erakundeei eta ekoizleen erakundeei dagokienez, bai tokiko erakundeei eta gobernuz kanpoko erakundeei dagokienez.
- Sareak eta itunak negoziatzeko eta eraikitzekeo gaitasunak hobetzea.
- Itunak sortzea, merkatuetan eragiteko, ikusarazteko eta txertatzeko.

Gaitasunak garatu behar dira lurraldean eragin handiagoa duten proposamenak sustatzeko ekoizpenean, merkaturatzean eta kontsumoan. Ikusten da eragile artean biltzeko eta negoziatzeko gaitasun handiagoa sortu behar dela epe ertain-luzera, eta lurraldea hartu behar dela ekimen ekonomiko-produktiboen jarduera-esparrutzat. Erronketako bat da ekoizleei eta nekazariei aukerak ematea, esperientzia mikroetatik eragin handiagokoetara jo dezaten. COMPARTEn, alde handiak daude eragileekin egin diren itunei dagokienez, eta horiek testuinguruen, une historikoaren eta esperientziaren arabera dira.

Prozesu horiek babestuta, helburu hauetarako konpetentziak garatu dira:

- Sektoreari dagokionez, udal – eta eskualde-eremuetan lurraldea artikulatzea eta koordinatzea.
- Erakundeen artean gaikako sareak sortzea eta merkaturatzeko bideak arakatzea.
- Komunitateko erakundeak koordinatzea eta ituntzea, eta horiek lurraldeak babesten dituzten beste erakunde batzuekin, bai gizarte-erakundeekin, bai gobernu-erakundeekin.
- Akordioak egitea eta mekanismoak bilatzea erakundeei talde-arloan laguntzeko eta koordinakundeei, kolektiboan.

4G. Moldatzeko eta berritzeko gaitasuna

Azterketak egiteko konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- “Errealitateari begiratzea” zabaltzea: errealitatearen azterketa kritikoa egiteko gaitasuna hobetzea maila guztietan, erabakiak hartzeko. Testuinguruaren azterketa eta irakurketa.
- Azterketak egiteko gaitasuna hobetzea, eta genero-ikuspegia ere txertatzea: emakumeei eragiten dieten baldintza bereziak, genero-rolak, erabakiak hartzeko gizonak eta emakumeak dituzten kokapenak eta aldaketarako erresistentziak identifikatzea.
- Segurtasuna hobetzea, erabakiak hartzeko.

Ikusten da, halaber, ilusioa piztu behar dela, eta imajinarioak sortu, jendea mugitzeko, nola zehaztu jakin ez arren ere. Genero-harremanei buruzko hausnarketa zabalagoa eragiteko beharra (botere-harreman desorekatuak gizon-emakumeen artean) eta zainketen ekonomiari buruzko hausnarketa txertatzeko beharra ere ikusten da.

Aipatu diren prozesuak babestuta, ezagutzak eskuratu dira mikro eta makro eskalan errealitate ekonomikoaren, politikoaren eta sozialaren azterketa kritikoa egiteko eta emakumeak agertu dituzten beharrei, eskubideei eta arazoei erantzuteko.

5. irudia. COMPARTERen esperientziek garatutako gaitasun kolektiboen grafikoa, kategoria psikologikoari dagokiona



III. kategoria: Psikologikoa

1G. Konpromisoa hartzeko eta garapen-jardueratan aritzeko gaitasuna

Auto-ezagutzara daraman lidergorako konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Autonomia-gaitasuna eta lurralde batekoa izatearen eta giza, kultura – eta natura-ondarea izatearen zentzua hobetzea. Lurraldetik ikuspegi partekatua eraikitzeko gaitasuna hobetzea (nortasuna, autoestimua, etab.), tokiko ja-kintzak sarituz.
- Aldaketarako motibazio-gaitasuna indartzea, bai laguntza ematen diegun erakundeetan, bai jendearengan.
- Bizi-baldintza hobeen eraikuntza udalerrri bakoitzean parte – hartzearen bi-dez osatzeko motibazioa eta interesa hobetzea.

- Lidergo positiboa indartzea: banakoaren eta antolaketaren lidergoa, pentsamendu estrategikoan, ignaziotarrean, emozio-adimenean, gobernagarritasunaren onean oinarritua; gainera, aktiboa eta eraldatzailea da (“beste su batzuk pizten dituen sua”).
- Jendearen gaitasunak aitortzea eta haien autoestimua areagotzea.

Ikusten da jendearen ezagutzei balioa ematen dieten eta kide izatearen zentzua garatzen duten prozesuak eta kolektiboarekiko eta lurraldearekiko konpromiso-gaitasuna babestu behar direla. Autoestimua garatzen duten prozesuak, jendearen eta erakunde komunitarioen ezagutzak, jakintzak eta esperientziak baloratu eta haien askatasun pertsonal eta kolektiboa sustatzen dituztelako.

4G. Moldatzeko eta berritzeko gaitasuna

Barne-elkarrizketarako eta sormenerako konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Pertsonen arteko elkarreraginak, eraikuntzan diren itxaropena eta konfiantza hobetzea, oinarri antolatutik.
- Taldean lan egiteko gaitasuna hobetzea baterako helburuak daudenean.
- Sentiberatasun-gaitasuna hobetzea bizi diren ingurune hurbilaren ingurumen-zainketari dagokionez.
- Emakumeek eta gazteek ekoizpen prozesuetan, parte hartzeko prozesuetan eta gizarte-lidergoko prozesuetan duten jarrera hobetzea eta imajinarioak aldatzea.

Aldaketak onartu eta haietara moldatzeko (erresilientzia) eta horretan izaten diren erresistentziak ezagutzeko gaitasuna garatu behar da.

5G. Koherentzia aniztasunaren bidez orekatzeko gaitasuna

Paradoxak eta aniztasuna kudeatzeko konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Akordioetara eta adostasunera iristeko, gatazkak ebazteko eta ekintzak estrategikoki lehenesteko gaitasuna hobetzea.
- Aldeekiko errespetuzko jarrerak eta bizikidetza hobeto garatzea.

6. irudia. COMPARTERen esperientziek garatutako gaitasun kolektiboen grafikoa, zentzua eta harmonia kategoriari dagokiona



IV. kategoria. Zentzua eta harmonia

1G. Konpromisoa hartzeko eta garapen-jardueratan aritzeko gaitasuna

Auto-onarpenerako (nortasuna) eta espazio propio lortzeko konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Jarduten dugun kalteberatasun-egoeretan edo gizarte-bazterketako egoeretan askatasun ekonomikoa irabazteko borrokek espiritualtasunetik izan behar dituzten askatasun-nahiak sortzea edo aktibatzea. Askatasuna irabazteko, auke-rak sortzeko espazioak konkistatzeko gaitasuna.
- Sistema produktiboko eta ingurumen – eta kultura-ondareko erreferente ez-materialak, sinbolikoak, zentzuak eta gizarte-harremanak indartzea.
- Espiritualtasuna eta barne-hazkundera indartzea, balio ekologiko eta komunitarioetara eta familia-balioetara bideratuta.

Ikusten da ikusgarritasunaren arloan gaitasuna sortuko duten eta gure barne-ikusgarritasunari eta – hazkundeari lagunduko dioten prozesuak sustatu behar direla, barne-arrakastatik hasi behar baita. Nortasunaren, mundu-ikuskeraren, espiritualtasunaren eta balio etikoen alde ere egiten da; arlo guztietan egon behar dute, zehar-lerrotzat.

4G. Moldatzeko eta berritzeko gaitasuna

Auto-hausnarketarako, ideia berriak txertatzeko (sormena) eta naturarekin harreman harmoniatsua izateko konpetentziak sortu dira, prozesu hauek babestuz:

- Elkartasunezko ekonomiaren eta elikadura-burujabetzaren ikuspegiak ulertzea eta inplementatzea.
- Emakumeen eta haien inguruaren ikuspegia aldatzen duten gaietan sakontzea, hala nola genero-ekitatean.
- Hainbat ikuspegi sustatzea lurraldeen egoera aldatzeko alternatibatzat; adibidez, komunitatearen enpresa-izaera, merkataritza alternatiboa eta kontsumo arduratsua.

4. kapitula

Alternatiba ekonomiko-produktiboak inplementatzeko gaitasunak garatzeko estrategiak



4.1. SARRERA

Aurreko kapituluan, COMPARTEn aztertu ditugun jendearengan eta erakundeen-
gan esperientzia ekonomiko-produktiboen bidez garatzen lagundu ditugun gaita-
sun nagusiak ikusi ditugu. Jarraian, ikusiko dugu zer estrategia erabili ditugun gai-
tasun horiek sortzeko esperientzietako zenbait prozesutan; esperientzia horiek,
gainera, laguntzen ari dira arlo ekonomiko-produktiboko alternatibak eraikitzen.

Nahiz eta hemen jaso ditugun baino estrategia gehiago egon daitezkeen, abian
jarri diren sei identifikatu ditugu (prestakuntza teknikoa eta giza prestakuntza;
berrikuntza eta garapen teknologikoa; gizartearen eta lanaren antolaketa; kali-
tatearen plangintza eta kudeaketa; sistematizazioa-ikerketa, eta eragin politiko
eta soziala), eta ezaugarri bereizgarri batzuk ditu horietako bakoitzak. Hala ere,
elementu hauek partekatzen dituzte guztiek:

- Oinarrian lan egiten den taldeei, erakundeei eta kolektiboek **laguntzeko** ideia argia dago. Laguntzea entzutearen, elkarriketaren eta etengabeko babesa-
ren bidetzat ulertzen dugu, eta bi aldeek elkar aberastu ez ezik, elkarri gal-
derak ere egiten dizkiete. Kontua ez da ordezte, baizik eta bidea elkarrekin
egitea. Azken helburua da gure lanaren hartzaille diren pertsonak, komunita-
teak eta taldeak ahalduntzea (ALBOAN, 2011).
- **Prozesu**-dinamika batean txertatzen dira, eta horrek eskatzen du kontuan
izatea prozesuak zer errealitatetan eta testuinguruan gauzatzen diren; mal-
guak dira eta testuinguruaren ezaugarrietara moldatzen dira. Aldi berean,
kontuan izan behar da prozesuak dinamikak sortzea eskatzen duela; dina-
mikak iraunkorrak izan ohi dira, eta haien ezaugarria da berariazko helburu
batera bideratzen direla. Hau da, estrategiak prozesu batean txertatzen dira,
eta prozesua bitartekoa eta bere baitako helburua da aldi berean.
- Erlazioak dituzte elkarrekin, eta ezin dira isolatutzat ulertu. Horiek horrela,
begirada sistemikoa behar da estrategia horiek aztertzeko.

Jarraian, estrategia bakoitzaren deskribapena jaso dugu, lortu dugun sakontze-mailaren arabera. Lehen hiru estrategien analisisan (prestakuntza teknikoa eta giza prestakuntza; berrikuntza eta garapen teknologikoa, eta gizartearen eta lanaren antolaera), esperientzietan, ikaskuntzetan eta lorpenetan izan diren prozesuen zailtasun batzuk jaso dira. Horrela egin dugu ahalik eta gehien jasotzeko zer erronka landu behar diren estrategia bakoitzetik alternatiba ekonomiko-produktiboak eraikitzen aurrera egiteko. Azken hiru estrategietan (plangintza eta kalitatearen kudeaketa, sistematizazio-ikerketak eta eragin politiko eta soziala), berriz, ez da hain xehea azterketa, gutxiago sakondu baita. Lan hori COMPARTERen komunitatearen hurrengo hausnarketetan egin beharko da.

4.2. ESTRATEGIA 1. PRESTAKUNTZA TEKNIKOAK ETA GIZA PRESTAKUNTZA

COMPARTERentzat, prestakuntza-estrategiak gaitasunak garatzearen ardatza dira. Gainerako estrategiekin artikulatzen dira, eta prozesuetan txertatu behar dira, helburu zabalak, iraunkorrak eta osotasun ikuspegia dituztela. Horri dagokionez, edozein hezkuntza-jarduera egiten hasi aurretik, identifikatu behar dugu zer prozesutan esku hartu nahi dugun eta zer aldatu nahi dugun, hortik abiatuta, errealitate eta testuinguru bakoitzerako prestakuntza-estrategia egokia diseinatzeko (ALBOAN, 2011). Estrategia horretan, hauek jaso behar dira gutxienez: zer kolektibo estrategikorekin lan egiten dugun eta zer eduki eta metodologia erabiltzeko ditugun prestakuntzan.

Aztertu diren esperientziek prestakuntza-proposamenak jaso dituzte, eduki eta metodologia eta guzti, eta bilatzen dugun alternatibotasunaren ezaugarri hori dute. Helburua ezagutzak eskuratzea eta kompetentziak, trebetasunak eta jarre-
rak garatzea da. Halaber, zailtasunei, ikaskuntzei eta lorpenei buruz hausnarrarazi dugu, eta etorkizuneko prestakuntza-estrategien diseinua hobetzen lagunduko digute, gure lanaren hartzailerik diren kolektiboek eta taldeek dagokienez ez ezik, baita gure erakunde eta taldeek dagokienez ere.

4.2.1. EDUKIAK

Prestakuntzen edukiak lau dimentsiotara (ekonomiko-produktiboa, antolaketa, soziopolitikoa, zentzua eta harmonia) bideratu dira, eta, elkarrekin, arlo ekonomiko-produktiboko proposamen alternatiboak eraikitzen laguntzen dute.

a. Dimentsio ekonomiko-produktiboa

- Nekazaritza ekologikoa eta elikadura-segurtasuna: lurzoruen ekologia, nekazaritza-teknika ekologikoak, izurriteen erabateko irtenbidea, etab.
- Nekazaritza eta basozaintza.
- Nekazaritza eta abeltzaintza: esne-behiak eta esnekien eraldaketa.
- Baso-kontserbazioa.
- Merkatuaren funtzionamendua eta haren azterketa kritikoa: produkzioa, eraldaketa eta merkaturatzea.
- Mikrofinantzak.
- Elkartasunezko ekonomia.
- Produktibitatea hobetzeko tresnak: prestakuntza tekniko eta produktuen kalitatea bilatzeko prestakuntza.
- Uraren kudeaketa integrala.

Gainera, funtsezkoa da ingurumenaren ikuspegia ekoizpen-alderdiei buruzko prestakuntzan, natura zaintzeko eta errespetatzeko kultura eraikitzen laguntzen baitu. Gure ustez, ingurumen-elementuak ekoizpen-formei datxekizkie, eta, beraz, ekoizpen-prozesurako prestakuntzaren oinarria ez da soilik nola erabili teknikak eta areagotu ekoizpena, teknologikoki eta ingurumenari dagokionez jasangarria den ikuspegitik nola egin ere bai baita. Horretaz gain, funtsezkoa da genero-ikuspegia gizon-emakumeen artean berdintasunezko harremanak izateko; hain zuzen, esperientzietan identifikatu den elementu berritzaile bat da areagotu egin dela genero-arloei buruzko prestakuntza. Ekoizpen-proiektu asko emakumeei zuzentzen zaizkie; proiektu horien bidez lantzen da autonomia ekonomikoa izateko aukera, eta horrek eragina du haien harreman-moduetan, errealitatea irakurtzeko moduan, ahaldundutako moduan... Onartzen dugu, halaber, sakondu egin behar dela generoaren osoko prestakuntzan, eta feminitate eta maskulinitate tradizionalai buruzko hausnarketa sustatuko duten edukiak izan behar ditu. Kolektiboen mundu ikuskeraren barruan kokatu behar dira, eta gizonei nahiz emakumeei bideratu. Zainketaren ekonomiari eta gizartea ugaltzeko lanari buruzko edukiak ere txertatu behar dira.

b. Antolaketa-dimentsioa

- Botere-harremanak, lidergoak eta komunitate-antolaketa. Lidergo demokratikoak eta horizontalak.
- Eragin politikoa.
- Gizon-emakumeen arteko botere-harremanak eta genero-berdintasuna.
- Erakundea indartzea: plangintza estrategikoa, plangintza eragilea, proiektuen formulazioa, administrazio – eta kontabilitate-kontrola, kudeaketa teknikoak, finantza-kudeaketa eta giza baliabideen kudeaketa.
- Testuinguruaren azterketa (kontsultak eta diagnostiko parte hartzaileak) eta formulazio estrategikoa.
- Norbere kultura eta nortasunari balioa ematea, pertsonaren eta taldearen autoestimua garatzea, nortasunaren eraikuntza kolektiboa.

Argi ikusten da indartu egin behar dela antolaketa-dimentsioaren prestakuntza, arlo horretan dauden gabeziek porrotera eraman baititzakete esperientzia ekonomiko-produktiboak.

c. Dimentsio sozio-politikoa

Eduki hauek mundua ulertzen laguntzen dute, arlo globalaren eta tokikoaren arteko erlazioak, eta gertatzen denari buruzko ikuspegi konplexu eta osoa ematen dute.

- Gizarte – eta ekonomia-harremanak.
- Eskualdeko, nazioko eta nazioarteko testuingurua.
- Testuinguruaren azterketa.
- Eragina eta lidergoa.
- Giza eskubideak eta herrien eskubideak; nazioko eta nazioarteko esparru juridikoa.
- Lurralde-plangintza (bizi-planak, udalak garatzeko planak, eta lurralde-antolamenduko planak, besteak beste).
- Estatuaren egitura.
- Hauteskunde-dinamikak.
- Gizarte-kontrola.
- Parte hartzeko mekanismoak eta eskariak.

d. Zentzuaren eta harmoniaren dimentsioa

Eduki hauek pertsonaren barne-hazkundearen alde egiten dute, eta prozesuen faktore erabakigarriak dira gizarte hobea eraikitzeko. Eduki horiek espiritualtasun ignaziotarrean inspiratzen dira eta ateak irekitzen dizkie transzendentzia ulertzeko eta harekiko harremana ulertzeko askotariko moduei. Horri esker, bar-netasunera hurbildu daiteke.

Lau dimentsioetarako, prestakuntzako zehar-lerro batzuk daude, eta hauek dira: (a) kultura arteko ikuspegia, komunikazioa eta elkarrekiko errespetua hobetzeko; (b) genero-ikuspegia, gizon-emakumeen arteko harremanak berdintasun-baldintzetan izan daitezen; (c) ingurumenaren ikuspegia, natura zaintzeko eta errespetatzeko kulturaren eraikuntzari ekarpena egiteko, eta (d) herritarren parte hartzea unitate produktiboen barruan eta kanpoan, askatasunaren erabilera eta erabakiak hartzea sustatzeko.

4.2.2. METODOLOGIAK

Metodologia osagarriak erabiltzen dira, eta, nagusiki *Herri-hezkuntza* eta *Nekazariz nekazari* lanetako ikuspegietan oinarritzen dira. Lehenengoa komunitateen jakintzetan eta esperientzietan, errealitatean, errealitatearen azterketan... oinarritzen da, eta haren praktikari buruz hausnartzen du, baterako alternatibak bilatuz eta esperientzia berriak eta jakintzak kolektiboak eraikiz. Taldeen eta komunitatearen arteko trukeak sustatzen ditu bigarrenak, esperientziak eta jakintzak partekatzeko. Hala, nekazariak sustatu eta bideratuko dute prozesua beren komunitateetan, beren esperientzietatik abiatuz. Bien abiapuntua jakintzen elkarrizketa da, ikasteko modu onena egitea dela dioen ideia, eta prestakuntza teorikoa nahiz praktikoa ematen dituzte. Taldeen erabakiak eta prozesuak errespetatzen dira, eta beren erritmoan ematen zaie laguntza.

Dimentsio produktiboko prestakuntzari dagokionez, lursail-eskolak erabiltzen dira nekazaritza-teknikekin esperimentuak egiteko, eta ezagutza teknikoak ekoizleen esperientzietatik garatzen dira, haien arrakasta eta akats eta guzti. Lursail-eskola horiek ikerketa aplikatua egiteko erabiltzen dira zenbait kasutan; hala, ekoizleen trebetasunak eta konpetentziak hobetu eta haien konpromisoa sustatzen da. Horretaz gain, ekoizleen artean eta ekoizleen eta nekazaritza-munduko profesionalen artean ezagutza eta esperientziak partekatzea sustatzen da, ikaskuntzan sakontzeko eta lorpen handiagoak lortzeko; adibidez, jardunaldi kolektiboetatik eta komunitatean, udalean eta eskualdean egiten diren biretatik. Horren azken

helburua da izakien eta jakintzen arteko elkarriketa sustatzea, “bestearengandik ikasteko”, formala ez den horretatik, bertako ezagutzatik (biopedagogia).

Prestakuntzarekin batera, laguntza tekniko pertsonalizatua ematen dute teknika-riek eta nekazaritzaren sustatzaileek ekoizleen lurretara aldian-aldian egiten dituzten bisitetan.

4.2.3. ZAILTASUNAK, LORPENAK ETA IKASKUNTZAK

Prestakuntza-prozesuetan hauteman ditugun **zailtasun** nagusiak, eta, horrenbestez, **ikaskuntzak** hauek dira:

- *Hezkuntza-prozesuen eta gizarte-prozesuen arteko lotura eta jarraitutasun eza*: arriskua dago prestakuntza-prozesuetan parte hartzen duten pertsonak bere egin ez dezaten beren errealitatea aldatzera bideratutako praktika eta rola. Hau da, prestakuntzak dagokion eragina ez izateko arriskua dago, dela erakundean bertan, komunitateetan edo gizarte zibila-Estatua harremanean.
- *Egiteko modu berriei buruzko hasierako mesfidantzek antolaketa – eta ekoizpen-sistema berriak eraikitzea oztopatzen dute*: ezagutza berriak arbasoen ezagutzekin lotzen dituzten prestakuntza-prozesuak garatu behar dira, komunitatean praktikan jartzean, onura kolektiboak lortzeko baliagarri direla erakusten dutenak.
- *Teknikariak eta laguntzaileak irakasteko modu tradizionalak erabiltzeak ikaskuntza partekatua zailtzen dute*: irakasteko jarrera berriak sortu behar dira, prestakuntza egiazko ikaskuntza-prozesua izan dadin bai ekoizleentzat bai teknikari eta laguntzaileentzat.
- *Balioetan eta konpetentzian prestakuntza eskasa izatea*: konpetentzien ikaskuntza txertatu behar da laneko malgutasuna, enpatia, tolerantzia, entzutea, negoziazioa... txertatzeko.

Prestakuntzen bidezko **lorpenei** dagokienez, hauek aipa ditzakegu:

- *Dimentsio produktiboko lorpenak*: (a) familia ahulenen autoestimua areagotzea diru-sarrera propioak lortzeko bitartekoen/ekimenen bidez, bereziki emakumeen kasuan, ekimen ekonomiko propioak garatu eta, hala, independentzia ekonomikoa lortzen baitute; (b) hobeto erabiltzea sektoreko produktuak eta teknikak, eta hobetzea produktibitate-mailak, produktuen

kalitate-adierazleak eta ekoizpenaren eta merkaturatzearen kalitatea egiaztatzeko gaitasuna; (e) autonomia eta independentzia handiagoa ekoizpean, berek hornitzeko elikagaiez, eta (f) ekonomia sustatzeko batzordeak sortzea tokiko dinamikaren zatitzat.

- *Lorpenak antolaketaren dimentsioan eta dimentsio soziopolitikoan*: (a) sinergiak sortu dira gizarte zibil antolatuko askotariko eragileekin, eta bizia eta sendotasuna ematen diete alternatiba ekonomiko-produktiboei; (b) lidergo-gaitasunak indartu dira; (c) parte hartzeko espazioak sortu dira, erabakiak hartzeko (gizartearen oinarriak parte hartzeko espazioak); (d) pertsonak ahaldundu dira, eta haien autoestimua eta talde-ikuskera nahiz banakoarena hobetu; (d) antolatzekeo beharraz gehiago jabetu dira, baita horrek baterako helburuak lortzeko dituen abantailez ere; (e) hobeto ulertu dute sistema kapitalistaren logika eta haren eraginei eta megaproiektuei aurre egiteko eta haiek jasateko alternatibak eraikitzekeo beharra; (f) hobeto ulertu dute Estatuaren egitura eta funtzionamendua, zuzenbidearen araberako harremanak finkatzeko, eta (g) genero-berdintasunaren azterketari eta maskulinitate berrien eraikuntzari buruzko sentsibilitate handiagoa lortu dute, edo, behintzat, arlo horri buruz hausnartzen hasi dira, baita antolaketaprozesuetan emakumeen protagonismo eta parte-hartze handiagoa izateari buruz ere.

Azkenik, kontuan izanik aztertu diren esperientziak eta Latinoamerikako Probintzial Jesuiten Biltzarrak (CPAL) Latinoamerikako Herritarrentzako Prestakuntza Politikoko Eskolen (EFPC) bidez egin duen proposamena, uste dugu hiru dimentsio izan behar dituela kontuan prestakuntza alternatiboko edozein prozesuk (ALBOAN, 2011: 40):

- *Ezagutza berriak eskuratzea (“ulertzea”)*: produkzioari, antolaketari, politikari, kulturari, gizarteari... buruzko ezagutzak sortzea.
- *Balioak sustatzea (“izatea”)*: garapen kolektiboarekiko konpromiso pertsonala, giza eskubideen errespetua, “besteekiko” erlazioan jarrera konstruktiboak (tolerantzia, enpatia, entzutea, elkartasuna, etab.) eskuratzea bultzatuko duten balioak sustatzea.
- *Ikasitakoa praktikara eramatea (“egitea”)*: ikaskuntza motibatzea, praktika-ren bidez (arrakastak eta porrotak izango ditu), eta aldaketa eragingo duten eragileak prestatzen laguntzea.

4.3. ESTRATEGIA 2. BERRIKUNTZA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOA

Berrikuntzaren ideia zabala dugu, teknologia berriak txertatu eta ezagutzak eskuratzetik harago doana. Beste proposamen batzuekin lotuta dago; adibidez, eskuarki baztertu ohi diren kolektiboekin lan egitea, ikuspegiak berritzea (generoa, jasangarritasuna, kultura artekotasuna, elkartasunezko ekonomia, kudeaketa berria), tokian tokiko jakintzak berreskuratzea eta garapen teknologikoa. Aztertu ditugun esperientzietan oinarrituz, mintzagai dugun berrikuntzak tokiko jakintzak eta kanpokoak (garapen teknologikoaren bidezkoak) eraginkortasunez artikulatzearen alde egiten du, produkzio-sistemak hobetzeko; hau da, ulertzen du jakintzak eta egiteko moduak bateratu behar direla ekimen ekonomiko-produktiboen produktibitatea hobetzen duten estrategiak eta praktikak berreskuratzeko. Horiek horrela, bi oinarrizko ardatzetan dute zentzu berrikuntza eta garapen teknologikoaren estrategiak: (a) tokiko jakintzak berreskuratzea eta (b) teknologia/metodologia berriak txertatzea.

4.3.1. TOKIKO JAKINTZAK BERRESKURATZEA

Ulertu behar da berrikuntza beti ez dagoela kanpoan, eta komunitateen eza-gutzek berrikuntza-estrategiak sor ditzaketela. Kontua da belaunaldien arteko elkarrizketari bide ematea, adindunen esperientzia eta jakintzak berreskuratzeko, emaitza praktiko eta funtzionalak ematen dituztenak; adibidez, bertan uzta erieteko moduak eta bertako haziak berreskuratzea. Nekazariz nekazari eta Herri-hezkuntza metodologiaren ikuspegiak gakoak dira hori berreskuratzeko; izan ere, komunitateen jakintzak eta esperientziak dituzte abiapuntu eta ekoizleen arteko ezagutzak eta esperientziak trukatzeko sustatzen dute.

Gure esperientzian oinarrituz, baieztatu dugu beharrezkoak direla ezagutzez hitz egiteko eta lankidetzan aritzeko espazioak honelako berrikuntzak lortzeko: (a) ezagutzak igortzen dituzten lursail-eskolak; (b) ekoizleen eta erakundearen arteko topaketak eta trukeak; (c) enpresa – eta merkataritza-azokak, eta (d) komunitateko batzarrak eta lantaldeak.

4.3.2. TEKNOLOGIA/METODOLOGIA BERRIAK TXERTATZEA

Teknologia berriak txertatzeak berrikuntza teknologikoa dakar, baina lurraldeak nortasun-espazio izan behar du. Kontua da teknika, makina eta tresna berriak sartzen direnean, taldeek eskuratzeko perspektiba behar dela, erabili, kontrolatu eta mantendu ditzaten. Garrantzitsua da berrikuntza teknologikoa, teknologia

arruntek ez baitute beti produktibitate handia ematen; hala ere, teknologia arruntak nagusitzen dira, oraindik, zenbait sektoretan. Horiek horrela, haien garapenari bide eman edo oztopoak jartzen dizkieten faktoreak daude.

Teknologia berriak txertatzea zailtzen duten faktoreak

Hauek dira, besteak beste, teknologia berriak txertatzea zailtzen duten faktoreak: (a) ekoizleek aldaketarako, erronka berriak edo gauzak egiteko bestelako moduak beren egiteko duten beldurra, eta badirudi hori zaildu egiten dela gizonak ez duenean onartzen familiako kideek parte hartzea, bereziki emakumeak; (b) ekoizpen-sistema alternatiboak erabiltzeko edo sustatzeko gobernuak ematen duten babes txikia eta, horrenbestez, finantzaketarik eza; (c) laguntza teknikoak emateko eta azterketak egiteko sistema ahula, besteak beste, nekazaritza-ekonomietan garrantzitsuak diren sektoreei baliabide gutxi esleitzen zaizkielako; (d) ohiko sistemak indartzen dituzten politikak izatea gobernuak eta (e) ikerketa-zentroen parte-hartze txikia, tokiko baldintzetarako egokiak diren ezagutzak itun bidez ematen dituztenak.

Teknologia berriak txertatzen laguntzen duten faktoreak

Ekoizle, familia eta komunitateekiko elkarrizketa da teknologia berriak onartzea errazten duen faktore nagusia. Gakoa da onartzea beraiek direla garapenaren protagonista eta haien parte hartzea bermatzea proposamen teknologikoak balaratzeko orduan. Hausnarketarako espazioak sortu behar dira eta, tokiko jakintza eta esperientzietatik abiatuz, teknologia jakin batzuk txertatzeko aukera eztabaidatu. Horri buruzko erabakiak hartzeko behar beste informazio (kostuak, abantailak eta desabantailak) eman behar da. Hala, azkenean ekoizleek eta haien familiek erabakitzen dute erabil nahi dituzten ala ez beren ekoizpen-sisteman. Zenbait esperientziatan ikusi da, gainera, familiako emakumearen parte-hartzeak erraztu egiten duela berrikuntza teknologikoaren alde egitea, hark hartzen baititu oharrak, edo hobeto neurtu denborak prozesuan.

Ekoizleek biretan, trukeetan eta prestakuntza-lantegietan partekatzen duten esperientzia ere aldeko faktorea da. Partekatu egiten da ekoizleek abantailak ikusten dituztelako; adibidez, kostuak jaitsi egiten dira, eta autonomia lortzen dute elikagaien ekoizpenean. Produktuen kalitatearen ebaluazioek ere bidea irekitzen diete elkarrizketari eta jakintzen trukeari.

Ekoizpen-ekimenetan zenbait eragile artikulatzeak (Udalerriko erakundea, departamentukoa eta eskualdean jarduten duten gobernu-erakundeak eta gobernuaz

kanpokoak) eta jasangarritasun-estrategia bat definitzeak ere lagundu egiten dute berrikuntza teknologikoaren aldekoago agertzen.

Oro har, produktuen kalitatea hobetu dute teknologia berriak eta kudeaketa produktiboko teknikak txertatu dituzten esperientziek, eta ekoizpena areagotu.

4.3.3. ZAILTASUNAK, LORPENAK ETA IKASKUNTZAK

Estrategia hauek jarduera-eragiketa prozesu moduan sailkatu ditugun esperientzien prozesuetan aplikatzen dira nagusiki: (a) ekoizpena – eraldaketa, eta (b) banaketa – merkaturatzea.

Ekoizpen-eraldaketa prozesuak

COMPARTEK ekoizpen – eta eraldaketa-prozesuetan izan dituen zenbait esperientziaren (zailtasunak eta ikaskuntzak ekarri dituztenak) ibilbideari esker, ekoizpen-ekimenek aurrera egiteko eta denboran finkatzeko arrakasta-faktoreak identifikatu dira. Hauek dira aurkitu diren **arrakasta-faktore** batzuk:

- *Tokikoaren balioa sustatzen duten sistemak.*
- *Nekazaritza jasangarriaren ikuspegi sistemikoan oinarritzen diren sistemak.*
 - Sistemen erresilientzia-gaitasuna indartzea, eta elikadura-segurtasuna eta burujabetza sortzea: aniztasun ekologikoa.
 - Natura-ondasunen eraldaketan sentsibilizatzea.
 - Kanpoko ondasun kimiko eta biologikoekiko mendekotasuna murriztea.
 - Eskala txikia optimizatzea familia bakoitzak duen lurraren arabera, eta aukerak ematea belaunaldi berriek bizirik iraun ahal izateko egun dituzten baliabideei arazoizko erabilera emanez.

Garapen alternatiboaren funtsezko erronketako bat da nekazaritzarako kanpoko ondasun kimikoekiko (hazi hibridoak, ongarri kimikoak, intsektizidak, herbizidak eta erregai fosilak) edo biologikoekiko (bertako haziak, ongarri organikoak, mikroorganismoen populazioen egonkortzaileak energia-iturri alternatiboak) mendekotasuna murriztea, eta eskuragarri dauden edo egon daitezkeen baliabideak berreskuratzeko, optimizatzeke, kontserbatzeko edo areagotzeko gaitasuna

na indartzea. Hori egiteko, berritzeko (sistema konplexuak erabiltzeko konfiantza izanik), esperimentuak etengabe egiteko eta ekoizpen-prozesua eguneratzeko eta egiteko modua hobetzeko gaitasunak izan behar dira oinarri.

- *Produktuaren balioa sustatzen duten sistemak.*

- Balioa ematea produktuei, hasiberria bada ere. Eraldaketak kendu egiten dio lehengaiekin lan egiteak sortzen duen aldakortasuna (eta, askotan, zapalkuntza).

- *Ekoizpen-sistemen arteko osagarritasunari bide ematen dioten sistemak.*

- Diru-sarrerak sortzeko aukera handienak ematen dituzten ekoizpen-sistemak aukeratzea eta familiarentzat eta tokiko eremuarentzat elikagaien ekoizpena dibertsifikatua izateko aukera handiak ematen dituzten ekoizpen-sistemekin osatzea.
- Mikrokredituen sistemak artikulatzea tokiko ekoizpen-ekimenekin.
- Autohornikuntzarako dibertsifikatzea (vs labore bakarrean espezializatzea edo hori zabaltzea). Teknikariaren, nekazariaren, erakundearen eta komunitatearen harreman-modua.
- Familiak berak sostengatzeko gai izatea sustatzea.
- Beste sektore batzuekin harremanak izateko aukerak aztertzea eta sistematizatzea. Adibidez, tokiko, nazioko eta nazioarteko merkatuan txertatzeko azpiegiturak eman ditzaketen sektoreekin.

Adibidez, Piurako (Peru) esperientzian nekazaritza-ekoizpen ekologikoa, mistoa eta “iraultza berde” deritzona erabiltzen dira. Hirurek dute lekua Piura eskualdeko lurraldean. Bananondo Organikoaren Ekoizle Txikien Elkartearen Piurako Zentralaren Elkarteak, berriz, nekazaritza-ekoizpen ekologikoa soilik erabiltzen du.

- *Hainbat eragilerek itunak sustatzen dituzten sistemak eta erakundeak indartzea.*

- Gobernuaren babesa izatea ongarri organikoak txertatzeko.
- Itunak egitea enpresa pribatuekin merkaturatzeko (esportazioa) eta berrikuntza teknologikoa txertatzeko.
- Ekoizleen elkarteak sortzea eta GKEen laguntza izatea.

- Produktuak merkaturatzeko eta kontsumitzaileari zuzenean saltzeko itunak sortzea (adibidez, kafearen kasuan).
- Komunitatea politikoki definitzea.
- Prozesu ekonomiko-produktiboa garatzeko etapen araberako aholkularitza – eta ikerketa-espazioak sortzea; erakundeei aholkuak ematea.

Horretan oinarrituz, esan dezakegu zenbait eskualdetan frogatu dela nekazari-tza ekologikoko proposamenak bideragarriak direla bai ekonomikoki bai teknikoki (adibidez, kafearen, bananaren eta kakaoaren sektore produktiboetan), baita beste sektore ekonomiko batzuk ere, hala nola landa-turismoa. Baina esperientzia batzuek **zailtasunak** ere izan dituzte, eta produkzio-sistemek aurrera egitea eragotzi dute ekonomikoki eta teknikoki. Hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Ekoizpen handiak eta ahalik eta errentagarritasun handiena bilatzea.
- Bidezko merkataritzako edo ekoizpen organikoko ziurtagiriak lortzeko sistemen kostu handia.
- Inbertsio berriak finantzatzeko mendekotasuna.
- Ekoizpena eta sortzen diren izurriteen aurkako borroka hobetzeko beharra.

Agertu diren gainerako zailtasunek gizartearen eta lanaren antolaketari buruzko hurrengo estrategian aipatzen direnekin zerikusia dute.

Banaketa – eta merkaturatze-prozesuak

Banaketa – eta merkaturatze-prozesuetan badira produktuak merkaturatzea oztopatzen duten **zailtasunak**, eta **erronka** garrantzitsuak jartzen dituzte aurrean. Biei aurre egin behar diegu prozesu horietan parte hartzen dugun COMPARTEko erakundeek. Jasangarritasunarekin eta gizartearen eta lanaren antolaketarekin erlazionatutako irizpideei erantzungo dieten merkaturatze-bideen alde egin behar dugu.

- *Jasangarritasun ekonomiko eta teknikoaren kontuan hartzen duten merkaturatze-bideak.*

- Merkatuak zabaltzea, tokian tokiko gaitasunei jarraikiz: esku hartu behar da ekoizpena eta merkaturatzea zabaltzeko, tokiko eta eskualdeko

- alternatibak sustatzeko. Hazkunde bertikalari eta horizontalari erantzun behar zaio.
- Esportatzeko aukerak eta nazioko merkatua baliatzea. Merkaturatzeko estrategia konbinatua.
 - Kapitalizatzea eta inbertsioa funts propioekin sortzea. Ekoizpena dibertsifikatzea.
 - Udal-gobernuetan eragitea, udal-baliabideak inberti ditzaten halako ekimenetan.
 - Erregistro sanitarioak sortzea eta dagozkien ziurtagiriak lortzea.
 - Eraginak ebaluatu eta sistematizatzeko metodologia sortzea.
- *Tokikoaren balioa sustatzen duten merkaturatze-bideak.*
 - Tokiko ekonomia sustatzea askotariko eta elkarrekin erlazionatutako prozesuetatik abiatuz. Tokiko merkatua.
 - *Gizarte-ekonomiaren ikuspegiaren barruan sartzen diren merkaturatze-bideak.*
 - Eskualdeak ikuspegi berriak garatzearen alde egitea: elkartasunezko ekonomia, elikadura-segurtasuna, kontsumo arduratsua, etekinak gizartean inbertitzea.
 - Produktuaren osoko aberastasuna, ingurumen-, gizarte – eta kulturalitatea kapitalizatzea.
 - *Hainbat eragilerekin itunak sustatzen dituzten merkaturatze-bideak*
 - Itunak egitea prozesu beraren parte diren enpresa osagarriekin: lehen-gaien ekoizpena, eraldaketa eta merkaturatzea eta berrinbertsioa.
 - Esportatzea, produktu organikoen eta bidezko merkataritzako produktuen bideak baliatuz, adierazitako sinergien eta itunen bidez ezarrita.
 - Merkaturatzeko espazioak, prozesuak eta aholkularitzak sortzea.
 - *Ezagutza teknikoa sortzen duten merkaturatze-bideak.*
 - Ekoizpenerako, eraldaketarako, merkaturatzeko eta berrinbertitzeko gaitasuna eta laguntza teknikoa ematea osorik, pixkanaka eta aldian-aldian.

- Garapenaren alternatiben tokiko prozesuetan parte hartzea sustatzen duten bideak.
- Produktu jakin bat ez ezik, haren atzean dagoen prozesua eta proiektua ere sustatu behar da.
- Tokiko prozesuak aztertzeko, aholkularitza emateko eta erabateko ekarpena egiteko prozesuak sortzea, epe labur, ertain eta luzean zer konplexutasun izango duen kontuan izanik.

4.4. ESTRATEGIA 3. GIZARTEAREN ETA LANAREN ANTOLAKETA

Tokiko eta eskualdeko jasangarritasunek konpromiso eraginkorra izan dezaten, helburuei eta komunitatearen errealitateari doitutako antolaketa-sistemak behar dira. Horiek horrela, gizartearen eta lanaren antolaketaren estrategiak laguntzen diegun kolektiboaren antolaketa-dimentsioari erantzuten dio eta haien antolaketa-prozesuak indartzera bideratzen da. Antolaketa indartzeko, erakundearen barne-jarduna hobetuko duten gaitasunak sortu behar dira, hala nola, baterako proiektua garatzeko gaitasunak; eta erabakiak hartzeko espazio parte-hartzaileak sortu eta finkatu, ezagutzak eta lana banatu, gatazkak konpondu, baliabideak kudeatu... behar dira. Estrategia horren helburua da, halaber, kolektiboak eragile soziopolitiko eta sozioekonomikotzat indartzea, haien oinarritzko behar pertsonalei, antolaketa-beharrei eta komunitate-beharrei erantzuteko gai izango den indar politiko-ekonomikoa sortzeko; eta kontuan izan behar da, lan horretan, egiturak eraldatzeko borroka eta egiazko demokrazia eraikitzen lagundu behar da. Hori lotuta dago gizarte-aldaketak eragiteko, artikulatzeko eta ituntzeko gaitasuna sortzearekin.

Beraz, garrantzitsua da ekimen ekonomiko-produktiboak haiek sustatzen dituzten pertsonen zailtasunen eta kontrako egoeren erantzun antolatua ondu izatea. Hala, prozesu ekonomikoa bidea da, ez helburua. Prozesu soziopolitiko bihurtzen da, eta helburua da komunitatearen ongizatea hobetzea eta ez aberastasuna pilatzea ekoizpenaren bidez. Horiek horrela, hiru gako-alderditan oinarritzen dira ekimenak:

- Garapenerako alternatibatzat sortzen dira.
- Gizarte-boterea sustatzen dute, baliabideak eraginkortasunez kudeatzea baita helburua.
- Autonomia ekonomikoa sustatzen dute erabakiak modu kontzientean eta printzipio eta balio propioei jarraikiz hartzeko.

Horiek horrela, kontuan izan behar da COMPARTEn aztertutako esperientzia ekonomiko-produktiboak antolaketa eta artikulazio komunitarioaren, lurralde-artikulazioaren eta artikulazio sektorialaren prozesu zabalagoaren parte direla. Askotariko antolaketa-moduak hartzen dituzte, eta hiru bereizi ditzakegu: (a) erakunde komunitario eta zaharrak; (b) izaera ekonomiko-produktiboko erakundeak eta (c) erakundeen arteko itunak.

a. Erakunde komunitario eta zaharrak

Zenbait esperientziak, bereziki indigenen eta nekazarien komunitateetakoek, antolaketa produktiboa antolaketa komunitario eta/edo zaharretan finkatzearen alde egin dute. Antolaketa horiek izen eta ñabardura batzuek dituzte testuinguru bakoitzeko erabileren eta ohituren arabera. Oro har, gizarte-ehuna finkatzen laguntzea da haien helburua.

Erakunde komunitario horien artean, ekoizpen – eta ahalduztze-estrategiatzat emakumeen erakundeak indartzeko babesa nabarmentzen da.

b. Izaera ekonomiko-produktiboko erakundeak

Esperientzia batzuek kooperatibaren forma hartu dute, edo prozesu horretan daude. Oro har, kooperatibaren oinarritzko egiturak lantaldeak ditu, eta lantalde horietan komunitateak eta/edo nekazarien guneak ordezkatzeko dituzten familiek parte hartzen dute. Horretaz gain, batzar komunitarioak egiten dituzte, komunitatearen arazoei irtenbideak emango dizkieten zereginak koordinatzeko eta estrategiak planifikatzeko. Kooperatiben organo nagusia administrazio-kontseilua da.

c. Elkarteen arteko itunak

Esperientzien zati handi bat oraindik barne-antolamendua finkatzen ari diren erakunde komunitarioek osatzen dute, eta, beraz, oraindik ere COMPARTEn erronka da erakundeen arteko itunak indartzea. Hala ere, badira komunitateak pilatu eta tokiko itunak lortu dituzten esperientziak ere. Askotariko ekimen ekonomikoak eta ingurumen-, gizarte-, kultura-, politika – eta espiritualitate-ekimenak artikulatzen ahalegintzen dira, helburu hauek betetzeko: (a) ekin-tza komunitarioak osatzea garapenaren eta/edo helburu den bizimoduaren ikuspegi baten inguruan; (b) elikadura-segurtasuna eta burujabetza sustatzea; (c) erakunde publikoekin negoziatzeko botere handiagoa izatea (eragin

politikoa); (d) baliabide publikoak lortzeko proposamenak egitea; (e) eskubi-deak aldarrikatzea; (f) lurraldea defendatzea; (g) baliabideak eskuratzea, etab. Komunitateko erakundeak, nekazarien, gazteen eta indigenen mugimenduak elkarrekin aritzeko espazioak ere sustatzen dira, ikerketa – eta azterketa-zentroekin hitz egiteko. Eskualde-mailan, erakunde gutxik aurre egiten dien askoz erronka handiagoa den honi: itunak egiteko espazioetan parte-hartzea eta/edo gizarte-, erakunde – eta gremio-egitura artikulatzen duten antolaketa modu bakarrak finkatzea.

Oro har, laguntza handiagoa emateko beharra ikusten da, tokiko eta eskualdeko ekoizpen-sektorean itunak sortzen eta finkatzen laguntzeko, bereziki eskualdean. Aurrerago ikusiko dugunez, gai hori gakoa da eragin politiko eta sozialaren estrategia garatzeko uanean.

4.4.1. ZAILTASUNAK, LORPENAK ETA IKASKUNTZAK

Hauek dira COMPARTERen esperientzien antolaketakoko eta parte-hartzeko prozesuetan izan ditugun **zailtasun nagusiak**:

- *Antolaketa – eta koordinazio-zailtasunak, antolatzeko moduarekin eta komunitatearen eta beste eragile gako batzuen parte-hartzea sustatzeko eraginarekin erlazionatuta.*
 - Aitortzen dugu komunitateetan beti izan direla autoantolaketa-ekimenak pobrezia-aren erronkari eta alternatiba ekonomiko-produktibo-aren gabeziari aurre egiteko. Hala ere, testuinguruak sortzen dituen zailtasunek eta laguntzarik eta aholkularitzarik ez izateak haien bidea eta aurrerabidea oztopatu dute askotan, eta taldeak banandu egin dira; horrek prozesuei ekin eta etenda uzteko kultura sortu du. Hori dela eta, helburua da aha-leginak bideratzea komunitateetan eta erakundeetan izan diren dinamika negatibo horiek gainditzera. Askotan, tokiko lidergoak eta kontrapisu egokirik ez izateak eragin dute haiek desagertzea.
 - Eragileak komunitate-mailan motibatze-ko beharra ikusten da (elkartea-ren zentzu gutxi edo ahuldua dute), eragileen artean eztabaidatu eta hausnartuko diren proposamenak presta ditzaten. Komunitatearen anto- laketa sistematizatu, berrikusi eta indartu behar da.
 - Eragile gako guztien parte-hartzea motibatu behar da (udal-erria, arlo pri- batua eta gizarte zibila), kanpo-agentee-ek ez baitute izan behar prozesu- en

erdigunea. Elkarriketarako eta parte hartzeko espazioak sustatu behar dira, kanpo-eragileak eta komunitateak hurbiltzeko.

- *Erakunde-mailako zailtasunak.*

Elkarteok erakunde-espazioetan parte-hartzea lortu, erakunde publikoekin harremanak izan eta politikoki eragiteko ditugun zailtasunak dira.

- Erakundeen sinesgarritasun-, aitortza-, errespetu – eta babes-gabezia.
- Erakundeei dei egiteko beharra, abian jar ditzaten proposamen alternati-
boak eta erabat bete, prozesuan dagokien rola.
- Erakunde-lidergoak agortzea.
- Gardentasunik eta etikarik eza kontseiluetako ordezkariengan.
- Interes-gatazka (klientelismoa).
- Elkarriketa-prozesu engainagarriak, asimetrikoak eta zintzotasunik ga-
beak erakundeekin.
- Erakundeek tokiko garapena sustatzeko beharra.
- Politika publikoa eta parte hartzeko espazioak ez ezagutzea.
- Eragile horien loturak ea konpromisoak elkarteen aurkako interesak di-
tuzten beste batzuekin.

Azken batean, nahikoa indar-korrelazio duten prozesuak behar dira, proposa-
tzeko ez ezik, baita jarraipena eman eta inplementatazioa lortzeko ere. Benetan
demokratikoak diren kontzentrazio-espazioak ere behar dira, lurralde bakoitzean
bizi den jendearen, protagonisten eskaerak kontuan har ditzaten, eta espazio
bakoitzeko aniztasuna landu.

- *Testuinguruaren zailtasunak.*

- Ongi ezagutu behar da testuingurua, eta, horretarako, komunitateko eta
instituzioetako gako-eragileen mapa egin behar da; botere-eremuak, itu-
nak eta estrategiak kokatu behar dira mapa horretan. Adibidez, Kolonbian
gatazka armatua dagoenez, aztertu egin behar dira gatazka eta eragile
armatuen eta inbertsioak egiten dituzten eragile ekonomikoen arteko
erlazioak.

- *Zailtasun ideologikoak.*

Pentsaera moldatzen dute eta eragile guztiek (elkarteak, taldeak eta pertsonak) berdintasun-baldintzetan parte hartzeko oztopoa dira.

- Emakumeen parte-hartzea bermatu behar da; izan ere, botere-harremane-tako aldeek eraginez, gizonak baino egoera okerragoan daude erabakiak hartzeko, eta, azkenean, haien lana gutxieneko mailara eta bazterketara eramaten du.
- Ekoizleen, langileen eta kontsumitzaileen ohiturak aldatu egin behar di-rela ikusten da.
- Aldatu egin behar da kanpo-eragileen pentsamendua; askotan, ez dute errespetatzen tokiko kultura.

Zailtasun horiek kontuan izan behar dira gizartea eta lana antolatzeko estrate-gia alternatiba ekonomiko-produktiboetarantz bideratzeko; baina kontuan izan behar dira **arrakasta-faktoreak** ere, komunitateen parte hartzea motibatzen ari baitira, bizi-baldintzak hobetu eta estrategia ekonomiko-produktibo jasangarriak sortzeko. Hauek dira faktore horiek:

- *Behar eta interes partekatuak izatea.*

- Bizimodu ekonomiko jasangarria izan behar da komunitateek beren lu-rraldeetan bizitzen jarrai dezaten eta kanpora joan beharrik izan ez deza-ten aukera eta ongizate hobearen bila.
- Lurraldearen itzulketa eraginkor, legezko eta erabatekoa eta lurraldearen jabetza kolektiboaren aitortza.
- Ezagutza berriak eta informazio gehiago izateko interesa; lurraldea balia-tzeko, produktiboki okupatzeko eta gozatzeko baldintzak sortzeko interesa.
- Produkzio-katean parte hartzea, bizi-baldintza hobeak sor ditzan.
- Komunitatean bertan baliatzen diren produktuekin diru-sarrerak sortzeko beharra.
- Lidergo-gaitasuna indartzea.
- Lehenago egindako bidetik ikastea, ikusteko nola jokatu agertzen diren zailtasunen aurrean eta nola ebatzi borroka-prozesuak berak erakunde-etan eragiten dituen gatazkak.

- *Itunak egitea.*

- Baterako erronkak eta arazoak bilatzeko lankidetzaren bidez, gizarte – eta lurralde-kohesio hobea lortzen da, eta, aldi berean, baterako interesak sortzen dira, tokiko ekintza kolektiboak adosteko edo erakundeen beste maila batzuekin negoziatzeko.

- *Eragiteko espazioak izatea.*

- Ordezkaritza-mekanismoak eta elkarrizketarako espazioak izatea.
- Erabakiak hartzeko unean eta politika publikoen ekintzan eragiteko beharra.

- *Autonomia ekonomikoa.*

- Ekoizteko baliabideak izateko aukera (finantzaketa, ura, lurra, ondasunak, haziak).
- Emakumeen kasuan, diru-sarrera propioak izateak eta haiek nola erabili erabaki ahal izateak ere eragina du parte hatzeko dituzten aukeretan.

4.5. ESTRATEGIA 4. KALITATEAREN PLANGINTZA ETA KUDEAKETA

Estrategia hau batez ere esperientzia ekonomiko-produktiboen prozesu euskarietan aplikatzeko pentsatua dago: (a) kudeaketa eta (b) kalitatea. Produkzio-prozesuen kalitatea oso garrantzitsua da enpresarentzat, epe luzeko merkataritza-harremanei bide eman eta jendeak bizitzeko behar dituen bitartekoei eusten baitie. Kalitatearen ikuspegia kontuan izanik egiten den prozesu edo produktu batek murriztu egiten du proiektuak porrot egiteko aukera. Hau da helburua: laguntzaren logika (eroslearen asmo onetan oinarritua) utzi eta asmoen logikara jauzi egitea, berariazko beharren bat asetzeko. Azken horrek irauteko aukera du.

Horiek horrela, gure esperientziek berrikusi behar dute, ezinbestean, nola egiten diren gure laneko sistema produktiboen plangintza, kudeaketa eta kontrola. Horrek askotan intuizioz abian jarri ditugun teknikak eta egiteko moduak hobetzea eskatzen du. Profesionalizazioa eta oreka behar ditu alderdi hauek jasoko dituzten egiteko modu gizatiartzaileekin:

- lanerako planak, plan eragileak eta kalitate-kontrolak inplementatzea.
- ekoizpenaren antolaketa lurraldean,

- garapen-planek parte hartzeko formulak izatea,
- proiektuak ekoizleek elkarrekin kudeatzea,
- finantzaketa-estrategiak diseinatzea eta kudeatzea,
- gastua eta inbertsioa kontrolatzeko moduak hobetzea.

4.6. ESTRATEGIA 5. SISTEMATIZAZIOA ETA IKERKETA

Badugu esperientzia bat, ezagutza ematen diguna, eta ezagutza hori baliatzeko gai izan behar dugu. Askotan, “egiten jakitea” edo esperientzia ez dira baloratzen, eta, hala, aukera galtzen dugu akatsetatik ikasi eta ikasi dugun horretatik abiatzeko. Prozesuak sistematizatzeko haxe eskatzen du: geratzea, hausnartzea, ikasgaiak ateratzea eta ikasi dugunean oinarrituz erabakiak hartzea, praktika hobetzeko. Ikerketa-metodologia horren ezaugarria da ikasketaren eraikuntza kolektiboa eta parte-hartzailea egitea, prozesuan txertatuta pertsona eta eragile protagonista guztiak; horrek, gainera, testuinguruaren irakurketa azpimarratzen du, eta errealitatearen jabego izatea motibatu, aldatzeko. Ezinbestekoa da esperientziak igortzeko jendeari eta kolektiboei, bai antolaketari bai ekoizpenari dagokienez eta ezinbestekoa da babesak lortzeko (ALBOAN, 2011).

Aztertu diren esperientziek erakusten dute esperientzia berreskuratu eta sistematizatu egin behar dela, ikasteko, hobetzeko eta helburu dugun garapenera eraman-go gaituzten erabakiak hartzeko. Horiek horrela, COMPARTEko zenbait erakundek adierazten dute zailtasunak dituztela ikerketa babesteko prest dauden erakunde publiko eta pribatuak bilatzeko; badira, ordea, unibertsitateekin edo gobernuen teknologia-zentroekin itunak sinatzea lortu dutenak ere. Hori funtsezkoa da esperientziak sistematizatzeko, eta, beraz, ahalegin handiagoa egin behar dugu sinergiak sortzeko gure eremutik kanpoko beste eragile eta erakunde batzuekin. Itun horiek esperientziek oinarri dituzten sistema produktiboak hobetzen lagun dezakete, laguntza ematen duen erakunde moduan egiten dugun lana hobeto egiten, eta arlo ekonomiko-produktiboko ekimen alternatiboak proposatzen eta sortzen.

4.7. ESTRATEGIA 6. ERAGIN POLITIKO ETA SOZIALA

COMPARTEn esperientziak, hein handiago edo txikiagoan, eragiteko helburuekin erlazionatuta daude; izan ere, onartzen dugu gure eremuan jardun eta koka-

pen bat hartu behar dugula, gure lanaren hartzaille diren komunitateek egiten dituzten prozesuak indartu eta, hala, gizartea aldatzen laguntzeko. Eragitea hainbat ekintza-ildo dituen prozesutzat ulertzen dugu. Laguntza ematen diegun talde eta pertsonak txertatu eta hurbilduta sortzen da, eta zehaztapen ikerketak, elkarrizketa politikoak (*lobby*), prestakuntzak, sentsibilizazioak, mobilizazioak eta komunikazio hezitzaileak ematen diote (ALBOAN, 2011). Eragin politikoa eta soziala lortzeko estrategiaren helburu nagusia da botere publikoen arloko mailetan (tokian-tokian, eskualdean eta nazioan) erabaki politikoak hartzen dituztenengan eragitea, bidegabekerien berri eman eta politika publikoak eta jendearen bizimoduari eragiten dieten programa eta proiektuak hobetuko dituzten proposamenak sortzeko. Horretarako, aztertu diren esperientzietan nagusiki bi bide erabili direla ikusten da: (a) gobernu-erakundeekin erlazionatuak batzuk, eta (b) komunitateekin eta gizarte-elkarteekin erlazionatuak besteak.

4.7.1. GOBERNU-ERAKUNDEEN ESPARRUKO BIDEAK (ERAGIN POLITIKOA)


- Tokian tokiko eta eskualdeko ituntze-espazioetan parte hartzeak erakundeekiko elkarrizketari bide ematen dio, politika, programa eta proiektu berriak proposatzeko. COMPARTEn esperientzietan ikusten da gobernu-erakundeekin izaten diren elkarrizketak oso desorekatuak direla, eta GKEen laguntza handia behar dutela. Itunak egiteko espazio publiko horietako parte-hartzearen adibide bat da Udal eta Departamentuetarako Garapen Planak parte-hartzearen bidez eraikitzea bizimodu komunitarioko planen ekarpenetatik abiatuz (adibidez, nekazaritza-ekoizpen ekologikoko elementuak dituzten elikadura-segurtasun eta burujabetzeko tokiko planak, bertako hazi eta espezieak berreskuratzekoak, bertakoa ezagutzekoak, tokiko merkatuak elkartasunaren bidez dinamizatzekoak eta ingurumen-jasangarritasunerakoak).
- Erakundeen arteko itun estrategikoak sortzea, ahaleginak bateratu eta baliabide teknikoak nahiz finantza baliabideak ahalik eta gehiena aprobetxatzeko, oinarri izanik lurraldearen ikuspegi adostua.
- Produktu organikoak edo zenbait produktu “tradizional” (hala nola koka) produktu “alternatiboen” bidez ordeztzea sustatzen duten gobernu-mailako zenbait estrategia aprobetxatzea”. Badira nekazaritzara eta abeltzaintzara bideratzen diren zenbait gobernu-estrategia, baina airean geratzen da merkaturatzea eta produktuen salmenta.

4.7.2. KOMUNITATEEKIN ETA GIZARTE-ELKARTEEKIN ERLAZIONATUTAKO BIDEAK (GIZARTE-ERAGINA)

- Komunitatearen parte hartzeko antolaketa sustatzea eta ekoizleen eta komunitateen taldeak indartzea eskualdeko eragile soziopolitiko eta sozioekonomiko moduan. Emakumeen erakundeak indartzea ahalduz kolektiboko estrategiatzat nabarmentzen da, eta elkarte horien parte-hartzea sustatzen da erabakiak hartzeko espazioetan.
- Komunikabideak diseinatzea eta inplementatzea (foroak, topaketak, jardunaldiak, azokak, irratikomunitarioak, etab), udalerrik, departamentu eta eskualdeetako komunitateek jakintzak, praktikak eta esperientziak trukatzeko.
- Komunitateak, taldeak eta elkarteak artikulatzea haien antolaketa-oinarriak indartzeko, garapen-proposamenei buruzko azterketak eta eztabaidak sustatzeko eta eragiteko indarra sortzeko: lurraldeko elkarte komunitarioak artikulatzea eta arloko sektoreak osatzea.
- Babes juridikoa, komunitateko elkarteak eta gizarte-elkarteak legez osatzeko.
- Hainbat arlotako prestakuntza: ekonomia-, gizarte-, kultura-, ingurumen – eta indigena-eskubideen (DESCAI) ikuspegia, elkartasunezko ekonomia eta elikadura-segurtasuna, tokiko eta eskualdeko jasangarritasunaren kudeaketa parte-hartzailea, genero-berdintasuna...

Eragin politiko eta soziala duten ekintza horiek emaitza positiboak eman dituzte zenbait kasutan. Adibidez: (a) komunitatea parte hartzeko antolatzea eta subjektutzat aitortzea; (b) gizarte-elkarte indartsua osatzea; (c) kultura-nortasuna indartzea; (d) itun publiko-pribatuak (zenbait kasutan) egitea helburu den ekoizpen-sistema indartzeko; (e) lurraldearen jabetza eta (f) parte-hartze gaitua gizarte zibilaren eta Estatuaren tokiko erakundeen arteko itun-espazioetan. Oro har, motelak dira arlo honetako aurrerabideak, eta badira aurre egin beharreko defizitak ere. Adibidez: (a) gure eragin-eremua tokiko mailatik eremu zabalago-etara eramatea, erabakiak hartzen direnetara; (b) mugimendu politiko zabalagoak sortzea eta beste pertsona eta talde batzuekin elkartzeko gaitasuna garatzea, eta (c) eragiteko gaitzea eta prozesu horretan laguntzea gure erakundeei banaka eta taldean dagokienez. Funtsezkoa da hori; izan ere, askotan, eragin politikoak arrakasta izateko zailtasun nagusietako bat da loturarik ez izatea tokiko eta eskualdeko politiken eta dinamiken artean, eta sistemaren hutsune hori landu egin behar da gure gaitasun eta aukeretatik.

Laburpena



Argitalpen hau komunitate moduan osatzera eramán gaituen elkarriketa – eta hausnarketa-prozesu partekatu baten emaitza da. Bidearen une batean, galdera hau egin dugu: **Nola lagundu garapen ekonomiko nagusiaren alternatibak eraikitzen?** Bagenekien ez zuela erantzun bakarra izango, ezta bide bakarra ere. Hala ere, argi genuen jada egiten hasi ginen bideetako batetik ekin behar geniola hausnarketari eta gure praktikak eman dizkigun ikaskuntzak eta ezagutzak gehitu. COMPARTEko erakundeok laguntzen ditugun esperientzia ekonomiko-produktiboak izan dira gure erreferentzia-unitate nagusia aztertzeo eta hausnartzeko nola lagundu gure alternatibotasunaren ezaugarriak barneratzen dituzten garapen-prozesuak. Esperientzia gehienak landa-garapeneko prozesuetakoak dira, eta nekazaritza – eta abeltzaintza-ekoizpenaren osagai garrantzitsua dute; hortaz, praktikatik eratorritako prestaketa kontzeptuala landa-ikuspegi horrek zehaztu du.

2010ean, mintegi bat egin genuen Loiolan (Euskal Herrian), eta hura izan zen abiapuntua gure aukera politikoa zehazteko. Aukera horrek gure helburu diren zortzi garapen-ezaugarri ditu, eta ziur gaude erreferentzia-esparru bat sortu behar dugula eraldaketa-prozesu partekatuetarako gida izateko. Zortzi ezaugarri izanik, garapen ekonomikoko prozesuetarako garrantzitsuenak iruditzen zitzaizkigun hiru ezaugarritan sakontzearen alde egin genuen. Hauek dira hiru ezaugarri horiek: (a) tokian tokitik abiatzea eta ikuspegi alternatiboa eraikitzea; (b) natura-ondasunak zuzen eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen harmoniatsua izateko natura-ingurunearekin. Eta, hala, gizarte – eta ingurumen-etekinak sortzea; eta (c) pertsona guztien bizimodu ona lehenestea kapital-pilaketaren aurrean. Gure praktikatik abiatu eta ezaugarri bakoitzari edukia emateko, galdetu genuen nola ulertzen genuen ezaugarria eta zer estrategia erabil genitzakeen gure elkarrekin eta gure lanean aktibatzeo.

Lehen ezaugarriari dagokionez, COMPARTE osatzen dugun elkarteek uste dugu tokian tokikoa eta haren gaitasun eta mugak ezagutu behar direla proposamen alternatiboak eraikitzeo, baita tokiko komunitate integratu eta kohesionatuak sortzen laguntzen duten dinamikak sustatu ere. Horretarako, tokian tokia ez da lurralde-espazio jakintzat soilik hartzen, beste baldintza batzuk definitutako espaziotzat ere hartzen baita. Baldintza horiek bizi propioa ematen diote; esaterako, herritarren xede kulturalak, ekonomikoak (produktiboak eta aberastasuna sortzen dutenak), sozialak eta politikoak. Dimentsio horiek artikulatzea eskatzen du tokian tokikoari buruz dugun ikuskerak, eta lagunduko digute hobeto ulertzen han izaten diren askotariko dinamikak eta lurraldeari osotasunean eta ikuspegi holistikotik begiratzen.

Bigarren ezaugarriak naturaren ulermenean sakontzen du subjektu bizitzat, amatzat (*pacha mama*), bizitza errealizatzeko espaziotzat. Eta, naturaren ikuspegi horretatik, bizileku ditugun habitatek objektu izateari uzten diote eta eskubi-deen subjektu bihurtu, eta aitortzen da gizakia osorik lotuta dagoela naturari eta kosmosari. Ideia hau berreskuratzen dugu: guztia sistema beraren parte da, eta natura-elementuak eta gizakia harmonian eta orekan bizi dira elkarrekin.

Hirugarren ezaugarriak nabarmentzen du jende guztiarentzako bizimodu ona bi-latzean, egitura-aldaketak sustatzen direla. Egitura horiek, oinarritik, ez dira ez jasangarriak, ez ekitatiboak ez integratzaileak planetako biztanleria eta herri gehientzat. Aldaketa hori gauzatu dadin, oinarritzat hartzeko balio batzuk proposatzen dira; adibidez, gizon-emakumeen arteko harreman-berdintasuna nahiz herri eta kulturen artekoa.

Hiru ezaugarri horiekin batera, aldaketa-estrategiatzat gaitasunak sortzeari buruz hausnartu genuen Loiolako mintegian, funtsezkoa iruditzen baitzaigu laguntza ematen diegun pertsonekin eta elkarteekin egiten dugun lanean. Pertsona eta elkarte horiek gizartearen aldaketa jasangarri eta barneratzaileak sustatzeko ego-nezina dute, eta gaitasunak indartu beharra dute lan hori eraginkortasunez egiteko. Lan horretan, galdera hau izan genuen gidari: **Zer gaitasun sustatu behar ditugu pertsonengan eta erakundeetan jendearen bizimodua hobetzeko?** Erantzuteko, ikusi genuen gaitasunei buruzko teoriak genituen gure praktika eta teoria bateratu behar genituela, horrela gaitasunak garatzeko proposamen propioa sortzeko; proposamen horrek gure praktika arlo ekonomiko-produktiboko ekimen alternatiboak eraikitzea bideratu behar zuen gure praktika, praktika bera hobetu eta, gainera, gizarte zibileko eta akademiako elkarteekin batera kontzeptu-eztabaidari lagundu behar zion.

2011-2013an egindako hausnarketa – eta ekintza-lanaren bidez, proposamen kontzeptual hori zehaztu dugu. **“COMPARTEren Gaitasunak Garatzeko Mapa”** izena eman diogu, eta hiru elementu ditu: (a) aukera politiko alternatiboa, helburu den aldaketa adierazten duena; (b) gaitasunak garatzeko gutxieneko aukerak ematen dituzten baldintzak (hasieratik landu behar dira, helburu den aldaketa gauzatzeko, eta lehenago aipatu ditugun hiru ezaugarriek irudikatzen dute) eta (c) gaitasunak garatzeko ibilbide bat, bidea helburu den aldaketarantz eramateko.

Mapa hori orain sortzen eta praktikan sustatzen ari garen gaitasunak baino askoz zabalagoa eta asmo handikoagoa da. Aukera ideala da, eta garapen pertsonaleko

eta kolektiboko prozesuak gako alternatiboan garatzen lagunduko ligukete gaitasun horiek guztiek. Hori dela eta, badakigu bide luzea dugula egiteke praktika-
ra eramateko mapa hori, gaitasun horiek zentzuz garatzeko tresnak izateko eta
esperientzia eta proposamen alternatiboetan oinarrituz giza garapen jasangarri-
rako baldintzak sor daitezkeela adierazten duten nabaritasunak sortzeko.

Mapa honetan ahalegindu gara jasotzen gaitasunen garapenak zer dinamismo
eta zirkularitate dituen dimentsioen artean: pertsona jartzen du erdigunean,
pertsonaren interakzioa beste batzuekin elkartearen bidez, eta erakundeen eta
pertsonen interakzioa ingurunearekin-sistemearekin. Dimentsio horiek prozesu
indibidual eta kolektibo moduan begiratzen diote gaitasunen garapenari. Hain
zuzen, COMPARTEko erakundeek eraikuntza kolektiboaren alde egiten dugu ga-
rapenaren baldintzatzat, bai baitakigu funtsezkoa dela kolektiboari erantzutea
jendearen ongizaterako. Nabarmendu egiten dugu jada abian dauden prozesu
ekonomiko-produktiboetako gaitasunak garatzeko dimentsio kolektiboa, eta
subjektu kolektibo antolatua aipatzen dugu, lanak, erronkak eta prozesuak au-
rrera eramaten dituen, bideragarritasuna eta jasangarritasuna helburu. Horiek
horrela, **COMPARTEren Gaitasunen Katalogoak** lau kategoria ditu, eta elkarte
edo sistema bateko kide diren pertsonen gaitasun kolektiboak eta konpetentzia
indibidualak multzokatzen dituzte.

Katalogo horren prestakuntza kontzeptualaren helburua izan da adostutako es-
parru bat izatea, baterako hizkera eta jarduteko modua eman diezazkigun, eta,
horrenbestez, gure artean eta “besteekin” hitz egiteko aukera. Beraz, baliozko
esperientziak areago trukatzeko eta ezagutza kapitalizatzeko tresna da; tresna
bat ikusteko esperientzia helburu dugun aukera politikorantz egiten ari den, eta
ikusteko zer alderditan egin behar dugun ahalegin handiagoa (psikologikoa, per-
sonala, fisiko-materiala, politiko-soziala) esperientzia zehatz honetan. Hori bai,
kontuan izan behar da aplikazio-maila; hau da, zer gaitasun sortu behar diren,
testuinguruaren, esperientziaren eta beste aldagai batzuen (jarduera-sektorea,
erakundearen historia eta ibilbidea, lanaren eta laguntzaren hartzaile den kolek-
tiboak, ekimenaren edo sustatutako prozesuaren une historikoa, etab.) arabe-
rakoa izango da.

Horretaz gain, COMPARTE komunitateak helburu duen garapenaren osoko ikus-
pegiari erantzuten dio tresna horrek, ez baitie erreparatzen garapenaren dimen-
tsio ekonomiko-produktiboarekin soilik erlazionatutako gaitasunei; izan ere, ga-
rapenaren beste arlo batzuekin erlazionatutako gaitasunak sortzearen beharra ere

nabarmentzen du (soziala, kulturala, politikoa, psikologikoa, etab.). Eta, gainera, gaitasunen proposamen ez-agortua, dinamikoa eta gaitasun berriei irekia jasotzen du; gaitasun berri horiek COMPARTEn esperientzietan jasotzen edo sortzen direnak izango dira. Horregatik uste dugu katalogo hau prestatzea praktikarekin elkarriketa etengabea izanik aurrera egin behar duen eta eraikitzen ari garen prozesua dela.

Jarraian, COMPARTEk aztertu dituen esperientzia ekonomiko-sozialetan sortu diren gaitasun nagusiak jasotzen dira, baita haiek garatzeak laguntza ematen dien pertsonengan eta taldeengan izan duen eragina ere; gaitasunak garatzean hauekman ditugun hutsuneak eta hobetzeko arloak ere jasotzen dira. Irakurketak arrastobatzuk ematen ditu ikusteko zer gaitasun garatu behar diren garapen alternatiboaren ezaugarriak egiaz txertatzen dituzten ekimenak abian jarri ahal izateko. Identifikatu eta mapan jaso ditugun zenbait gaitasun sakondu eta zabaldu egin behar dira oraindik. Katalogoak berak islatzen ditu gaitasunek zer garapen-maila dituzten esperientzietan, nahiz haiekin erlazionatutako esperientzietan.

Horretaz gain, 4. kapituluaren lantzen den estrategien garapenak arrasto batzuk ematen ditu jakiteko zer egin gaitasun horiek sortzeko. Horregatik, kapitulu honek, hasteko COMPARTEko elkarrekin aztertutako esperientzietan gaitasunak sortzeko abian jarri ditugun zenbait estrategia identifikatzen ditu. Estrategia bakoitzak bere ezaugarri bereziak eta garapen-mailak ditu, baina guztiek baterako ideia bat dute: laguntzen diegun taldeei, elkarrekin eta kolektiboari laguntzea. Hemen aurkezten ditugun estrategien oinarria da laguntzea, entzutearen, elkarriketaren eta etengabeko babesaren bidetzat ulertuta, eta bi aldeek elkar aberastu ez ezik, elkarri galderak egitea. Azken helburua da gure lanaren hartzaileraren pertsonak, komunitateak eta taldeak ahalbidetzea. Aldi berean, estrategia horiek prozesu-dinamika batean txertatzen dira, eta horrek eskatzen du gauzatuko den errealitatea eta testuingurua kontuan izatea; malguak dira, eta testuinguruaren ezaugarrietara moldatzen dira. Eta, gainera, elkarrekin erlazionatuta daude eta, beraz, begirada sistemikoa behar da estrategia horiek aztertzeko eta abian jartzeko.

Azken batean, argitalpen honetan jasotzen diren ikaskuntzen helburua da gaitasunen garapenari buruzko arlo teoriko eta praktikoa elkarrekin egitea, azkenean, garapenaren alternatiba errealak eraikitze bidean aurrera egiteko. Aipatu dugu moduan, argitalpen hau aukera alternatibo horretarantz aurrera egiteari buruz COMPARTE komunitateak egin dituen ekintza – eta hausnarketa-prozesu zabalagoaren parte da, bestelako mundua, bizigarria eta pertsona guztientzat

duina dena pentsatzeko. Bide luzea dugu egiteke, eta garapenaren beste ezaugarri batzuez hausnartzen eta haietan sakontzen jarraitu behar dugu, baita helburu dugun aldaketara gero eta gehiago hurbiltzeko erabiltzen ditugun beste estrategia batzuetan ere. Badakigu, halaber, landa-ingurunetik hiri-ingurunera ere zabaldu behar dugula gure hausnarketa, eta hori COMPARTEko komunitate moduan egingo ditugun datozen hausnarketetan kontuan izango dugun gaietako bat da.

Oso mugatua da oraindik gure lana, baina partekatzeraz eta elkarrekin lan egitera animatzen gaitu. Badakigu aldaketaren indarra utopiarantz egitea dela, bai pertsona moduan, bai elkarte moduan, bai komunitate moduan. Izan bedi baliagarri argitalpen hau utopia hori eraikitzen animatzeko, helburu dugun beste mundu hori, egunero-egunero izateko, lan egiteko eta errealitatea aldatzeko egiten diren eguneroko kontu praktiko eta sinpleetan zehazten direnak.

Eranskinak



2. KAPITULUAREN ERANSKINAK

1. ERANSKINA. 5GEN EREDUA: GAITASUN KOLEKTIBOAK

1G. Konpromisoa hartzeko eta garapen-jardueratan aritzeko gaitasuna

Elkarteek borondatea izateko, erabakitzeko, ahalduntzeko eta espazio propioa sortzeko gai izan behar dute. Horrek zerikusia du sistema bizi eta konplexu batek munduan zer leku duen jakiteko gaitasunarekin, bere burua osatzekoarekin, motibazio eta konpromiso propioa garatu eta, orduan, jardutekoarekin. Eta garaiz, denboran zehar eta maiz egitearekin, besteen aurkaritza izan ala ez, besten lankidetzatza izan ala ez. Zerikusi handia du jarrerarekin eta autopertzepzioarekin.

Beste lau gaitasunak indartzen ditu gaitasun honek. Eta, gainera, autoantolaketarako giltza da aldatzeko gaitasuna duten sistema konplexuen aldatetaren bihotzean. Oztopo ikaragarriak gaingitu ditzakete gaitasun hori garatu duten erakundeek. Garatu ez dutenek edo gutxi garatu dutenek, berriz, balio publiko txikia sortzen dute.

Zehatzago esanda, gaitasun horrek zerikusia du gizakiaren indar eta ekintzarekin, gizarteari, antolaketari eta erakundeei dagokienez. Hauek izan daitezke gaitasun horrekin erlazionatutako zenbait galdera:

- Badu erakundeak bere gaitasunak eraikitze indarra, konfiantza eta guraria?
- Blokeatuta edo babesik gabe dago? Harrapatuta dute barne-gatazkek edo kanpo-indarrek?
- Uko egin dio zenbait jarduera egiteari, konplexuak direlako edo zalantzak eragiten dituztelako?
- Baditu baikortasun handia erakundean eta konfiantza handia? Gaitasuna kendu dio osotasun edo asmo gabeziak, zailtasunei aurre egiteko?

Bistan denez, gaitasun hori ez da erabat presente, edo ez erabat faltan. Erakunde batzuk garatuago izan ditzakete alderdi batzuek eta gutxiago garatuta beste batzuek. Adibidez, erakunde bat has daiteke programa bat energiaz eta konpromisoz inplementatzen, baina indarrak eta jarduteko gaitasuna galdu zailtasunak areagotzen diren heinean.

Gaitasun hori zeregin teknikoak eta logistikoak egiteko gaitasuna (2. gaitasuna) desberdinak dira. Biek (1G eta 2G) nahitako jarrera batekin zerikusia dute. Baina G2k zerikusi handiagoa du “lehen mailako” aldaketarekin edo gaitasunak eta baliabideak erabiltzearekin (zerikusia du kudeaketarekin, logistikarekin, eraginkortasunarekin eta zereginak betetzearekin). G1ak, konpromiso – eta dedikazio-gaitasunak, berriz, “bigarren mailako” aldaketarekin zerikusia du. Azken hori alderdien nahaste konplexua da: motibazioa, boterea, espazioa, zilegitasuna, konfiantza, segurtasuna, zentzua/esanahia, balioak eta nortasuna. Portaeraren eredu sakonagoekin lotuta dago: batzuk egiturazkoak dira hein batean eta askotan psikologikoak, eta erabat errotuta daude.

Konpetentzia hauek hartzen ditu.

- Jabetzeko eta erakartzeko konpetentzia;
- Pertseberatzeko konpetentzia eta jarrera;
- Nahi izateko (irrikatzeko) konpetentzia;
- Uste osoa sortzeko konpetentzia;
- Espazio propioa eskuratzeko edo lortzeko konpetentzia;
- Segurua izateko konpetentzia.

2G. Zeregin edo funtzio logistikoak egiteko eta zerbitzuak eta teknikak eskaintzeko gaitasuna

Gaitasun hau gaitasunen gaiari buruz pentsatzeko modu arruntena da. Ikuspegi honetatik, erakundeek edo sistemek funtzionatzeko eta emaitzak emateko gai izan behar dute. Kasu gehienetan, espero da zerbitzuak ematea, funtzioak eta zereginak egitea eta, oro har, balio publikoa sortzen laguntzea. Horretarako, zeregin tekniko eta logistikoak egin behar dituzte, hala nola, programaren azterketa, finantza-kudeaketa eta proiektuen kudeaketa. Helburu batzuk betetzen dituzten bide instrumentalak nabarmentzen dira.

Gaitasun horren helburua da arrazionaltasun/koherentzia tekniko eta politikoaz funtzionatzeko gai izatea erakundeak. Gaitasun honetan, nabarmentzen da nazioarteko lankidetzaren eremuan garapenaren emaitza garrantzitsu eta errealak lortzeko beharra dagoelako.

Eta zehaztutako helburu eta agindu batzuk betetzen dituzten bide instrumentalak nabarmentzen dira. Gaitasun hori beste lau gaitasunekin osatu eta bateratu behar da jasangarritasunaren gaitasuna sortzeko aukera izateko.

Hauek izan daitezke gaitasun horrekin erlazionatutako zenbait galdera:

- Zer bide funtzional/instrumental ditugu erakundearen helburu eta agindu batzuk betetzeko?
- Zergatik aukeratu ditugu bide horiek?

Konpetentzia hauek hartzen ditu:

- zerbitzuak emateko konpetentzia;
- plangintza estrategikoki egiteko eta kudeatzeko konpetentzia;
- finantzak kudeatzeko konpetentzia;

3G. Harremanak izan eta babesa eta baliabideak lortzeko gaitasuna

Sistemaren/elkartearen autonomia finkatzearekin eta defendatzearekin zerikusia du, haren funtzionamenduarekin eta izatearekin. Ikuspegi honetatik, gaitasunak ez du zerikusirik emaitzak lortzeko, zerbitzuak emateko eta programak kudeatzeko konpetentziarekin. Elkarreak bizirik irauteko gakoak diren harremanak sortzeko, kudeatzeko eta mantentzeko gai izatearekin zerikusia du. Antolatzearekin zerikusia du, hala, erakundeei mantentzeko eta jarduten jarraitzeko aukera ematen dien baliabideak eskuratu ditzaten. Gaitasun hori behar dute erakundeek arlo sinbolikoak erabiltzeko, eraginkortasunez komunikatzeko, lankidetzeta eta itun produktiboak egiteko, gatazka politikoak ebazteko eta, oro har, funtzionamendu-espazioa bermatzeko.

Gaitasun horrek alderdi politikoak ere baditu; izan ere, askotan, eragile askorekin lehiatu behar dira erakundeak boterea, espazioa, babesa eta baliabideak lortzeko; eragile horiek dira, besteak beste, banakoak, talde ez-formalak eta sareak, eta beste eragile formal batzuk.

Hauek izan daitezke gaitasun horrekin erlazionatutako zenbait galdera:

- Gai gara gure testuinguruan harremanak izan eta bizirik irauteko?
- Baditugu sinesgarritasuna eta zilegitasuna?

Konpetentzia hauek hartzen ditu:

- sinesgarritasuna eta zilegitasuna irabazteko konpetentzia;
- erakundea edo sistema kanpotik norbait sartzetik babesteko konpetentzia;
- besteren konfiantza irabazteko konpetentzia; adibidez, emailena eta bezeroena;
- neutraltasun politikoa eta asertzio-eragina bateratzeko konpetentzia.

4G. Moldatzeko eta berritzeko gaitasuna

Gaitasuna hau, askotan, aldaketa azkarrak, desorekatzaileak eta/edo asaldatuak diren testuinguruetan garatzen da (testuinguru globalak eta berariazkoak).

Hauek izan daitezke gaitasun horrekin erlazionatutako zenbait galdera:

- Zer barne – edo kanpo-joerak eta faktorek eragiten dute barne-aldaketa eta berrikuntza?

Konpetentzia hauek hartzen ditu:

- banakoaren eta elkartearen ikaskuntza hobetzeko konpetentzia;
- barne-elkarrizketa sustatzeko konpetentzia;
- erakundea berriro kokatzeko eta taxutzeko konpetentzia;
- ideia berriak txertatzeko konpetentzia (sormena);
- hazkunde-aldaketa bat planifikatzeko konpetentzia.

5G. Koherentzia aniztasunaren bidez orekatzeko gaitasuna

Erakundeek hainbat gaitasun, interes eta nortasun izan behar dituzte, askotariko ikuspegiak eta pentsatzeko moduak. Praktikan, aniztasun horren onurak lagundu egiten die elkarteei erresilientzia eraikitzen. Baina, aldi berean, balizko zatiketa bat kontrolatzeko forma bilatu behar dute, erdigunea galdu eta desegiteko arriskurik ez izateko.

Erakundeen erronka da jakitea nola mugitu konplexutasunak, aniztasunak eta zatiketak daudenean. Horregatik aurkitu behar dute aniztasuna eta koherentzia orekatzeko modua, baita egonkortasuna eta berrikuntza sustatzekoa ere.

Erakundeek gaitasunen arteko oreka eta koherentzia lortu behar dituzte. Adibidez, arreta handiegia jartzen badute garapen-ekintzekin konpromisoa hartu eta haietan aritzeko gaitasunean, eta arreta txikia gaitasun teknikoetan, zerbitzu teknikoak eta balio erantsia emateko konpetentzia galtzen dute. Askotan, oreka horrek berdintzea eskatzen du; adibidez, “teknokratikoa” eta “politikoa” izatea aldi berean; gaitasun “indartsuak” eta “ahulak” izatea; kanpo – eta barne-helburuez arduratzea; epe labur eta ertaineko helburuez arduratzea; errendimendua/emaitzak nabarmentzea gaitasunaren aurrean; eta modu zentralizatuan eta deszentralizatuan jardutea.

Hauk izan daitezke gaitasun horrekin erlazionatutako zenbait galdera:

- Badugu behar beste aniztasun erresilientzia zatiketa handiegia izan gabe eraikitzeko?
- Zein dira tentsioak? Nola orekatu ditzakegu?

Konpetentzia hauek hartzen ditu:

- komunikatzeko konpetentzia;
- loturak eraikitzeko konpetentzia;
- aniztasuna kudeatzeko konpetentzia;
- paradoxak (ideia kontrajarriak) eta tentsio handiko egoerak ebazteko konpetentzia.

2. ERANSKINA. BEBBINGTON-EK PROPOSATZEN DITUEN KAPITALAREN 5 FORMAK (1999, 2005)

Giza kapitala: pertsona batek dituen baliabideak (edo aktiboak) bere giza baldintzaren berezko ezaugarrien ondorioz: ezagutza, osasuna, trebetasunak, denborak eta beste.

Gizarte-kapitala: beste pertsona batzuekin eta erakundeetan parte hartuta izaten diren erlazioen ondoriozko baliabideak (aktiboak); erlazio horiek beste balio batzuk eskuratzea errazten dute.

Kapital ekoitzia: baliabide fisikoak (azpiegiturak, teknologia, abelburuak, haziak eta beste) eta finantza-baliabideak (dirua, lanaren kapitala eta dirutan erraz bihur daitezkeen aktibo fisikoak).

Natura-kapitala: eskura dauden natura-baliabide aktiboak, kalitateari eta kantidadeari dagokienez.

Kultura-kapitala: pertsona batek dituen baliabideak eta sinboloak, kultura batekoa izateagatik.

3. KAPITULUAREN ERANSKINAK

3. ERANSKINA. COMPARTEREN ESPERIENTZIA EKONOMIKO-PRODUKTIBOAK

COMPARTERen esperientziak aurrera eramaten ditugun erakundeek, subjektu kolektibo antolatutzat, haien bideragarritasuna eta jasangarritasuna dugu helburu. Esperientzia horiek arlo ekonomiko-produktibokoak dira eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, prozesu hauek garatu dituzte:

- prozesu estrategikoak: (a) antolaketa – parte-hartzea eta (b) kontsumoa, berrinbertsioa eta berrerabilera.
- jarduera – eraginkortasun prozesuak: (a) ekoizpena – eraldaketa eta (b) banaketa – merkaturatzea.
- prozesu euskarriak: (a) kudeaketa eta (b) kalitatea.

Gehienak, lan-ibilbide zabalean barneratuta daude, eta oraindik ere abian daude. Hala ere, sortzeko forma desberdina da kasuan-kasuan, eta egoera hauek ditugu:

- Laguntza ematen duen erakundeak komunitateen diagnostikoa egiten du, gizarte-antolamenduaren batzar batetik abiatuz. Proiektuak eta prozesuak identifikatzen dira; parte-hartzaileekin harremanetan jartzen da eta, ondoren, esku-hartzearen, batzearen, laguntzearen... bideragarritasuna aztertzen da. Laguntzeko eta harremanak izateko moduak zehazten dira. Laguntza ematen duten erakundeak ez dira protagonista nagusiak, baina ezta pasiboak ere; ikerketa-lanez, finantza-kudeaketaz eta beste taldeekin bitartekaritzak-lanak egiteaz arduratzen dira.
- Esperientziak komunitateen, eskualdeko eta nazioarteko erakundeen, elizaren eta GKE-en arteko itun baten emaitza izan dira; eta testuinguruak eragilearen interesetan duen eragin handia ere kontuan hartzekoa da.

- Esperientzia batzuk eskaintza publikoaren emaitzatzat sortu dira. Horrek badu arrisku bat: komunitateekin prozesu parte-hartzaileak ez egitea eta ikuspegi estrategiko eta jasangarria ez garatzea. Hala ere, ongi hartzen dira proposamen horiek, presazko beharrei erantzuten baitiete.

Esperientzia horiek komunitateak edo bazterketa-egoeran dauden pertsona taldeak ahalduzko estrategia zabalagoen baitakoak dira. Besteak beste, indigenak, nekazariak eta emakumeak nabarmentzen dira. Hau da, helburua da komunitateek erabakitzea, beren kabuz, beren helmuga, antolaketa sozial eta politikoa, harremanak, baliabideak eta ekonomia. Horri dagokionez, zenbaitek adierazten du dimentsio ekonomiko-produktiboa gizarte-eraikuntzako eta eragineko ikuspegi zabalagoan artikulatzen dela komunitateen eta/edo lurraldeen bizimodu ekonomiko, politiko eta sozialean. Esan dezakegu alternatiba askatzai-leak direla. Ulertzen dute ekoizpen-sistemak prozesu zabal eta konplexuagoen parte direla eta diru-sarrerak bilatze hutsetik harago doazela. Gehienek helburua da gaitasunak sortzea, gero giza askatasunak zabaltzeko; horietako bat da pertsona guztientzat bizimodu duina izateko behar beste eskuratzea.

Esperientzia horien beste elementu bereizgarri bat erakundeek esperientzia gauzatzen den lurraldeko eta lurralde horretatik kanpoko eragileekin egin dituzten itunak dira. Batzuek itun horiek tokiko eta eskualdeko gobernuetako agintariekin bilatu dituzte, baita gizarte zibilarekin ere (aholkularitza eta topaguneak). Beste batzuk egin dituzten itunetako eragileak Eliza katolikoa, beste GKE batzuk eta nazioarteko komunitatea (Europar Batasuna eta Nazio Batuak) izan dira. Dena den, esperientzia guztiek nabarmentzen dute gakoa dela eskualdeko beste elkarte batzuekin harremanak izatea eta jendeak tokiko arlo askotan parte hartzea (biztanleria-guneak, banako moduan aurkezten diren pertsonak, eskualdeko elkarteak, foroak eta koordinakundeak, nazioko elkarteak, gobernu-erakundeak, zenbait motatako enpresak, etab.), identifikatzen eta bereizten dituzten interes, baldintza eta ezaugarri bereziak dituztela. Hain zuzen, aurrera eraman beharreko erronka da eragile guztiak koordinatzea eta elkarrekin komunikatzea. Garrantzitsua da merkataritza-itunak izatea proposamenek arrakasta izateko. Eta helburua da epe luzerako erlazioak izatea, lankidetzaren bidez. Hau da, erlazioaren etekina bi aldeek ateratzea da helburua, eta ez soilik ekoizleek (hori gehiago litzateke sorospen-harreman komertziala).

Jarraian, fitxa moduan jaso da argitalpen honetan islatzen diren hausnarketa eta ikaskuntzak osatu dituzten esperientziak.



1. Ikerketa eta Herri Hezkuntzako Zentroa / Bakerako Programa (CINEP/PPP), Kolonbia.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Jesusen Konpainiak 1972an sortutako irabazi asmorik gabeko fundazioa. Haren egitekoa da gizarte gizatiartuagoa eta orekatuagoa eraikitzearen alde lan egitea, osoko giza garapen jasangarria sustatuz.
Titulua	Bakerako, garapenerako eta Chocó-ko herritarrek indartze-ko laguntza.
Hasiera-urtea	1996.
Kokapena	Departamentua: Chocó; azpieskualdea: Bajo, Medio eta Alto Atrato, San Juan, Baudó eta Litoral Pacífico Norte.
Deskribapena	Bi ardatz estrategiko izan ditu esperientziak. Batetik, laguntza tekniko-produktiboa eman da Bajo Atratoko Proiektu Produktiboen Txandakako Funtsekin finkatzeko, eskualdean bertako nekazaritza – eta abeltzaintza-produktuak hazteko mikrokredituak sortzea babesteko. Bestetik, helburua izan da antolaketa – eta lurralde-errealitatea eta errealitate sozioekonomikoa sakon aztertzea eta maila juridiko, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaleko ekintzak egitea, lurraldea berreskuratzeko. Lurraldeko elkarte etnikoetako etniek agintariek eta liderrek inplementatu dituzte.
Esperientziaren balioak	Autonomia – autodeterminazioa. Gizakiaren ongizatearen eta naturaren ongizatearen arteko erlazioa. Belaunaldien arteko ongizatea. Ekosistemen babesa. Aniztasun etniko eta kulturala babestea eta zaintzea. Lurralde-ikuspegia duen garapena. Ekonomia tradizionalak babestea eta berriro asmatzea.

Helburua	Ekarpena egitea gatazken eraldaketa konstruktiboari, garapenaren osoko alternatibak indartuz eskualde lehene-tsietan, bake-kultura berriaren adierazpen moduan. Haren ardatzek autonomia eta kultura-nortasuna aitortzen eta baliatzen laguntzeko helburuari erantzuten diete, eta Chocó-ko biztanle afrokolonbiarren, indigenen eta mestizoen garapen eta bakerako prozesu alternatiboei bide eman diete.
Biztanleria-sektorea	Agintari etnikoak, liderrak, OETkoak eta eliza katolikoko eliza-eragileak.
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Aholkularitza eta laguntza teknikoa.
Antolaketaren funtzionamendua	Berariazko espazioak sortzea erabakiak esperientzian parte hartzen duten komunitateekin batera hartzeko.
Finantzaketa-bideak	Estatuko erakundeak, lankidetzako nazioko eta nazioarteko erakundeak.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Eragile ugari, eragile askoren ordezkariak (Estatua, gizarte zibila eta enpresak, besteak beste). Gizarte-elkarteak (Bajo Atratoko nekazarien eta erakundeen elkarteak – ASCOBA); estatuko erakundeak (Lurrak Itzultzeko Unitatea); tokiko GKEak (Opción Legal); nazioarteko komunitatea (CCFD, TROCAIRE, ACDI/VOCA, EB eta OXFAM, besteak beste); eliza (Elizbarrutiak: Apartadó, Quibdó eta Istimina – Tadó); hezkuntza-komunitatea (Claretiana Unibertsitate Fundazioa– FUCLA); talde etnikoak (afrikarren ondorengoak eta indigenak)...



2. Nekazarien Institutu Nagusia (IMCA) eta SUYUSAMA Fundazioa, Kolonbia.



Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Fundazioak.
Titulua	Tokiko eta eskualdeko jasangarritasuna eraikitzeke prozesua Nariño departamentuan, SUYUSAMA.
Hasiera-urtea	2008.
Kokapena	Nariño departamentua, Kolonbia.
Deskribapena	Giza talentuan hezteko prozesua inplementatzea eskualdean, tokiko eta eskualdeko jasangarritasuna parte-hartzearen bidez kudeatzen diplomadunak direnen sekuentzia baten bidez. Eskualdeko agenda politikoko une batzuk nabarmentze dira: (a) Bizi Planak egitea; (b) Bizi Planen eta gobernuko programen arteko elkarrizketa; (c) kultura politikoko heziketa; eta (d) Departamentuko eta Udalerriko Garapen Planetan formulazio parte-hartzaileak egiteko laguntza. Gainera, proiektuak osatzeko, kudeatzeko eta inplementatzeko prestakuntza ematen da.
Esperientziaren balioak	Jasangarritasuna (kultura, ekonomia, gizartea, politika eta espiritualtasuna). Herritarren parte-hartzea. Gizakiaren eta naturaren arteko erlazioa harmonikoa. Guztientzako ongia eta elkartasuna. Autonomia.
Helburua	Tokiko eta eskualdeko jasangarritasuna modu parte-hartzailean eraikitzeke prozesuak laguntzen ditu, eta gizarte – eta erakunde-liderren prestakuntza nabarmentzen du. Horretarako, Eskualde Jasangarriaren Etorbizuneko Planeamendu Estrategiakoaren metodologia erabiltzen da.

Biztanleria-sektorea	Komunitateko liderrak.
Produkzio-sektoreak	Nekazaritza-sektore ekologikoa eta ingurumen-sektorea (sektore ugari).
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Laguntza teknikoa eta gaikuntza.
Antolaketaren funtzionamendua	Komunitateen interesei laguntzen zaie, lan itundurako eta eragin politikorako gaitasuna sustatuz, hausnarketaren bidez, egoki diren ezagutzak indartuz eta espazio parte-hartzaileak ireki eta jendea gonbidatuz. Prozesu eta egoera guztietan pentsamenduaren mobilizazioa, publikoa denaren gizarte-kontrola, lurraldeko eragileekin itundutako elkarrizketa eta demokraziaren aldeko prozesu sinergikoak sustatzen dira.
Finantzaketa-bideak	Nazioarteko lankidetzeta-funtsak.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Itunak egitea sustatzen da, eskualdeko agenda politiko bat finkatu eta komunitatearen eta herritarrek aukeratu-tako agintarien arteko elkarrizketa indartu eta kualifikatzeko. Zenbait itun: Nariño ikusgarri (gizarte-elkarteak, erakunde publikoak, GKEak eta nazioarteko elkarteak), eta Nariño Departamenduko Komunikazio eta Kultura Ituna eta Nazioarteko Lankidetzako Eskualdeko Agenda.



3. Viviendas Hogar de Cristo delakoa / Ekuador.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Korporazioa.
Titulua	Herri-bankuko programa.
Hasiera-urtea	2002.
Kokapena	Guayas, Santa Elena eta Los Rios probintziak.
Deskribapena	Herri-bankuen esperientziaren oinarria pobrezia-aren aurkako borroka da. Borroka hori finantza-zerbitzuekin egiten da, hala nola mikrokredituekin, baita finantza-zerbitzuak ez diren beste zerbitzu batzuekin ere; adibidez, laguntza tekniko eta aurrezki erabiltzea, emakumeen gizarte – eta finantza-ahalduntzea sustatzen duten metodologiak baliatuz. Esperientziaren oinarria izan da herri-bankuen gako-printzipioak baliatzea; adibidez, parte-hartze komunitarioa, erakundea indartzea, elkartasuna baliatzea. Hala, bazkideek elkar bermatzen dute, eta konfiantza eta ardura partekatua garatzen dira guztien ongia eraikitzeko.
Esperientziaren balioak	Autonomia. Parte-hartze komunitarioa. Elkartasuna. Gizarte-, ingurumen – eta ekonomia-jasangarritasuna. Lankidetzak.
Helburua	Pobrezia, zaugarritasun-egoera eta gizarte-bazterketan dauden pertsonen gizarte – eta ekonomia-ahalduntze bide ematea, haien gaitasunak eta aukerak zabaltzeko. Hori egiteko, heziketa-prozesua eta gaitasun tekniko baliatzen dira, genero-ikuspegiarekin, kredituari, laguntzari eta aholkularitza teknikoari batuta, autoenpleguari eta diru-sarrerak sortzeko laguntzen dioten trebetasunak garatzeko.


Biztanleria-sektorea	Herri-bankua programa, eta Viviendas Hogar de Cristok aurrera eramaten dituen programa guztiak, enpresa publiko eta pribatuaren krediturik ez duten Ekuadorreko Kostaldeko familia pobreentzat dira.
Produkzio-sektoreak	Zerbitzu-sektorea: mikrokredituak, prestakuntzak, gaikuntza eta aholkularitza teknikoa beren diru-sarrerak eta enplegua sortzeko elkartasunezko ekonomia-ekintzailtzak martxan jartzeko.
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Finantza-zerbitzuak eta finantza-zerbitzuak ez direnak.
Antolaketaren funtzionamendua	Parte-hartzea prestakuntza-espazioen, lantegien, bileren, talde-batzarren, elkartasunezko bermeen, berrordainketaren eta maileguak berritzearen bidez sustatzen da.
Finantzaketa-bideak	Herri-bankako programa Rotary International-en hazi-kapital batekin hasi zen, eta hazi egin da beste ekarpen batzuekin: Garapenerako Amerika Arteko Bankua (BID), Andeetako Sustapen Korporazioa (CAF), Nazioko Finantza Korporazioaren (CFN) kreditu-ildoak eta Europako eta Estatu Batuetako agentziekin egindako Nazioarteko Lankidetzak Akordioak.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Nazioko eta tokiko enpresak nahiz nazioarteko lankidetzako erakundeak.



4. Garapenerako Zerbitzu Jesuita, El Salvador.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Nekazaritza jasangarriko talde komunitarioak.
Titulua	Ekoizpen jasangarriko sistema integratuak Guaymango eta Jujutla udalerrietan.
Hasiera-urtea	Guaymango (2008) eta Jujutla (2010).
Kokapena	Guaymango eta Jujutla udalerriak, Ahuachapán departamentua.
Deskribapena	Bi ardatz estrategiko ditu esperientziak: (a) nekazaritza jasangarria sustatzea eta inplementatzea elikadura-buru-jabetzarako eta – segurtasunerako estrategia moduan (lur-zoruak berreskuratzea eta biomasa leheneratzea, bertako haziak eta barietateak berreskuratzea, arbasoen ezagutzak berreskuratzea, laboreak dibertsifikatzea, etab.), eta (b) antolaketa komunitarioa sustatzea landa-garapenaren jasangarritasunaren oinarri eta bermetzat, hainbat arlotako prestakuntza-prozesuen bidez (errealitatearen azterketa, giza harremanak, herri-hezkuntza, genero-berdintasuna, etab.).
Esperientziaren balioak	Elikagaien ekoizpena ekonomizatzea. Ekoiztearen logika berreskuratzea, jateko, eta modu osasungarrian jateko. Nork bere gaitasunak aitortzea, eta zerbitzura jartzea. Antolaketa komunitarioa eta lan kolektiboa baloratzea. Ezagutza kolektiboa partekatzea eta eraikitzea. Elkartasuna, laguntasuna eta lankidetzak praktikan jartzea.
Helburua	Ekoizpen jasangarriko osoko sistemak sustatzea.

Biztanleria-sektorea	Nekazari-taldeak, komunitateka antolatuak.
Produktzio-sektoreak	Nekazaritza (familia-ekoizpena).
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Prestakuntza eta laguntza oinarriko antolaketarentzat, genero-ikuspegia eta gaitze teknikoa barne.
Antolaketaren funtzionamendua	(a) Nekazaritza Jasangarriko (AS) talde komunitarioak; (b) Komunitateko animazio-taldeak (EAC); (c) Bancos Vivos Comunitarios (BVC); (d) Erakundeko talde laguntzailea.
Finantzaketa-bideak	Lankidetza-agentziak eta GGKEak.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Gizon eta emakumezko nekazariak, prestakuntza-prozesuan parte hartzea eta txertatzea onartzen dutenak eta erakundeko talde laguntzailea. Lankidetza-agentziak, finantza-laguntza emanez. Antzeko esperientziak sustatzen dituzten eta prozesuen fase aurreratuetan dauden oinarriko beste erakunde batzuekin eta GKEekin koordinazioa dago, bai eskualde-mailan, bai herrialde-mailan. Hala ere, ez zen lan egin aliatu estrategikoekin.



5. Puente de Paz delakoa / Guatemala.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Puente de Paz eta ACODET, biak GKEak.
Titulua	Osoko prestakuntza Las Margaritas Copón-eko gazteen-tzat, arbasoen ezagutzak berreskuratzeko eta natura errespetatzen duten praktikak inplementatzeko.
Hasiera-urtea	2010.
Kokapena	Las Margaritas Copón.
Deskribapena	2009an Margaritas Copón komunitatean egindako diagnos-tiko komunitario batetik sortu zen, eta helburua da doku-mentatzea zer ingurumen-, ekonomia – eta gizarte-eragin izango lukeen komunitate horrentzat Xalalá hidroelek-trikoa eraikitzeak. Esperientzia gazteentzako osoko pres-takuntza formala izan zen, lau dimentsiotan oinarritua: (a) maien q'eqchí herriaren nortasuna indartzea; (b) arbasoen nekazaritza-ezagutzak berreskuratzea; (c) sentsibilizazioa eta komunitate-akordioak, (c) nekazaritza-praktika eko-logikoetarako prestakuntza eta gaikuntza eta (d) gazteek komunitatearen diagnostikoak egitea.
Esperientziaren balioak	Kultura aniztasuna, herrien nortasuna eta komunitatea an-tolatzeke moduak errespetatzea. Gizon-emakumeen arte-ko berdintasuna gizarte-maila guztietan. Giza eskubideak eta herri indigenen eskubide kolektiboak defendatzea. Elkartasuna, batasuna, zintzotasuna, justizia, gizarte-eral-daketa, bizitzarekiko maitasuna eta pertsona guztien duin-tasuna. Erlazio harmonikoa naturarekin

Helburua	Arbasoen ezagutzak berreskuratzea eta natura errespetatzen duten praktikak implementatzea.
Biztanleria-sektorea	Margaritas Copón-eko maien q'eqchí komunitateko bigarren hezkuntzako ikasle gazteak.
Produktzio-sektoreak	Nekazaritza-sektorea (sektore bakarra).
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Gaikuntza.
Antolaketa- funtzionamendua	Berariazko espazioak sortzea erabakiak esperientzian parte hartzen duten komunitateekin batera hartzeko.
Finantzaketa-bideak	Autofinantzaketa (funts propioak). Lantegi batzuetako laguntzaileari ordaintzeko, Juduen Mundu Zerbitzuaren (AJWS) laguntza izan genuen. Fundazio horrek Estatu Batuetan du egoitza.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Margaritas Copón-eko maien q'eqchí komunitateko batzarra. ACODET (Xalalá presak mehatxatutako komunitateen elkarte). Oinarrizko Institutua (bigarren hezkuntza) eta Puente de la Paz. Esperientzia horrek tokiko eta komunitateko zenbait eragileren parte hartzea izan zuen (eragile ugari).



6. Zerbitzu juridiko eta sozialak (SERJUS), Guatemala.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Gizarte zibila.
Titulua	Komunitateko enpresak sortzeko eta modu ekitatiboan merkaturatzeko gaitasunetan hezteak.
Hasiera-urtea	2008.
Kokapena	Guatemalako Mendebaldeko Goi Lautadako eskualdea, Quetzaltenango, Totonicapán eta Quiché departamentuetan.
Deskribapena	Prestakuntza – eta gaikuntza-prozesuaren hartzaileak dira komunitateko elkarteak eta udal-koordinakundeak, plan-teamendu estrategikoaren parte dutenak komunitateen osoko garapenari ekarpenak egiteko estrategiatzat zerbitzuak, produktuak eta diru-sarrerak sortzea. Testuinguru ekonomikoa eta testuinguru horretan erakunde moduan zer kokapen duten aztertze tresna metodologikoak eta teknikak ematen dira, baita tokiko ekonomia sustatzeko ekoizpen-ekimenak ongi administratzekoak ere. Prozesu hori elkartasunezko ekonomiaren eta merkataritza ekita-tiboaren ikuspegiekin garatzen da.
Esperientziaren balioak	Elkartasunezko ekonomia komunitarioaren ikuspegia. Hauek ditu oinarri: gizakiaren ongizatea, ikuspegi globa-la, osoko ekintza, elkarrekiko babes eta osagarritasuna, antolaketa komunitarioa eta parte-hartze komunitarioa, elkartasuna, nortasuna, tokiko baliabideen erabilera ja-sangarria, zuzentasuna, etika, justizia, herrien barneraketa eta burujabetza, naturaren errespetua, batasuna aniztasu-nean, eta genero – eta belaunaldi-ekitateak.


Helburua	Enpresa-ekimen komunitarioak sortzea, komunitateak gizar- te- politika – eta ekonomia-mailetan antolatzen lagunduz.
Biztanleria- sektorea	Maien komunitate indigenak.
Produktzio- sektoreak	Sektore ugari (nekazaritza-sektorea eta nekazaritza-sektorea ez dena).
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Laguntza teknikoa eta gaikuntza.
Antolaketaren funtzionamendua	Enpresa-ekimenek printzipio hauek garatzen dituzte: ne- gozioak kulturalki sentiberak izatea; komunitateen auto- determinazio ekonomikoa, berek erabakiz balio-kate edo – sareen maila edo artikulazio-maila; parte-hartzea eta adostasunak bilatzea erabakiak hartzeko elementu nagu- sizat; akordiorik lortzen ez den egoerak administratzea eta gaitasun teknikoak eta gerentzia-gaitasunak pixka- naka indartzea.
Finantzaketa- bideak	Nazioarteko lankidetzak: FDH Luxenburgo, FDU Italia, EED Alemania eta ALBOAN.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Komunitateko antolakundeei laguntza emateko ezinbes- teko baldintza da lurralde-mailako espazio zabalagoekin loturak izatea edo espazio horretan artikulatuta egitea; adibidez, udal-koordinakundeak, emakumeen eta gazteen batzarrak, edo tokiko ekonomia sustatzeko batzarrak. Interes indibidualei ez ezik, kolektiboek ere erantzun behar diete, bai orokorrean bai arloka.



7. Eskubide Indigenen Zentroa, A.C. – Yomol A`Tel (CEDIAC), Mexiko.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Yomol A`tel-eko entitate juridikoak (AC), Landa Ekoizpeneko Sozietatea, Erantzukizun Mugatuko Sozietatea, Sozietate Anonimoa. Egun, antolaketari dagokion ingeniari-tza-prozesu berrian dago Yomol A`Tel.
Titulua	Kafe organikoa eta ekonomia soziala.
Hasiera-urtea	1992 (CEDIAC); 2001 (Elkartasunezko ekonomian lanean Yomol A`Tel. moduan).
Kokapena	Chilón, Chiapas (lotura-bulegoa Mexiko Hirian).
Deskribapena	Esperientzia tzeltal komunitate indigenei laguntza teknikoa eta aholkularitza ematera bideratu da, produkzio-katean parte hartu ahal izan dezaten. Eskala txikiko logika eta osoko ikuspegia nagusitzen dira. Maien tzeltal komunitatearen karguen sistema tradizionalaren bidez, tokiko antolaketak utzi egin dio bertako produktuak (kafea eta ezti) lehengaitzat saltzeari, eta balioa ematen dio produkzioari; produkzio-katea kontrolatzen du, komunitateko liderrekin lan egiten du, hezkuntza-prozesua inplementatu du, autoaskiduran oinarritutako garapen-logika sortzen du, eta elkartasunezko enpresa moduan osatu da.
Esperientziaren balioak	Autonomia. Kultura-aniztasuna. Porrotaren ikaskuntza. Gizakiaren eta naturaren arteko erlazioa harmonikoa. Guztien ongia.

Helburua	Lurralde indigenetako prozesu ekonomikoak eta soziokulturalak eta ingurumen-prozesuak laguntzea eta indartzea, kultura arteko elkarriketaren bidez, landa-garapen jasangarriko prozesu bat dinamizatzeko. Prozesuaren helburua da bizi-kalitatea hobetzea eta lurraldearen kontrola bermatzea.
Biztanleria-sektorea	Tzeltal familiak eta langileak.
Produkzio-sektoreak	Nekazaritza ekologikoko sektorea (kafea eta eztia) (sektore ugari), eraldaketa eta kontsumoa elkartasunezko ekonomian oinarrituz.
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Laguntza teknikoa eta gaikuntza.
Antolaketaren funtzionamendua	Parte-hartzea tzeltalen komunitateen karguen egituratik bertatik sustatu da, eta helburutzat jarri da antolaketa indartzea. Hala hobeto irauten da, natura-baliabideak hobeto erabiliz.
Finantzaketa-bideak	%30 (Fundazioak); % 70 (ESS salmentak: Capeltic, Bats'il Maya, TX, Eztia eta Xaboiak, CSC).
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Kafe-soroen eta milparen ekoizle moduan, nazioko koordinakunde batean parte hartu da: Kafe Soroen Ekoizleen Elkarleen Nazioko Koordinakundea. Tokian bertan, itunak egin dira ekoizle organikoen beste elkarte batzuekin. Eta arloko itunez gain, loturak dauden beste gizarte-eragile batzuekin: Akademia – unibertsitateak, enpresa, gizarte-elkarteak eta bidezko merkataritzako sareak. Tokian eta eskualdean eragiten da, eskala txikiko logika sortzeko etapa dela eta.



8. Ikerketa Aplikatutako eta Tokiko Garapena Sustatzeko Institutua, NITLAPAN – UCA, Nikaragua.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Unibertsitate-institutua.
Titulua	Tokiko parte-hartzea sustatzea garapen sozioekonomiko-rako Río Blanco udalerrian.
Hasiera-urtea	2010.
Kokapena	Río Blanco udalerria.
Deskribapena	Herrialdearen iparraldean garatzen da, eta helburua da tokiko alternatiba sozioekonomikoak sortzea, biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzeko. Horretarako, laguntza ematen zaie landa-sektoreko gizon-emakumeei tokiko eta eskualdeko espazio itunduetan parte hartzeko eta, hala, garapen-prozesuak ituntzeko.
Esperientziaren balioak	Autonomia pertsonala errespetatzea eta sustatzea (gaitasunak garatzea); pertsonak beren garapena eraikitzeko eskubidea (Erdialdeko Amerikak eta nazioak garapen prozesu propioari buruz pentsatzea); ingurumen-jasangarritasuna; parte hartzea eta antolaketa komunitarioa.
Helburua	Ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokienez, Río Blanco udalerriko familia ahulen taldeei laguntza ematea, haien parte-hartzea eta tokiko antolaketa sustatuz ekimen sozioekonomikoetan, esnearen, kakaoaren eta oinarritzko aleen ekoizpen-kateetan duten txertaketa hobetzeko.
Biztanleria-sektorea	Landa-eremuko komunitateak eta familiak.

Produktzio-sektoreak	Sektore ugari (sektore sozioekonomiko ugari – nekazaritzan aritzen direnak eta beste arloren batean aritzen direnak).
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	a) Prestakuntza eta gako-baliabideak (kapitala, orientazio teknikoa eta lurra, ganadua) ematea; b) parte hartzeko eta antolatzeke moduak garatzea; c) eragiteko mekanismoak garatzea, garapenerako ekintza kolektiboak ituntzeko tokiko espazioak (mahaiak) sortuz, eta tokiko politika publikoetan eragitea; e) tokiko giza baliabideei prestakuntza ematea udalerraren garapen sozioekonomikoari lagunduko dioten ekintzak arrazoitzeke eta proposatzeko gai diren gazteei, gizarte – eta genero-ekitatea kontuan izanik, eta, ingurumenari dagokionez, jasangarriak direnak.
Antolaketaren funtzionamendua	Familien gaitasun indibidualak eta kolektiboak hobetzeko ekintzak egin dira (finantza-baliabideak eta bestelako baliabideak eskuratzea: finantzaketa, gaikuntza, laguntza teknikoa, prestakuntza); baita tokiko eta udalerriko negozio-espazioetan parte hartzeko ekintzak ere (udal-eragileen plataformak sortzea).
Finantzaketa-bideak	ALBOAN.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Eragin zabalagoa izateke eta eragileen gizarte-mugimendua lortzeko, lurralde-eztabaidak eta – itunak egiteke topaketak sustatzen ari gara, garapenaren askotariko arloak lantzeko. Uste dugu garapenerako ekintza kolektiboak ituntzeko tokiko espazioak (mahaiak) sortuta, tokiko politika publikoak txertatuko dituzten mekanismoak lor daitezkeela. Esperientzia horrek tokiko eta eskualdeko zenbait eragile-ren parte hartzea izan zuen (eragile ugari). GKE: Ayuda en Acción eta Agua para la Vida; Río Blancoko alkatetza.

9. Paraguaiako Antonio Guasch Ikasketa Zentroa (CEPAG), Paraguai.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Jaguarete kooperatiba.
Titulua	Nekazaritza ekologikoko kooperatibismoarentzako laguntza.
Hasiera-urtea	2010.
Kokapena	Paraguai.
Deskribapena	Kooperatibak sortzeko laguntza ematen du, 5 ardatzetan oinarrituz: (a) lantaldeen <i>antolaketa indartzea</i> , antolaketarako lider berriak sustatzea, emakumeen parte-hartzea, sustatzaileen prestakuntza (produktiboak); (b) <i>nekazaritza-ekoizpen ekologikoa</i> , partzuergoen ekoizpen-planak, herri-jakintza berreskuratzea, nekazarien teknologia, azienda xehea hobetzea, ekonomia berpiztea (batera merkaturatzea), ekoizpenaren balio erantsia; (c) <i>gaitasunak sustatzea</i> , lursail-eskolak, eragin politikoa komunitate barruan eta tokiko gobernuan; (d) basoen <i>erabilera jasangarria</i> , baso-haztegiak, nekazaritza – eta basozaintza-sistemak; (e) <i>elikadura – eta nutrizio-segurtasuna</i> , familia-baratzeak, lursailean dauden produktuak kontserbatzea eta kontsumitzea.
Esperientziaren balioak	Tokiko jakintza eta biodibertsitatea berreskuratzea eta babestea: bertako haziak babestea eta berreskuratzea. Autoestimua eta autonomia pertsonala garatzea: ekoizle txikiei bizirik irauteko dituzten bideetan sinestaratzea.
Helburua	Familia nekazarien antolaketa komunitarioa sustatzea eta ekintzailetza komunitarioaren agerpena.

Biztanleria-sektorea	Nekazari-familiak.
Produktzio-sektoreak	Nekazaritza-sektorea ekologikoa (sektore bakarra).
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Laguntza teknikoa eta gaikuntza.
Antolaketaren funtzionamendua	Familiak jardueretan parte hartzeko bultzada lantaldeetatik bideratzen da (bereziki emakumeak eta gazteak). Talde horiek ordezkariak dituzte kooperatibaren administrazio-kontseiluan, eta han hartzen dira erabakiak; lantaldeen ordezkariak gauzatzen dituzte gero. Merkaturatzeko behar den eskulana taldeetan antolatutako familiak jartzen dute.
Finantzaketa-bideak	Nazioarteko lankidetzak.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Gaur egun, CEPAGek eta GKE lagun batek esku hartzen duen beste eremu batzuetan ere egiten ari da, ekoizleek merkaturatze-sarea osatzeko. Hiru solairuko instantzia batean artikulatu behar da zenbait erakundek marka bera lortzeko eta nazioko eta nazioarteko merkatuan sartzeko; izan ere, Paraguain zaila da marka erregistratu bat lortzeko lege-habilitazioa lortzea. Nekazaritza-marka horren bidez, merkaturatzeko sistema alternatiboa eman nahi zaie ekoizle txikiagoei, betiere familien elikadura-segurtasuna zainduz. Esperientzian parte hartu du Paraguako Gobernuaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Ministerioako Nekazaritza-zuzendaritzak (DEAG).



10. Nekazarien Ikerketa eta Sustapen Zentroa (CIPCA), Peru.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Bananondo Organikoaren Ekoizle Txikien Elkarteen Piurako Zentrala (CEPIBO) / Irabazi asmorik gabeko elkarte zibila
Titulua	CEPIBOren eta haien oinarritzko elkarteen produkzio – eta antolaketa-gaitasunak indartzea.
Hasiera-urtea	2008.
Kokapena	Chira ibarra, Sullana probintzia, Piura eskualdea, Peru iparralde.
Deskribapena	Ekoizle-elkarte txikien gaitasun tekniko-produktiboak, enpresarialak eta antolaketakoak garatzea, eta, horretarako, bitarteko hauek erabiltzen dira: laguntza tekniko pertsonalizatua, ikerketa agronomikoa, paketatze azpiegitura modernizatzea, barneko kontrol-sistemak egoki inplementatzea, ekoizpen organikoaz eta ziurtagiriez arduratzeko, kudeaketa-tresnak erabiltzea, parte hartzeko espazioak indartzea eta haren garapenarekin erlazionatutako beste aktore batzuk artikulatzea
Esperientziaren balioak	Gizarte-ekitatea eta ingurumen-jasangarritasuna ekoizpen-katean: ekoizpen organikoan oinarritutako garapena, baliabideen erabilera arrazionala, eskalako ekonomiak baliatzea eta etekinak zuzen banatzea kide guztien artean. Elkartasuna, lankidetzeta eta elkartzea. Emakumeen eta gizonen parte-hartze ekitatiboa. Harreman horizontalak zuzendaritzako kargudunen eta oinarrietako langileen artean.
Helburua	Ekoizle txikiak merkatu organikoaren eta bidezko merkataritzaren esportazio-katean txertatzea.

Biztanleria-sektorea	Ekoizle txikien elkarteak.
Produktzio-sektoreak	Bananondo organikoaren ekoizpena (sektore bakarra).
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Laguntza teknikoa eta gaikuntza
Antolaketaren funtzionamendua	Zuzendaritza Kontseilua eta Batzar Orokorra daude, batu diren pertsonena, eta plan estrategikoak, eragileak eta finantza-planak definitzen ditu. Plan horiek oinarriko erakundeek baliozkotzen dituzte gero. Gardentasun-espazioak eskaintzen dira; adibidez, batzar zabalduak, hainbat sektoretako zuzendaritzek eta ordezkariak osatuak; zaintza-kontseiluak, Zentralaren gobernagarritasunean rol estrategikoa dutenak, ustelkeria-kasuak hautemateko; eta emakumeen parte-hartzea zuzendaritza-kontseiluetan (bi, gutxienez).
Finantzaketa-bideak	Harremanak nazioarteko finantza-entitateekin, hala nola Rabobank eta Shared Interest entitateekin. Hala, itzultzen diren funtsak eskuratzen dira ekoizpen-azpiegiturretan inbertitzeko eta bananondo organikorako ongariak eskuratzeko.
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Eskualdeko gobernuarekin artikulatzea, eremu landuga-been erosketa kudeatu eta nekazaritza-muga zabaltzeko. Bananondoaren mahai teknikoa osatzea, sektorearen arazo tekniko-produktiboak eta merkataritza-arazoak aztertzeko. Arazoak gainditzeko akordioak egiten dira. Piurako ekoizle esportatzaile txikien erakunde sarea – REDOPAN osatzea eskualde-mailan. Ekimen batzuk artikulatu dira, hala nola portuko tarifen igoeraren aurkako martxa eta lanerako agendaren proposamena egitea eskualdeko gobernuari. Esperientzia horrek tokiko eta eskualdeko zenbait eragile-ren parte hartzea izan zuen (eragile ugari).



11. Nekazariak eta Industria Gaitzeko Jesús Obrero Zentroa (CCALJO), Peru.

Esperientziaren antolaketa / Forma legala	Ocongateko Behi Hazleen Distrituko Elkarte (ADCVA – Ocongate) / Elkarte zibila.
Titulua	Esne-ganadutegia garatzea Ocongate distrituan.
Hasiera-urtea	2008.
Kokapena	Ocongate distritua.
Deskribapena	Gaikuntza, aholkularitza eta laguntza teknikoa eta kudeaketa-laguntza, enpresei buruzkoa, behiak hazi eta esnea ekoizten duten familia nekazariantzat eta esnekiak ekoizten dituzten familia nekazariantzat. Familia ekoizleak gaitzea praktikoa eta pertsonalizatua da nagusiki, lursailetan, taldeetan eta esnea eraldatzeko lantegietan egiten baita. Oso garrantzitsuak dira egonaldiak eta esperientzia-trukeak.
Esperientziaren balioak	Ingurumen-jasangarritasuna eta familiek ondasunak modu arduratsuak erabiltzea, hala nola ura, lurra eta lurreak. Gizarte-zuzentasuna. Kultura aniztasuna errespetatzea. Genero-berdintasuna. Konpromisoa produktuen kalitatearekin eta lehiakortasunarekin, hiriko familiei iristen baitzaizkie kontsumitzeko. Horrenbestez, oso garrantzitsua da kontsumitzaileen elikadurari egiten zaion ekarpen nutritiboa.
Helburua	Nekazari-familia ekoizleak teknikoki eta kudeaketan gaitzea, esne-abeltzaintza garatzeko Ocongate distrituan.

Biztanleria-sektorea	Ocongateko abeltzainak eta esnearen eraldatzaileak (neka-zari-familiak).
Produkzio-sektoreak	Esne-abeltzaintza.
Produktu-mota edo eskainitako zerbitzua	Gaikuntza, aholkularitza eta enpresarako laguntza tekniko eta kudeaketa-laguntza.
Antolaketaren funtzionamendua	Bi elkarte sortu dira: Behi Hazleen Distrituko Elkartea (ADCVA) eta Esneki Ekoizleen Sumac Ritti Elkartea. Bi elkarteek aldi-aldi egiten dituzte bilerak, jatorrizko komunitateetan, eta ordezkariak aukeratzen dituzte distritu-mailako bileretarako. Haien parte-hartzea sustatzeko beste modu bat da azokak egitea arro hidrografikoetan eta/edo distrituetan; biltzar teknikoak, jaialdi teknikoak eta lehiaketak.
Finantzaketa-bideak	Nazioarteko Lankidetzako Teknikoa; Lankidetzako Nazio Funtsak, Tokiko Gobernuaren Baliabide Ekonomikoak (Ocongate distrituko udala).
Parte hartu duten eragileak eta itunak	Esperientzia honetan lehenago deskribatu diren bi elkarteen antolatutako familiek parte hartzen dute; Ocongateko distrituko udal-agintariak eta – funtzionarioak; Acting for Life eta Elkartasuneko Lantegi Fundazioa (kooperazio-agentziak); koordinazioak Sierra Exportadora programako eskualde-bulegoarekin. Tokian bertan itunak egiteko erakunde arteko espazioak daude (mahai teknikoak eta/edo gaikako mahaiak), parte-hartzaile esne-behien jardueraren balio-kateko eragile guztiak dituen, eta tokiko garaipenerako batzordeak (distritua). Esperientzia eragile ugariaren parte hartzea izan zuen (eragile ugari).

4. ERANSKINA. COMPARTEREN GAITASUNEN KATALOGORAKO ESPARRUA

Kategoria	Dimentsioak
Gaitasun fisiko-materialak	Konpetentzia indibidualak eta gaitasun kolektiboak
Gaitasun politiko-sozialak	
Gaitasun psikologikoak	
Zentzuaren eta harmoniaren gaitasunak	

Katalogo honetan jasotako bost gaitasun kolektibo eta konpetentzia indibidualek ez dute lau kategorietan egon behar, hori kategoria bakoitzaren arabera izango baita.

Gaitasuna	Konpetentziak
1G. Konpromisoa hartzeko eta garapen-jardueratan aritzeko gaitasuna	- Jabetzeko eta beste batzuk erakartzeko konpetentzia. - Pertseberatzeko konpetentzia eta jarrera. - Nahi izateko (irrikatzeko) konpetentzia. - Uste osoa eta ilusioa sortzeko konpetentzia; inspiratzeko gaitasuna. - Espazio propioa eskuratzeko edo lortzeko konpetentzia. - Segurua izateko konpetentzia. - Ekintzara eramango duen lidergoa inspiratzeko konpetentzia.

2G. Zeregin edo funtzio logistikoak egiteko, eta zerbitzuak eta teknikak eskaintzeko gaitasuna	- Zerbitzuak emateko konpetentzia. Onuradunentzat eta auka dauden taldeentzat balioa sortzeko konpetentzia. - Plangintza estrategikoki egiteko eta kudeatzeko konpetentzia (maila operatiboa). - Planifikatzeko, erabakitzeko eta hartutako erabakietan modu kolektiboan jarduteko konpetentzia. - Proiektuak eta finantzak kudeatzeko konpetentzia. - Garapen-emaiza funtsezkoak sortzeko konpetentzia, erakundearen aginduari jarraikiz; adibidez, osasuna, hezkuntza, genero-berdintasuna, ingurumenaren jasagarritasuna... hobetzea. - Garapenaren emaitzen jasagarritasuna hobetzeko konpetentzia.
3G. Harremanak izan eta babesa eta baliabideak lortzeko gaitasuna	- Garrantzitsuak diren beste eragile batzuen aurrean sinesgarritasuna eta zilegitasuna irabazteko konpetentzia; adibidez, talde onuradunak, emaileak eta kontrako alderdiak. - Besteren konfiantza irabazteko konpetentzia; adibidez, onuradunena, emaileena eta kontrako alderdiena. - Erakundea edo sistema kanpotik norbait sartzetik babesteko konpetentzia. - Neutraltasun politikoa eta asertzio-eragina bateratzeko konpetentzia. Erakundearen osotasunari eusteko konpetentzia. - Eragin politikoa izateko konpetentzia. - Kanpo-eragile garrantzitsuekin itun egokiak sortzeko eta denboran mantentzeko konpetentzia. - Ezagutzak eta esperientziak sareko beste eragile batzuekin partekatzeko konpetentzia. - Autonomiaz aritzeko konpetentzia. - Baliabide tekniko eta finantza-baliabide egokiak mobilizatzeko konpetentzia.

**4G. Moldatzeko
eta berritzeko
gaitasuna**

- Ikaskuntza indibiduala era erakundearena hobetzeko konpetentzia.
- Barne-elkarrizketa sustatzeko konpetentzia.
- Erakundea birkokatzeko eta berrantolatze konpetentzia.
- Autohausnarketarako eta autokritikarako konpetentzia; horrek onartzen dena eta sinesteak zalantzan jartzea eskatzen du.
- Ideia berriak txertatzeko konpetentzia (sormena).
- Konfiantza – eta aldaketa-espazioa sortzeko konpetentzia: aniztasunerako, malgutasunerako eta sormenerako espazioa.
- Hazkunde-bidea planifikatzeko konpetentzia.
- Kudeaketa-kultura moldagarria, malgua sortzeko konpetentzia.
- Aldaketa-ildo garrantzitsuak ongi ulertzeko eta haiei aurrea hartzeko konpetentzia.
- Etorkizuna aztertu eta etorkizun-ikuspegia izateko konpetentzia: erresilientzia, jarraitzeko eta etorkizunean proiektatzeko gai izatea, baita egoerak kontrakoak eta zalantzazkoak direnean ere.
- Estrategietan naturaren murrizketak txertatzeko konpetentzia.
- Ezagutza-motak batzeko eta tokiko ezagutza kudeaketan eta erabaki-hartzeetan txertatzeko konpetentzia.

5G. Koherentzia aniztasunaren bidez orekatzeko gaitasuna	- Komunikatzeko konpetentzia. - Loturak eraikitzeko konpetentzia. - Aniztasuna kudeatzeko konpetentzia. - Paradoxak (ideia kontrajarriak) eta tentsio handiko egoerak ebazteko konpetentzia. - Nahien, ikuskeren, estrategien eta proiektuen artean koherentzia lortzeko konpetentzia. Ikuskera eta estrategia partekatuak garatzeko konpetentzia eta funtzionamendu-printzipioak definitzeko konpetentzia. - Erakundearen koherentzia lortzera bideratutako lidergoa sortzeko konpetentzia, egonkortasunaren eta aldaketaren arteko orekari eutsiz. - Arazo konplexuen aurrean erabakiak hartzeko konpetentzia: Konplexutasunean mugitzea, zalantzazko egoeretan eta gizarte-sistemen berezkoa den konplexutasunaren aurrean jarduteko gai izatea eta aldaketarekin eta zalantzarekin bizitzen ikastea.
---	--

Iturria: guk prestatua. Oinarriak: Baser eta Morgan (2008: 26-34); Engel, P., Keijzer, N., Land, T. (2007:15) eta Alfonso Duboisek 2012ko COMPARTEn mintegian egindako ekarpenak.

Bibliografia eta dokumentuak

ARGITALPENAK

Agnew, John A. (1987). *Place and Politics. the geographical mediation of state and society*. Boston: Allen & Unwin.

Anderson, M. B. eta P. J. Woodrow (1989). *Rising from the Ashes. Development Strategies in Times of Disaster*, Westview Press-UNESCO, Boulder (Colorado)-Paris (1998an berriro argitaratua IT Publications argitaletxeak, Londres).

Abramovich, Ana Luz (2008). “Emprendimientos productivos de la economía social en Argentina: funcionamiento y potencialidades”. Argitalpena: La economía política de la pobreza / Alberto Cimaadmore (konp.) Buenos Aires: CLACSO.

[<http://biblioteca.clacso.edu.ar/ar/libros/clacso/crop/cimada/Abramov.pdf>]

ALBOAN (2011). *El desarrollo alternativo por el que trabajamos: aprendizajes desde la experiencia*.

[http://centroderecursos.ALBOAN.org/ebooks/oooo/o664/Desarrollo_Alternativo_-_aprendizajes.pdf]

Bebbington, Anthony (2005). “Estrategias de vida y estrategias de intervención: el capital social y los programas de superación de la pobreza”. In Arriagada, Irma (ed.), *Aprender de la experiencia. El Capital Social en la superación de la pobreza*. Santiago: Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa (CEPAL), 21-46.

[<http://www.eclac.cl/publicaciones/xml/2/23012/lcg2275e.pdf>]

Bebbington, Anthony (1999). *Capitals and capabilities: A framework for analyzing peasant viability, rural livelihoods and poverty*. World Development, 27. lib, 12. zk., 2021 – 2044, 1999

Bebbington, Anthony (2007). “La sostenibilidad social de los recursos rurales: apreciaciones a partir de los conflictos mineros en Latinoamérica”. *Debate Agrario*, 2007, 31-78. Lima: Gizarte Azterketen Peruko Zentroa.

[<http://www.cepes.org.pe/debate/debate42/debate42-presenta.pdf>; <http://www.cepes.org.pe/debate/debate42/o2-bebbington.pdf>]

Baser, Heather and Morgan, Peter (2008). *Capacity, Change and Performance: Study Report*, Maastricht: European Centre for Development Policy Management (ECDPM).

[<http://ecdpm.org>]

Brand, Ulrich. “El papel del Estado y de las políticas públicas en los procesos de transformación”. En Fundación Rosa Luxemburg/Abya Yala (2011). *Más allá del desarrollo. Grupo Permanente de Trabajo sobre Alternativas al Desarrollo*.

[http://rio20.net/wp-content/uploads/2012/07/mas-alla-del-desarrollo_30.pdf]

Da Ros, Giuseppina Sara (2007). “Economía solidaria: aspectos teóricos y experiencias”, *Unircoop Americas*, 5. lib: 9 – 27.

[<http://www.rulescoop.ucr.ac.cr/index.php/revistaunircoop/func-startdown/48/>]

Dubois, Alfonso (2008). “El debate sobre el enfoque de las capacidades: las capacidades colectivas”. In Araucaria, Revista Iberoamericana de Filosofía, Política y Humanidades, Urtea: 10, Nº 20 2008ko bigarren sei hilekoa.

[http://institucional.us.es/araucaria/nro20/ideas20_3.htm]

Engel, P., Keijzer, N., Land, T. (2007). *A balanced approach to monitoring and evaluating capacity and performance: a proposal for a framework*. ECDPM Discussion Paper No. 58E. Maastricht: ECDPM.

[<http://ecdpm.org>]

Gough, Ian (2008). “El enfoque de las capacidades de M. Nussbaum: un análisis comparado con nuestra teoría de las necesidades humanas”. In *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 100. zk., CIP-Ecosocial/Icaria, 2007/08ko negua.

[http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/17062/original/Enfoque_de_las_capacidades_de_M._Nusbaum.pdf]

Huisman, Peter and Ruijsm schoot, Lieke (2013). “Using the Five Capabilities (5C) model: making a virtue of necessity”. *Development in Practice*, Volume 23, Number 2, 299-311.

Marcielli, Florent (2012). *Cooperación al posdesarrollo. Bases teóricas para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo*. Bilbao, Bakeaz (Serie general).

[<http://www.bakeaz.org/es/publicaciones/mostrar/455-cooperacion-posd>]

Nussbaum, Martha C. (2012). *Crear capacidades. Propuesta para el desarrollo humano*. Paidós argitaletxea.

Nazio Batuen Garapenerako Programa (2013). *El ascenso del Sur. Progreso humano en un mundo diverso*.

[http://hdr.undp.org/en/media/HDR2013_ES_Complete%20REV.pdf]

- (2010). *La verdadera riqueza de las naciones. Caminos al Desarrollo Humano*.

[http://hdr.undp.org/en/media/HDR_2010_ES_Complete_reprint.pdf]

- (2009). *Desarrollo de capacidades. PNUDren oinarizko testuak*.

[http://www.undp.org/content/dam/undp/library/capacity-development/spanish/Capacity_Development_A_UNDP_Primer_Spanish.pdf]

Nazio Batuen Garapenerako Programa (1990). *Informe sobre Desarrollo Humano: definición y medición del desarrollo humano*, Bogotá, Tercer Mundo Editores.

[<http://hdr.undp.org>]

Pueblos (2011). *Desarrollo, cooperación y empresas transnacionales*. Pueblos de Información y Debate aldizkaria, 2011ko abenduako zenbaki berezia, 49. zk. Multinazionalen behatokia Latinoamerikan

[www.revistapueblos.org/old/spip.php?article2305]

Razeto M. Luis (1999). “La economía de solidaridad: concepto, realidad y proyecto”. *Persona y Sociedad*, Vol. XIII, nº 2, Sgo. de Chile.

[<http://www.revistapueblos.org/old/spip.php?article2305>]

Razeto M. Luis (1999). “La economía de solidaridad: concepto, realidad y proyecto”. *Persona y Sociedad*, XIII. liburukia, 2. zk., Santiago.

[http://base.socioeco.org/docs/razeto_la_economia_de_solidaridad_o6.pdf]

Retolaza Eguren, Iñigo (2010). *Teoría de cambio. Un enfoque de pensamiento-acción para navegar en la complejidad de los procesos de cambio social*. PNUD eta Garapenerako Lankidetzaren Institutu Humanista (HIVOS).

[<http://compartedesarrollo.wordpress.com/2012/07/09/guia-teoria-de-cambio/>]

Sen, A. (1993). “Capability and Well-Being”, in Nussbaum, M eta A. Sen, *The Quality of Life*, Clarendon Press, Oxford.

Sen, A. (1985). “El bienestar, la condición de ser agente y la libertad”, in Sen, A., *Bienestar, justicia y mercado*, Paidós, Barcelona 1997.

Pérez Orozco, Amaia (2012). “De vidas invisibles y producción imposible”.

[<http://alainet.org/images/Amaia%20Orozco.pdf>]

Teresa Burns, Alison (2011). “Construyendo alternativas: una economía solidaria del cuidado”, in *Politizando la pobreza: hacia una economía solidaria del cuidado*, Instituto Católico de Relaciones Internacionales (CIIR) - Progressio El Salvador.

LANERAKO DOKUMENTUAK

Dubois, Alfonso. Power pointa: “El desarrollo de las capacidades”, COMPARTERen mintegia, Loiolan (Gipuzkoan) egin 2012ko irailaren 24tik 27ra.

Dubois, Alfonso. Power pointa: “Categorías colectivas para el desarrollo humano”, COMPARTERen mintegia, Loiolan (Gipuzkoan) egin 2012ko irailaren 24tik 27ra.

COMPARTERen 2012ko irailaren 24-27ko mintegiaren (Loiola - Gipuzkoa) kontakizuna. “Aterrizando propuestas para el desarrollo alternativo: un acercamiento a la generación de capacidades en iniciativas económico productivas”.

COMPARTERen 1. moduluaren laburpena. “Socializando el desarrollo alternativo por el que trabajamos: aprendizajes desde la experiencia”.

COMPARTE komunitateak 1. kapituluari egindako ekarpenen laburpena: ¿El desarrollo alternativo o alternativas al desarrollo?

COMPARTE komunitateak 2. kapituluari egindako ekarpenen laburpena: El desarrollo de capacidades.

WEBGUNEAK

Dubois, Alfonso (2010). “Capacidades”. In Icaria eta Hegoa (ed.), *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*.

[<http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/28>]

Desarrollo Humano Local ataria. HEGOA – Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea.

[<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/>]

Elkartasunezko ekonomiaren ataria, REAS- Red de Redes de Economía Alternativa y Solidaria.

[<http://economiasolidaria.org/>]

Gizarte-ekonomiaren eta elkartasunezko ekonomiaren Latinoamerikako ikerlarien sarea.

[<http://riless.org/es/>]

